



ETaren jarduera
armatuaren
amaieratik, 10 urte

El Drogas musikari
eta idazleari
elkarriketa

**Ekiola kooperatibak
400-450 familiaren
energia beharrak
asetzeko energia
sortuko du Garaian** / 6

**Etorkinak integratzen
laguntzeko erronka
duen Amerika elkarteak
aurkeztuko dute gaur
Arrasaten** / 10

SINADURAK

	IKER AGIRRE / 8		ANDRES OSA "SAKONA" / 25
	MARKEL ARRIOLABENGOA / 13		LUKENE IGARTUA / 28
	MIKEL IRIZAR / 40		



INTSUMISIOA ZER IZAN ZEN, INTSUMISOEK KONTATUTA

Asteon estreinatu dute 'Intsumisioa Bergaran. Desobedientziarako bide bat' dokumentala, soldadutzari planto egin zion mugimenduaren gainekoa / 4

Bergarako lau intsumiso. Ezkerretik eskumara: Joxe Lazkano, Jesus Mari Kalboetxeaga, Aitor Alberdi eta Markos Perez. XABIER URZELAI

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia.

/ 17

2 MÓ

229€

progresibo erreflexuen
aurkako lenteekin

soilik mó izan
daiteke



Kontsultatu optikari kanpoinaren esanagarririk.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiopicas.com

MULTIÓPTICAS

50 urte zuen ikusmena zaintzen



Arizmendi Ikastolako ikasleak maskarekin jolasten. UXUE IGARZA

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Astelehenaz geroztik indarrean da Hezkuntza Sailaren protokolo berria EAEko ikastetxeetan, baina, Nafarroako aurrekariak iradoki bezala, ez da aldaketa handirik gertatu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta batxilergoko ikasleek maskararik gabe ibiltzeko aukera dute orain, aire zabaleko eremuetan; baina, betiere, metro eta erdiko distantzia bermatzen bada. Lehen Hezkuntzari dagokionez, aldaketak burbuila-sistemari eragiten dio soilik: ikasgela barruetan orain arteko taldeak mantendu behar dira, baina aire zabalean maila bereko ikasle guztiak batera egon daitezke; hori bai, beti maskara jantzita.

Maskara, eztabaidagai

Protokoloak dio 6 urtetik gorako LHko ikasleek beti erabili behar dutela maskara; eta, hain zuzen ere, erabaki horrek harrotu ditu hautsak hezkuntza komunitateko hainbat sektoretan. Ikastolen Elkartea da protokoloarekin ados ez dagoen eragileetako bat; azaldu duenez, gizarteko neurrien malgutzeak ez du islarik izan hezkuntzan: "Aire zabalean daudela musukoa erabili behar duten bakarrak dira haurrak, eta era berean, ikastetxea da musukoa erabiltzea nahitaezkoa den aire libreko eremu bakarra".

Arizmendi Ikastolako zuzendari Iñaxio Barañano Goitia ere

Maskara nahitaezkoa den aire zabaleko eremu bakarra jolastokia da

'Osasun zaintza' izeneko egoera berrian, gizarteko osasun-arauak leuntzeaz gain, hezkuntza sisteman indarrean dagoen protokoloa ere malgutu du Jaurilaritzak. Aurreko egubakoitzean bidali zen ikastetxeetara, eta aste honetan jarri da indarrean

bat dator gainerako ikastolekin: "Egoera epidemiologikoa askoz hobe da, eta protokoloa gizarteko neurrietara gehiago gerturatu zela uste genuen. Dezipzionatuta gaude". Bestetik, gaineratu du maskararen neurriak "zalantzak" sortzen dizkietela: "Eskolatik irtendakoan, umeek musukoak kentzen dituzte; baina ikastetxeko kanpoko eremuetan erabili egin behar dute. Ez dugu oso ondo ulertzen".

Ikastolen Elkartek ohar bidez plazaratu du bere "ezinegona", eta "bereziki haurren alderdi emozionalak" kezkatzen dituela

HEZKUNTZA EREMUKO HAINBAT ERAGILE OSASUN-PROTOKOLO BERRIAREN KONTRA AGERTU DIRA

adierazi dute elkarteko kideek. Hala, eskaera zuzena egin diete Eusko Jaurilaritzari eta Foru Gobernuari: aire zabalean maskara erabiltzea hautazkoa izatea. "Bat gatoz elkartearekin. Eskara eginda dago eta orain itxarotzea besterik ez daukagu", esan du Barañanok.

Ikastolez gain, ikastetxe publikoek ere mahai gainean dute maskaren gaineko eztabaida. Adibidez, Oñatiko Urgain herri eskolan protokoloa "malguagoa" izango zela espero zuen Lorea Jimenez zuzendariak, eta Aintzane Agirre ikasketa-buruak zehaztu du itxaropena baino gehiago, "nahia" gailentzen zitzaiela: "Neurriak arintzeko beharra genuen; egoera honi agur esan eta normaltasunean sartzeko premia dugu. Eskolan oso gauza gutxi aldatu dira protokolo berri honekin".

Jimenezen iritziz, hurrei "geroz eta gehiago" kostatzen zaie maskara jarrita edukitzea: "Eskolatik irten eta berehala erantzten dute, baina hemen jarrita izan behar dute jolastokian ere. Hauxe da daukaguna. Guk ezin dugu ezer egin, legea aldatu arte". Agirrek, bestalde, azpimarratu du hasieratik bete dituztela arauak: "Irakasleek, ikasleek eta familiek ondo errespetatu dituzte protokolo guztiak eta osasun-neurriak. Baina horrek ondorio emozionalak ere ekarri ditu eta ekarriko ditu; horiei ere aurre egin beharko zaie".

JAURLARITZAK EZ DU ARRAZOIRIK IKUSTEN ESKOLAN MASKAREN ERABILERA BERTAN BEHERA UZTEKO

Deialdiak Hego Euskal Herrian

Haurrak ere bai plataforma ere aspalditik ari da mobilizazioak egiten; besteak beste, maskararen erabileraren inguruko eskaera hori lortu nahian. Maider Irun plataformako kideak azaldu duenez, ez daude ados orain arte gobernuak egindako proposamenekin: "Ez geunden ados aurrekoekin eta ez gaude ados berriarekin. Eskolatik kanpo egiten den maskararen erabilera kontuan hartuta, ez zaigu buruan sartzen". Bestetik, Irunek gaineratu du "gurasoak aktibatzekeo premia" ikusten duela: "Ez dugu ulertzen gurasoek nola baimentzen duten egoera hau eta nola ez diren kalera gehiago irteten". Mobilizazioak iragarriko dituzte laster.


Bizitza plataformak ere egin du bere deialdia datorren egubakoitzerako. Jolastokietako maskararen erabileraz gain, bestelako eskaera batzuk ere egin dituzte, "protokolo agresiboaren lasaiketa" eskatzeko: tenperatura hartzeari uztea; hidrogelaren erabilera hautazkoa izatea; distantzia sozialik ez eragitea; ikastetxeetan txertaketak egiten ez uztea; eta ikasleak "ez beldurtzea eta ez mehatxatzea". Mobilizazioak Hego Euskal Herriko hiriburuetan egingo dira, eta Hezkuntza sailen ordezkaritzetan bukatuko dira.

Txertaketa, argudio gisa

Lehen Hezkuntzako ikasleak –6 eta 12 urte bitartekoak– ez daukate txertatuta; momentuz, behintzat, ez dira txertaketa-kanpainan sartzen. Hori da, besteak beste, Hezkuntza Sailaren argudioetako bat maskararen erabilera ez malgutzeko. "Ez dago arrazoirik 12 urtetik beherako gazteek, oraindik txertoa jaso ez dutenak, maskara alde batera uzteko", esan du Bingen Zupiria Jaurilaritzako bozeramaileak.


Bestetik, Zupiriak adierazi du maskarak erabiltzen jarraitzeko erabakia Hezkuntza Sailaren eta Osasun Publikoko Zuzendaritzaren arteko "hausnarketa-prozesu" baten ondorio izan dela.

Gainerako herritarren txertaketa-datuak ere azaldu ditu, EAE 3.324.400 dosi jarri dira, gutxira. 12 urtetik gorako herritarren %89,3k lortu dute immunitate handiena dagoeneko –1.766.133 herritar–, eta %90,5 dira lehenengo ziztada hartu dutenak –1.790.117 pertsona–.



Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Aramaio	12	2	244	%16,49	945
Arrasate	8	2	3.535	%16,01	45
Oñati	8	1	1.689	%14,73	78
Bergara	5	2	1.849	%12,30	46
Aretxabaleta	1	2	979	%13,83	42
Eskoriatza	1	0	525	%12,80	24
Antzuola	0	0	294	%13,49	0
Elgeta	0	0	84	%7,43	0
Gatzaga	0	0	14	%5,60	0
DEBAGOIENA	35	10	9.213	%14,22	69

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Astea gorabeherekin hasi arren,
apaltzera egin dute positiboek

Hilaren 4tik 10era bitartean, 35 koronabirus kasu baieztatu dira bailaran; horietatik hamabi, Aramaion.

U. Igarza Loiola DEBAGOIENA
Pandemiaren fase berri honetan, Osasun Sailak datuak emateko modua aldatu du. Astelehenetan argitaratzen ditu aurreko aste osoko datuak, eta, horrenbestez, datu berriena domekakoa da.

Astelehenetik egubakoitzera bitartean 30 kasu baieztatu ziren bailaran, baina asteburuan hiru bakarrik atzeman dira: bi zapa-tuan eta bat domekan. Hala, azken egunetan beheranzko joera sumatu da, nahiz eta goi-

ko taulako datu metatuak ez duen hori ikusten uzten.
Bestetik, aste honetan herri bat nabarmendu behar bada, Aramaio da. Hamabi kasu izan ditu zazpi egunetan; eskualdean erregistratutakoen herena.

25 urte
pertsonek arteko
zubiak eraikitzen



BILBO, DONOSTIA, VITORIA-GASTEIZEN ETA TOLOSAN

www.euskadi.eus/familiabitartekaritza



Euskadi, auzolana



Jokin Bereziartua BERGARA

Intsumisio mugimenduaren arrastoa ahanzturan geratu ez dadila. Horixe da Bergarako Objetore Talde Antimilitaristak (BOTA) urrian zehar antolatu dituen ekimenen helburu nagusia. Hori, eta ekimenaren sustatzaile nagusietako bat izan den Jesus Kalboetxeaga intsumisioak azpimarratu duenez, bereziki 1990eko hamarkadan garatu zen borroka hari balioa ematea: "Borrokatu egin ginen, eta, kakotxen artean bada ere, garaipena lortu. Baina derrigorrezko soldaduska bertan behe- ra lagatzea lortu genuenean, diluitzen joan zen dena. Eta bada garaia lortu genuenari balioa emateko".

"Oraindik asko dago egiteko"

Hain zuzen ere, BOTAkoe "hago" joan ez izana "akats" moduan ulertzen dute: "Gure akats kolektiboa han gelditzea izan zen. Izaera militarren ospe-beherakada handia izan zen, eta beste pertsona zein talde batzuek hartu dute oinordetzan gure esperientzia; baina oraindik asko dago egiteko. Gastu militarrek gehiegizkoa izaten jarraitzen du, gure zergekin mantentzen dira kuartelak, arma-fabrikak, tiro-poligonoak, armada profesionala. Oraindik ere badago antimilitarismorako arrazoirik". Gainera, antolatzaileen asmoen artean dago hila- bete honetan Bergaran sortu



Bergarako Objetore Talde Antimilitaristako (BOTA) kide izan ziren bergarar batzuk Aroztegiko erakusketan. IMANOL SORIANO

Intsumisioaren lorpenak gogoratzeko ahalegina, hariari tiraka jarraitzeko

Eguaztenean estreinatu dute 'Intsumisioa Bergaran. Desobedientziarako bide bat' dokumentala Seminarixoan, duela 30 urteko borroka gogora ekartzera datorrena; antimilitarismorako arrazoirik badago oraindik ere, antolatzaileen esanetan

den "olatua" ikasleei ere, "modu batera edo bestera", helaraztea.

Arrakasta Aroztegin

Ez dago zalantzarik gaiak interesa piztu duela, bereziki, Bergaran, urriaren 24ra bitartean

Aroztegi aretoan dagoen erakusketak izan duen harrerak erakusten duenez. Urriaren lehen, 2an eta 3an, erakusketa ireki zen lehen asteburuan, 262 herritar pasatu ziren Aroztegitik; horiek izan ziren egunik jende-

tsuenak, baina, Aroztegiko langilearen arabera, aretoa ireki eta berehala agertu izan da jendea aste barruan zein asteburuan. Eta hori ez da ohikoena Aroztegin. Baina zer topatuko du oraindik Aroztegitik pasatu

ez den herritarrek? Historia liburuetan nekez topatuko diren elementuekin egingo du topo. Sartu eta berehala, ezkerretara, pisua eta altuera neurtzeko bascula eta metroa daude, arropa militarrekin batera, eskuan kartilla militarra duen panpina batekin. Ondoren, 1967tik 2002ra arte kronograma baten bidez mundu zabalean izandako esperientzia antimilitarista esanguratsuenak kontatzen dira; hirugarren gune baten, intsumisioaren alde Bergaran egin ziren ekimenen gaineko hainbat argazki ageri dira. "Bisitari askok geldialdi luzea egiten dute bertan, herriko jende ezaguna agertzen delako duela 30 urte inguru. Norbera edo gertuko bat duela 30 urteko argazkietan ikusteak balio erantsia duela... ", adierazi du Aitor Alberdik. Erakusketaren laugarren gune baten intsumisioaren aldeko hainbat jaialdi eta bestelako ekintzen kartelak ageri dira, Oiartzungo talde antimilitaristak lagatakoak gehienak. Horrez gain, erakusketak badu ikus-entzunezkora gune bat ere, eta bertan, eguaztenean estreinatu zen dokumentaleko trailerraz gain, Aguraingo intsumisio egune-ko irudiak ere ikus daitezke, besteak beste. Eta, azkenik, badago beste eremu bat orduko fanzine, aldizkari, liburu eta bestelako idazkiak erakusten dituen. "Garai hartan idazki hauetaz elikatzen ginen, eta

**JESUS KALBOETXEAGA** DOKUMENTALAREN EGILEETAKO BAT

"Urte mugituak bezain interesgarriak izan ziren. Ekimen honek baditu bi helburu: batetik, orduko borroka ezagutzera eman nahi dugu, gaur egun 18 urte dituztenetako askok ez dakite-eta soldaduska derrigorrezkoa izan zela 2001era arte. Bestetik, lortu genuena aitortu egin behar diegu geure buruari, urteen poderioz diluitu egin da eta. Sekulako ekarpena egin genion gizarteari, behar beste aitortu ez dena".

**IZARRA ARRIARAN** BOTA-KO KIDEA ETA DOKUMENTALEKO PARTAIDEA

"Ondorioak zeintzuk izango ziren jakin gabe, denerako geunden prest; horren adibide da kartilla militarrek erre genituela plazan eta gerora enteratu ginela hori delitua zela. Soldaduska derrigorrezkoa zen, baina praktikan loteria bat ere bazen... Bestalde, gogorra zen norberaren lagun bat kalean ilea moztuta ikustea, petate militarrekin eta berdez jantzita soldaduskara joan behar zuelako".

**MARKOS PEREZ** INTSUMISOA, EPAIKETA GABE ESPETXERATUA

"Alcala de Henaresko kartzela militarrean egon nintzen, 1990eko maiatzetik uztailera. Beste zortzi intsumisorekin egon nintzen, eta erdiak epaile batek espetxeratutakoak izan ginen. Areto futbol partiduetan epailearen arabera egiten genituen taldeak... Iñigo Irasuegi arrasatearra lehen gipuzkoarra izan zen espetxe militar batetik igarotzen, eta gero ni; galeria baten sartu gintuzten, *egokitu gabeak* moduan....".

**JOXE LAZKANO** INTSUMISOA, BERGARAKO LEHEN EPAITUA

"Bergarako lehen epaitua izan nintzen, 1994ko Aratusteen bueltan. Donostiako epaitegia inguratu genuen eta gogoan daukat ertzainek ez zekitela nola erantzun. Jende asko elkartu zen... Epailearen aurrean euskaraz deklaratu nuen, itzultzaile eta guzti; esan nion argi nuela soldaduskarik ez nuela egingo, eta haserretu egin zen... Urtebeteko kartzela zigorra ezarri arren, ez nuen bete; ordurako geldiezina zen mugimendua".

**AITOR ALBERDI** DOKUMENTALAREN EGILEETAKO BAT

"Sekulako gogoz eta denbora zein diru gutxirekin egin genuen dokumentala, elkarriketetan oinarrituta. Garai hartako bizipenen laburpen bat da, eta uste dugu duin geratu dela. Hala ere, intsumisioaren bueltan oraindik badaude gauzak egiteko, eta gonbidapena egiten diogu nahi duen herritar edo eragileari gaian sakondu dezan. Lelo bat ere sortu dugu taldean helburu horri begira: *Tiratu hariari!*".



Hainbat intsumisoren protesta Bergarako epaitegian, 1994an. 'BERRIGARA' ASTEKARIA


aproposa iruditu zaigu horietako batzuk irakurtzeko moduan lagatzea", dio Alberdik. Bestalde, hurrengo zita hilaren 23an izango dute, kartzela zaharrean, "ospakizun txiki" baterako.

Bailarako erradiografia

Bergaran sona handia izan zuen derrigorrezko soldaduska egin beharraren aurkako borrokak, baina Debagoien osoan ere izan zuen oihartzuna. Izan ere, bailaran hainbat talde sortu ziren, eta Kakitzat zen garrantzitsuenetako bat. Baina zer izan zen Kakitzat? Euskal Herriko Koordinakunde Antimilitarista izan zen, 1980ko hamarkadan Gipuzkoan sortu eta Hego Euskal Herriko hainbat herritan aritu zena erakunde antimilitarista gisa. Iñigo Irasuegi, epaiketa barik Alcala Mecoko kartzela militarren espetxeratu zuten

arrasatearra, Kakitzat elkarte-kide izan zen, eta, dioenez, Arrasateko udaletxean bulego txiki bat muntatu zuten, gerrari uko egin nahi ziotenak intsumiso izendatzeko.

Bestalde, Debagoieneko herri nagusietan ere antolatu ziren taldeak: Bergaran, esandako moduan, Bergarako Objeto Talde Antimilitarista (BOTA) zegoen, eta Oñatin, Oñatiko Talde Intsumiso A (OTIA). Azken izendapen berezi horren arrazoia azaldu du Imanol Biain intsumiso oñatiarrak: "Korronte askotatik gentozenek osatzen genuen mugimendua: antimilitaristak, abertzaleak, anarkistak, antikapitalistak... Denak A-rekin hasten zirenez, eta talde bateratu eta indartsua eratu nahi genuenez, A hori jarri genuen izenaren bukaera, denon abizena modukoa zelako".



IÑIGO IRASUEGI ARRASATEKO INTSUMISOA, ESPETXERATUA

"Ulgorren lanean nengoela etorri ziren ni atxilotzera kaleko arropekin jantzitako guardia zibilak, Sineiro epaile frankistaren aginduz. Epaitu ostean, Alcala Mecoko kartzela militarrean sartu ninduten, Madrilgo eta Burgosko beste bi presorekin. Gaizki tratatu gintuzten, eta gose greba hasi nuen; hamar egun egin nituen baraurik; 40 egun egin nituen espetxean, guztira".



IÑAKI GALDOS OÑATIKO INTSUMISOA, 1994AN EPAITUA

"1994ko epaiketa mediatikoa izan zen, kasualitatez Gipuzkoako epaiketa masiboetan lehenengoa izatea tokatu zitzaidalako. Pozez gogoratzen dut, adibidez, euskaraz deklaratzeko lortu nuela. Bestalde, desobedientziaren inguruko pedagogia transmititzea ez da lortu. Gainera, Euskal Herrian bizi zen gatazkak estali egin zuen, neurri batean, borroka hura".

Unibertsitateekin elkarlan "bereizgarria" nahi dute

Arantzazulab laborategiak elkarlanerako hitzarmena sinatuko du gaur MUrekin, EHUrekin eta Deustuko Unibertsitatearekin. Aurreratu dutenez, ikerketa eta berrikuntza izango dira ardatzak; betiere, lankidetzan oinarritutako proiektuei begira

J.B. OÑATI

Mondragon Unibertsitateak, EHUk, Deustuko Unibertsitateak eta Arantzazulabek laborategiko ikerketa-gune berritzailea elkarlanean garatzeko hitzarmena sinatuko dute gaur. Hitzarmen horrekin, Arantzazulabeko zuzendari Naiara Goia-ren arabera, erakundeek elkarren artean izan duten harremana sendotu nahi da, eta datozen urteetarako laborategiak proposatzen duen esparru berritzailean elkarren arteko lankidetzari bide ematen zaio.

Hitzarmenak aurrerantzean elkarrekin egingo dituzten jarduerak ezberdinak zehaztuko ditu, hala nola, ikerketa, berrikuntza, ezagutza sortu eta eraldatu, sareko lana, eta lankidetzazko proiektuen sustapena. "Lankidetzaz hitzarmen honek eta hiru unibertsitateen konpromisoak oinarri sendoa jartzen dute, Arantzazulabek ikerketa elkargunean proposatzen dugun espazio eta antolaera berritzailea abian jartzeko, baita gure esparruan ezagutza-gune erreferente izateko ere", gaineratu du Goiak.

"Balio bereizgarria" dauka

Diote, gainera, "balio bereizgarri" bat ere izango duela hitzarmenak: "Ohikoa ez den elkar-



Hiru unibertsitateetako ordezkariak eta Naiara Goia, artxiboko argazki baten. GOIENA

lana modu berritzailean egitea proposatzen du Arantzazulabek, unibertsitate eta eragile ezberdinen arteko ezagutza eta ikerketa elkargunea sortuz. Antolaketa honek ohikoa ez den elkarlana artikulatzea dakar, ikerketan lehiatu baino gehiago unibertsitate ezberdinen artean indarrak batzea dakarrelako". Gainera, proposatutako gaien inguruan askotariko diziplinak eta belaunaldi ezberdinetako ikertzaileak batuko dira, eta horrek ekarriko du gai jakinen inguruan ezagutza

garatzeko begirada ezberdinak eta askotariko jakintza elkartzea.

Sinadura ekitaldia gaur

EHUko Gipuzkoako Campuseko erretoreorde Agustin Erkiziak, MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekan Nagore Ipiñak, Deustuko Unibertsitateko Donostiako Campuseko errektoreorde Xabier Riezu eta Arantzazulabeko zuzendari nagusi Naiara Goiak hartuko dute parte gaur goizeko hamaiketarako antolatu duten sinadura ekitaldian.

Azken erasoa ere salatu dute

Gasteizen gertatutako azken eraso matxista salatzeke agerraldiak egin dituzte asteen Aretxabaletan —argazkian—, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin. Urriaren 12an gertatu zen erasoa: 37 urteko emakume bat erail zuen bere bikotekideak —ondoren, bere buruaz beste egin zuen—. Polizia etxera sartzean hilda aurkitu zuten emakumea, lepo inguruan hainbat ebaki zituela.



MIRARI ALTUBE



Ekiola kooperatibaren bazkide eta sustatzaileak, atzoko aurkezpenean, Garaian. GOIENA

Herritarrentzako energia berriztagarria Arrasaten

Leintz Bailarako Ekiola kooperatibak eguzki-parke fotovoltaiko bat instalatuko du Arrasaten, Garaia Gunean. Atzo, eguna, aurkeztu zuten proiektua. Hain zuzen ere, 400-450 familiaren energia beharrak asetzeko energia sortuko dute

Goiatz Arana Begiristain ARRASATE Energiaren Euskal Erakundeak eta Ekiola kooperatibak Leintz bailarako Ekiola aurkeztu zuten atzo Arrasaten. Zero kilometroko energia berriztagarria sortzea izango da proiektuaren helburua eta Garaia Guneako lurretan, LKSren egoitzaren parean, kokatuko da eguzki-parkea. Ekitaldian parte hartu zuten Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako alkateak, ekimenarekiko euren konpromisoa adierazteko. Izan ere, Leintz bailara osatzen duten udalek bazkide kolaboratzaile gisa jardungo dute kooperatiba horretan, irabazi-asmorik gabeko kontsumo kooperatiba bihurtzen dela bermatzeko.

Hektarea bateko lurzorua hartuko du eguzki-parkeak, bertan egongo dira argindarra sortzeko plaka fotovoltaikoak eta 400-450 familiaren energia beharrak asetzeko energia sortuko dute. Aurreikuspenen arabera, bederatzita bat hilabete beharko di-

tuzte tramitazioak egin eta baimenak lortzeko eta beste hiru instalazioa bera eraikitzeke; LKS Krean arduratuko da egiteko horietaz, Energiaren Euskal Erakundearekin batera. Azpiegitura erabilgarri egongo da urtebeteko epean eta orduantxe izango da gizarteratzeko unea ere: herritarrei proiektua bera eta funtzionamendua azaltzeko momentua.

"Kooperatiben sehaskan kooperatiba berri bat sortzen" ari direla adierazi zuen Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusi Iñigo Ansolak, eta, Ekiolak berak bakarrik energia alorreko arazoak konponduko ez baditu ere, bere aletxoak jarriko duela. "Energia berriztagarri

LEINTZ BAILARAN KONTSUMITUKO DEN ENERGIA BERTAN SORTUKO DA, MODU BERRIZTAGARRIAN

gehiago izanda, erregai fosilekiko mendekotasuna murriztu egingo da, eta energia kostuak merkatu", esan zuen.

%95 baino gehiago kanpotik Leintz bailaran kontsumitzen den energiaren %95 baino gehiago kanpotik datorrela eta zati handi baten jatorria, gainera, fosilak direla kontuan izanik, trantsizio energetikoa lehentasunezko erronka dela azaldu zuen Debagoiena 2030 sareko koordinatzaile Elena Herrartek eta nabarmendu zuen Ekiolak lagunduko duela horretan. "Bertan kontsumituko den energia bertan sortuko da, modu berriztagarrian, eta kudeatu ere bertatik kudeatuko da", adierazi zuen.

Arrasateko alkate Maria Ubarrerenak, bestalde, balioa eman zion bailarako agenteak ados jarri izanari. "Lursaila mugatua da eta ezin izan da eskualde osora zabaltzea, baina Leintz bailarara bai zabaltzeko da".

Beasain-Durango ordainpekoa izango da urtariletik aurrera

Erabiltzaileek Abiatu gailua izan beharko dute edo ibilgailuaren matrikula banku-txartel bati lotu

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA

Urtariletik aurrera, Beasain eta Bergara artean A-636 autobidea erabiltzeagatik ordaindu egin beharko da. Bergaratik Beasainerainoko 15,5 kilometroko zatia, esaterako, 2,53 euro ordaindu beharko dute ibilgailu arinek; 4,11 euro kamioi arruntek; eta 5,15 euro trailerrek. Motorrean doazenek ez dute ordaindu beharrik izango. Erabiltzaileek ibilgailuaren matrikula banku-txartel bati lotu beharko dute edo Abiatu gailua eduki beharko dute.

Deskontuak ezarriko dira hilean egiten diren bidaien arabera, baina horretarako Abiatu edukitzea ezinbestekoa izango da. 0 eta 8 artean eginez gero, %25ekoa izango da deskontua; 9 eta 20 artean, %55ekoa; eta 21 bidai bakoiti gehiago eginez gero, %75ekoa. Abiatu gailua duten ibilgailu arinek, gehienez ere, hilean %33,37 euro ordaindu beharko dute, AP-1 eta AP-8ko Gipuzkoako zatietan bezala.

Autobidearen erabilera kobratzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak arkupe bidezko sistema adimenduna erabiliko du. Ez da ordainlekurik izango.

Beasainen, Ezkion eta Deskaragan daude jarrita arkupeak. Horietan, kanona detektatu, sailkatu eta kobratuko diete arkupeak gurutzatzen dituzten ibilgailuei.

Informazio kanpaina

Foru Aldundiak informazio kanpaina abiaraziko du. Helburua da Abiatu gailua ez dutenek aurrez aurre eskatu ahal izatea autobidea erabiltzeagatik kanona indarrean sartu aurretik. Triptiko bat banatuko dute etxerik etxe. Horretaz gain, urriaren 25etik abenduaren 15era bitartean, Bidegiko bezeroen arretarako zerbitzuko langileak Antzuola eta Bergarara joango dira informatzen. Antzuolan, udaletxean, azaroaren 4an eta 22an eta abenduaren 13an. Bergaran, goizez Ondartzako AP-1eko kontrol-zentroan eta arratsaldean udaletxean. Egun hauetan, hain zuzen ere: azaroaren 5ean eta 8an, azaroaren 23an eta 24an eta abenduaren 14an eta 15ean. Jendaurreko ordutegia 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara izango da. Deskontuei eta eskaera-inprimakiei buruzko informazioa emango dute.

Beste bi greba eta mobilizazio egun Aita Menniko langileek

ELA sindikatuak deituta, Aita Menniko langileek greba egin dute eguaztenean eta eguenean, "lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmenaren alde". Eguaztenean, hiru kilometroko ibilbidea egin zuten, musika eta oihuekin. Ostean, elkarretaratzea Aita Menniko ospitalearen aurrean. Eguenean, kanpaldia. "Enpresaren jarrera pasiboak langileak haserrarazi besterik ez du egin. Aita Menniko profesionalek ez dute amore emango euren lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmena lortu arte", adierazi dute ELAtik. Azaroaren 2, 3 eta 4rako ere deitu dituzte greba egunak. Hiru urte daroztate Aita Mennin lan gatazkarekin.

Hispanitatearen Egunaren aurkako elkarretaratzea

Urriaren 12a, Hispanitatearen Eguna, "ukazioa, inposizioa eta kolonialismoaren gorazarre egun" bezala definitu du Ernaik, ezker abertzalearen gazte antolakundeak. Eskualdeetako deialdiak egin zituen martitzenean, eta Debagoienean Oñatin batu ziren bailarako Ernaiko militanteak. Ez dagoela ezer ospatzeko aldarrikatu zuten Ernaiko kideek eta Oñatin egindako elkarretaratzean batutakoek.

Goizean, Antixena gaztetxean batu ziren Ernaiko hainbat kide, gosaria, tailerra, *Lasa eta Zabala* filmaren proiektzioa eta bazkaria egiteko. Arratsaldean, Oñatiko Foruen plazan egin zuten elkarretaratzea.

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Idurre Albizu da Garaia Parke Teknologikoko negozio garapenerako arduraduna. Garaia eta D2030en arteko loturaz dihardugu lerro hauetan, bai eta bi erakundeek partekatzen dituzten lankidetzaren, berrikuntza eta gizarte garapenaz.

Eskualde ekintzailea da Debagoiena, eta Garaia Parke Teknologikoa horren erakusgarrietako bat. Nola definituko zenuke gure ekosistema ekintzailea?

PTGaraia bera ekintzailatza horren ondorio bat da, 1999 urteko MUREn hausnarketa estrategikoan sorturiko barne ekintzailatzako proiektu bat delako. Baina hau ez da azken 20 urteko zerbitzu, belaunaldiz belaunaldi jaso dugun izan eta bizitzeko era bat baita. Agian, gurean izan ditugun baldintzek eraginda, betidanik bizitza aurrera ateratzeko era desberdinetan ekin behar izan diogulako. Dena den, garai bakoitzean une horretako erronken arabera joan da ekintzailatza egokitzen. Ekintzailatza industrial astun eta intentsibo batetik hasita, orain dugun ekintzailatza teknologikora eta etorkizunerako eraikitzen ari garen iraunkorrerago batera. Guztietan komunean izan dira berrikuntza eta begirada humanistikoa eta ekintzailatza desberdinak bizikide orekatuak dira.

Zer da une honetan Garaia Parke Teknologikoa?

Garaia Parke Teknologikoa, teknologia eta berrikuntza oinarritzat dituela, balio erantsizko ekintzailatza sustatzeko espazioa da. Gure helburua Debagoieneko gizarte garapena eta garapen ekonomikoak dira. Horretarako, agente dinamizatzaile, laguntzaile eta bitartekari gara, ekintzailatza, berrikuntza eta teknologiarekin zerikusia duten ekimen desberdinekin.

Zergatik Garaia D2030en sareko kide?
Ezinbestekoa da PTGaraia rentzat ekintzailatza, berrikuntza eta

"Parte hartzeko eta lan egiteko ardura dira edozein eraldaketa egia bihurtzeko tresna"

IDURRE ALBIZU GARAIAKO NEGOZIO GARAPENERAKO ARDURADUNA

Garaia Parke Teknologikoa negozio ideia berriak eta ekintzaileak bultzatzen ditu, eta Debagoieneko azken 20 urteotako gizarte garapenean eragile garrantzitsu da



Idurre Albizu, Garaia Parke Teknologikoa. GOIENA

Debagoieneko garapenarekin zerikusia duen proiektu batean parte hartzea. Bertan enpresengandik eta hainbat ekintzailerengandik jasotzen ditugun kezka, behar eta ametsen testigu gara eta, aldi

berean, D2030 bezalako foro batean lantzen diren gai eta hausnarketak input bezala erabiltzen ditugu, gurean ditugun enpresa eta ekintzaileei, balio erantsi gisa, gerturatu ahal izateko.

Nola elkar elikatu daitezke bi erakundeak?

D2030 Debagoienean dauden erakunde, enpresa eta talde desberdinen batura izanda, tokiko ezagutza, beharrak eta proiektuan lantzen dituen foroa da. Horrek ezagutza eta elkarlanerako espazio aproposa eskaintzen dio Debagoienean dagoen guztiari, PTGaraia barne. Garaia Parke Teknologikoa bertan kokatzen diren 62 enpresengandik jasotako ikuspuntua eskain dezake. Ahaztu gabe APTEren (Parke Teknologikoen Espainiako Elkarte) eta IASPre (Zientzia Parkeen Nazioarteko Elkarte) bitartez nazioarteko 115.000 enpresaz osatutako sarearen parte izanik, berrikuntza eta ekintzailatza espazio garrantzitsua eskaintzen dugula.

D2030ek helburu bezala du erronka globalei aurre egitea eta eraldaketarako baldintza egokiak sortzea. Gure eskualdeari zein indargune ikusten dizkiozu arlo horretan?

Debagoienak elkarlanerako ohitura, kultura eta sakon errotutako gizarte sare bat ditu. Gizarteak beregan du parte hartzeko eta lan egiteko banakako eta taldekako ardura. Horiek dira edozein eraldaketa errealitate bihurtzeko behar diren osagarri garrantzitsuenetakoak, eta bertan ondo oinarrituta daude aspalditik.

Lankidetzaren da D2030ek bultzatu gura duen arlo bat, eta Garaia lankidetzaren publiko-privatuaren emaitza da. Zein ikasketa azpimarratuko zenituzke kolaborazio lanketa horietatik?
PTGaraia lankidetzaren publiko-privatu baten emaitza da eta, aldi berean, pertsonen, enpresen eta erakundearen arteko lankidetzaren bultzatzea da gure helburuetara heltzen lagunduko gaituen oinarritzko tresna bat. Lankidetzaren, alde desberdinen arteko entzutean, elkar ulertzean eta komunikazioan, oro har, lortu daitekeen aberastasuna azpimarratuko nuke. Lidergo partekatuaren balioa. Adostasunezko helburu eta erronkak aurrera ateratzeko duen erlazioak eraikitzeko eta gizarte eraldatzeko potentziala.

Zein da Garaia Parke Teknologikoa osasuna une honetan? Oinatzik utzi al du pandemiak? Zein?

Gure eguneroko lana pertsonen arteko harremanetan oinarritzen da, eta harremanak guztiz eraldatu dira denbora honetan. Beste guztiok bezala, denbora honetan, harreman horiek mantentzen jarraitu ahal izateko era berriak ikasi ditugu. Era berri horietako batzuk betirako geldituko dira, beste batzuk denbora baterako eta beste asko, berriz, pandemia aurretik ezagutzen genituen era antzeko batera bueltatu dira dagoeneko. Bitartean, ikasketa teknologikoa izan ditugu eta, batez ere, aurrez aurreko erlazio pertsonalen balioa azaleratu egin da.

"PTGARAIA BELAUNALDIZ BELAUNALDI JASO DUGUN BIZITZEKO MODU BAT DA"

"AZPIMARRATZEKO DA LIDERGO PARTEKATUAK EMATEN DUEN ABERASTASUNA"



ZABALIK

IKER AGIRRE

Maskulinitatea (II)

Iritzi artikulu honen gaia harilkatzen nenbilela, asko izan dira burura etorri zaizkidanak; esaterako, egun, oso modan dauden gaiak. Pandemian sartu gintuztenetik COVID-19ari loturikoak edota nerabeen zein gazteen inguruan marmarrean dabilzan iritzi emaleek plazaratutakoak. Fokua testuinguru kutsakor horretatik aterata, pandemia aurretik zein gaur egun errealtatearen parte den gai bati buruz idatzi nahi nuen. Idoia Asurmendiren kontzertuaz gozatzen ari nintzela, Xabi Igoaren "negarrari beldurrik ez dioten gizonetan" hitzek, beste behin, nire baitan arrakala bat zabaldu zuten, Maritxutako bazkari instituzionala -kuadrilla bazkaria- gogora ekarri.

Kuadrilla espazio *seguru* gisa kontsideratua izan da. Agian, kasu batzuetan, espazio segurua izan daiteke edota lagun taldearen baitan sortutako harreman batzuk seguruak izan daitezke. Baina zer gertatzen da harreman intimoetatik harreman publikoetara pasatzen

ZER GERTATZEN DA HARREMAN INTIMOETATIK PUBLIKOETARA PASATZERA KOAN?

garenean? Non gelditzen dira tristura, zaurgarritasuna eta beldurak erakusten dituzten jarrerak? Zoritzarrez, honelako espazioek horretarako beharko lukete, eta, maskulinitate

hegemonikoarekin bat datozen jarrerak erreproduzitu beharrean, konfiantzaz, gizon guztiok ditugun une goxo eta zaurgarriak partekatze baliatu beharko lirateke. Tamalez, maskulinitate hegemonikoa erreproduzitzeko gune ugari ditugu eta maskulinitate berriak eraikitze oso gutxi.

Honekin ez diot perfektua naizenik, gizon gisa gaizki eginak asko ditut, aurrerantzean ere izango dira hanka-sartzeak eta ondo egindakoak. Baina arduraz bizi dut egungo egoera, eta horretarako zer hobeto, barrura begiratu eta behatzeaz gain, partekatze gune seguruak kolektiboki sortzea baino. Feminismoaren baitan emakumeek* ibilbide bat egina dute jada eta gizonok ere norabide berean geurea egin beharrean gaudelakoan nago, txikitik hasita bada ere, gune hegemonikoetan ahalduzko.

Eta zuk nola bizi duzu zure lagun taldea?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Bizitza erabili

IZARO ANDRES
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Azken urteetan bizitzaren abiadura frenesi bezalako batean sartuta egon da niretzat. Frenesiaren gorena jo du uda honetan, pandemiak kendutakoari buelta eman ahal izateko nahi izan ez denari ere baietza esan behar hori.

Eta zurrumbilo horren erdian irakurri nuen Camila Cabelloren post bat Instagramen, bere aldarrian egin nuen klik Explorako argazki horien guztien artean.

Zioen konturatu zela bere proiektua handitzen joan zen

heinean *workaholic*-atuta guztiz bizitzea ahaztu zitzaioela, eta geldialdiak begiak ireki dizkiola.

Eta konturatu dela zeinen baliozkoa den bizitza erabiltzea, aisia izan eta erabiltzea, nahi duzun konpainiaz gozatzea, alferrarena egitea gaizki sentitu gabe, eta gozamenari jaramon egitea.

Eta hasi dela lana eta aisia benetan kontziliatzen.

Ezin konpara dezaket bere bidea eta nirea, baina bai sentimen hori.

Eta nire ikasturte honetako helburua hori da: bizitza erabiltzea, arratsaldeak libre izatea, telefonoa itzaltzea, eta denbora gozatzea.

Azken finean, bizitzak ez du zentzurik, baina opari bat da bizitza bat tokatu izana.

Ahalik eta ondoen bizi, eta ondokoak ahalik eta ondoen bizitzen utzi, ezer gutxi gehiago egin dezakegu hemen.

Beraz, lana bai, baina bereziki bizitzari bai.

Ez da erraza asmatzea autoproduktibitate amaigabea nola deskodifikatu gure sistematik.

Lanaz ere gozatzen duenarentzat ez omen da erraza muga horiek jartzea, baina Camila Cabello, ez dago besterik, nik ere martxan jarri dut nire misioa, ze arrazoi duzu, señorita.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Ikus-entzunezkoen lege propioa behar dugu"

RAMON ZALLO EHU-KO EKONOMIA ETA KOMUNIKAZIO IRAKASLE EMERITUA

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE
Goienagusik gonbidatuta izan da Ramon Zallo Elgezabal (Gernika, 1948) Arrasaten.

Gabestia handiak ikusten dizkio gaur egun nagusi den sistema mediatikoari. **Zeintzuk dira sintomarik larrienak, zure ustez?**

Egoitza Madrilen duten kateen programazioak eta eskaintzak dira nagusi, eta mediatikoki gutxiagotuak dira gaztelania ez diren beste hizkuntza guztiak. Lege aldetik ere mendea gaude, eta arazoa handitu egiten da ikus-entzunezko plataformen –Movistar..., bideo-trukeen – Youtube– eta *streaming* emisioen –Netflix– hedapenarekin.

Zeintzuk dira egoera horren ondorio kezagarrienak?

Estatu espainiarreko hedabideen sistemak mendeko bihurtzen ditu sistema autonomikoak zein tokikoak. Sistema mediatiko espainiarra egituratzeko modua zentralizatutako irrati-



Ramon Zallo, eguztenez, Arrasaten. L.Z.L.

telebista sistema baten eta 90eko hamarkadan sortutako Estatu mailako hedadura duten kate pribatuen inguruan egin da. Hala, 80ko hamarkadan irrati-telebista autonomikoek lortutako

espazioa txikituz joan da pixkanaka. Horiek dagoeneko ez dira heltzen autonomia erkidegoetako audientzien %10era, eta tokiko telebistak, salbuespenak salbuespen, zifra marjinaletan daude.

Jarduera legez arautzea eta Ikus-Entzunezkoaren Kontseilu baten beharra aldarrikatzen dituzu.

Ikus-entzunezkoen lege propioa behar dugu; izan ere, horren faltan, beste parametro batzuetarako pentsatuta dagoen lege espainiarra aplikatzen zaigu, eta horrek gure mendekotasuna indartzen du. Era berean, Ikus-Entzunezkoaren Kontseilua behar dugu, erakunde independente gisa sistema mediatikoa zaindu eta babestuko dituen aniztasuna, ekoizpen propioa, hizkuntza-kuotak, adingabeen babesa, albistegi neutralak, genero-berdintasuna, errespetuzko publizitatea eta abar.

Nola ikusten duzu Goiena Komunikazio Taldea?

Tokiko prentsak zein irrati-telebista egitasmoek badute berezitasun bat: bizikidetzatik, eguneroko bizitzatik eta herritarren kezka hurbilenetatik gertuen daudenak dira. Maila horretan kokatzen dira eta betetzen dute autonomia erkidegoetako zein Estatu mailako komunikabideek alde batera uzten duten informazioa, ezagutza eta eztabaida-eremua. Bide nagusia dira euskalduntzeko eta, batez ere, bizitza

kolektiboaren maila guztietan euskararen bizi-unibertsoa indartzeko. Horretan Goiena da Euskal Herriko adibiderik arrakastatsua. Euskarazko tokiko hedabideen sarea den Tokikom-en ahaleginari eta tokiko boluntarismoari esker hobetu egin dira hedabide horiei ematen zaizkien dirulaguntzak. Harago ere joan daiteke EITBrekiko interes sinergia handiagoekin zein tokiko hedabideen arteko proiektu kolektiboak eta kooperatiboak bultzatuz. **Zer igartzen duzu faltan egoerak hobera egiteko?**

Gizarte gisa behar eta nahi dugun sistema mediatikoari buruzko eztabaida publikoa, esaterako. Gero, lehen aipatutako legeekin batera beharrezkoak dira, besteak beste, EITBren lege zaharraren erreforma, Nafarroarekiko eta Iparraldearekiko akordioak zabaltzea, dekretuen garapena –finantzaketa, eginkizunak... –, Nafarroako eremu mediatikoa birpentsatzea EITBren presentzia handitzeko, sektore publikoko sistema mediatikoaren garapena... Baina borondate politikoa falta da, eta soberan daude kontserbadorismoa eta egiten uzteko ikuspegi liberala.

ITURRI ONETIK

Goienakideak sustatzeko ekitaldiak

Goienakideak –Goiena Komunikazio Taldearen bazkideak– sustatzeko kanpaina aurkeztuko dute datorren eguztenezan Arrasaten. Aldizkari honetan aurreratzen den kanpaina bereziak ikasturte osoa iraungo du eta hilero-hilero ekimen bat antolatuko da eskualdeko herrietan. Eguztenezkoaz gain, hil amaieran Oñatiko Goiko Bentan izango da beste bat, Iker Martinezen musika emanaldi eksklusiboa; bertso saioa Antzuolan; musika talentu gazteekin Bergaran...

ALBISTE IZAN ZEN

2008-10-11

Rigoberta Menchu Nobel sariduna, Arantzazun

Rigoberta Menchu Bakearen Nobel sariduna eta Elio Tamburi Nazio Batuen Giza Eskubideetarako goi-mandataria Arantzazun izan ziren, Baketik Zentroan. Izan ere, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik jaso zuten Euskal Konpromisora Giza Eskubideen Alde izeneko agiria; 60 urte ziren Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala egin zela. Joseba Azkarraga Justizia sailburua ere ekitaldian izan zen, hainbat gonbidaturekin.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

EHUko tiroketa 'trending topic' izan da

Gazte batek tiro egin zuen eguztenezan Leioako campusean, eta mundu mailako gai jorratuenen artean egon da Twitterren:

@julenor: "Eta bapatean, EHU bihurtu da komunikabideen foku nagusi... Ikasleok, etorri prest bihar klasera, honek zer aztertu emango digu eta!".

@danelu9: "Gaur goizian Antena 3, Tele 5... EHU Leioa destiro turistiko berria".

@EnekoGG: "AEBetan soilik gertatzen ziren gauzak... Tiroketa Leioako EHU...".

@lauralr: "EHUkoaren harira, zenbat meme hain denbora gutxian".



Elkarte sortu berriko kideak, irribarretsu, jatorri amerikarra duen likidanbar zuhaitzaren azpian, Kulturete kanpoaldean. H.L.

Antolakuntza, hobeto bizi eta lan egiteko

Amerika izeneko elkartearen aurkezpena egingo dute gaur Kultureteko areto nagusian, 18:00etan, asteon 1492ko konkistaren urteurrena bete dela aprobetxatuta. Kalitatezko lanak sortzea eta etorkinak euskaldunen artean integratzea dira erronkak

Hasier Larrea ARRASATE

Lan eginez bizi izateko etorri dira, baina oztopo ugariarekin egiten dute topo, sarri. Emakumeak dira gehienak, familia-buruak, alokairuan bizi dira beste familia batzuekin batera, eta zaintzaren sektorea da askoren ogibidea. Ohartu dira inork ez diela ezer oparituko: "Gure kolektiboak behar ugari ditu; ga-

rrantziatsuen, egoera erregularran lan egitea", diote oraingoz Amerika elkarte osatzen duten 22 kideek, aho batez. Hala, enpresa kooperatiboak sortu nahi dituzte, "kalitatezko lanak sustatu eta, bide batez, ezkutuko ekonomia atzean uzteko".

Jadanik hasiak dira horretan, bai baitakite ze arlo jorratuko dituzten: menpekotasuna duten

pertsonen zaintza, etxebizitza, jostuntza, aholkularitza juridikoa, migratzaileen errolda, osasun mentala eta aisialdia, besteak beste. "Duintasunez" bizi izateko, hau da, "norberak etxera gutxienezko soldata bat eramateko, baina inongo limosnarik jaso gabe". Hori lortzeko, kide bakoitzaren profila eta esperientzia baliatuko dituzte, eta ilusio

handia egiten die, esaterako, arropa-marka propioa sortzeak.

Kulturak ere jomugan

Baina Amerika elkartearen diskurtsoa ez da maila sozioekonomikora bakarrik mugatzen. Euskaldunen eta amerikar indigenen artean antzekotasunak ikusten dituzte: "Hemen asko landu duzue identitatea, eta guk begirunea diogu horri; gainera, zuek ere jasan duzue kolonizazio inperialista".

Beraz, kulturari dagokionez, bi lerrotan banatu dute misioa: "Batetik, gure seme-alabei irakatsi nahi diegu zeintzuk diren euren sustraiak, eta, bestetik, euskal kultura eta euskara sakonago ezagutu nahi ditugu".

Ildo horretatik, Kultureteko aurkezpen ekitaldian solasaldi bat gidatuko du Rene Behoteguy

ekonomialariak; indigenek Amerika izendatzeko erabiltzen zuten *abya yala* kontzeptua erdigeruarek hartzea izango da asmoa. Horretaz gain, herriko alderdi politiko guztietako ordezkariak ere gonbidatu dituzte euren ikuspuntua partekatu dezaten, eta musika emanaldi batekin amaituko dute ekitaldia.

Topagune bila

Kulturetekoa elkartera jende gehiago batzeko asmoz egin dute, "jatorriari begiratu gabe, proiektuari bere ekarpena egiteko gogoz dagoen edonori" begira. Indarrak pilatuz joan ahala, ziur daude "atzerrian euskal etxeek betetzen duten funtzioaren antzeko espazio bat" aurkituko dutela egunerokotasunean elkartzeko. Eraikinaren lehen harria jarri dute, gutxienez.

Kooperatibismoaren ideia eredu

60ko hamarkadan herritarrek bizi zuten egoerarekin alderatzen dute gaur egun hemen bizi diren etorkinen egoera Daniela Castro elkarteko presidentea eta Hermann Vazquez lege-aholkulariak. Josemari Arizmendiarietaren pentsamendua egokia iruditzen zaie buruan dauzkaten helburuak gauzatzeko: "Uste dugu ideia horiek indarra galtzen dabilazala gizartean, baina guk berreskuratu egin nahi ditugu. Azkenean, kalitatezko lanak sortzeak on egiten digu, ez guri bakarrik, gure inguruari ere bai".

Oraindik zenbaitek etorkinak arazotzat jotzen dituztela diote, baina gizartea konpontzen laguntzen dutela argi daukate euren: "Beharrezkoak gara hemen, populazioaren zahartzea den moduko gatazka bati erantzuten diogu, adibide bat jartzearen".



Castro eta Vazquez. H.L.



AMAGARA

Estetika Zentroa

Argitu aurpegiko azala

3 laser saio +

aurpegi-hidratazio 1 OPARI



Anima

zaitez

eta etorri

konpromiso

barik

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

20 langabe kontratatuko ditu Arrasateko Udalak

2021eko enplegu planaren baitan egingo ditu kontratazioak eta urriaren 21era arte egongo da izena emateko aukera; enplegu planak 753.688,13 euroko aurrekontua du eta Udal Gobernuak 394.188,13 bideratuko ditu lerro horretara: %52, hain zuzen

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bi programatan banatzen dira hogeitaz kontratazioak: batetik, Enplegua Sustatzeko Toki Ekin-tzak 2021 programaren baitan, hamazazpi kontratazio egingo dituzte, 30 urtetik gorakoei zuzenduta: lau langile, erreka eta natura guneen mantentzerako; sei herritarren laguntzaile, ka-lean informazioa emateko eta elkarbizitza gaiekin laguntzeko; hiru lorezain, lorategi publikoe-tan hobekuntzak egiteko eta ohiko mantentze-lanak errazte-ko; hiru garbitzaile, udal erai-kinen garbiketa bereziak egite-ko, COVID-19ren ondorioz sor-turiko garbiketa beharrei eran-



Herritarren laguntzaileak, urtarrilean, Herriko Plazan. E.A.

tzuteko. Bost hilabeteko kontra-tuak eskainiko zaizkie. Lanbidek hala ezarrita, hautatutakoan artean, gutxienez, ondoko mul-tzo berezietako kupoak bete beharko dira: 55 urtetik gorako bi pertsona, sei emakume, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Erren-taren (DSBE) titular edo onura-dun diren bost pertsona.

Bestetik, gazteak kontratatze-ko laguntza programaren baitan, hamabi hilabeteko hiru kontra-tazio egingo dituzte, 30 urtetik beherako langabeei zuzenduta: Arrasateko turismo planaren lan-ildoak garatzea eta Lezetxi-kiko erakusketaren aurkezpena egiteko teknikaria, Arrasateko Udaltzaingoaren Gestiti progra-maren doikuntza egiteko tekni-karia eta Euskaltegi Moodler plataformako kudeatzailea.

Izen-ematea, zabalik

Lehenengoek urriaren 21era arte dute izena emateko, *Lan-bide.euskadi.eus*-en, eta aben-duaren 31 baino lehen kontra-tatuko ditu Udalak. Gazteen programako izen-ematea "laster" argitaratuko dute, azaroaren 30a baino lehen kontratatzeko.

3.000 bonu gehiago Euskadi Bono Denda kanpainaren baitan

Kanpaina 30.000 euroekin la-gunduko du Arrasateko Udalak, herrian 3.000 bonu gehiago mer-katuratuz, "Eusko Jaurlaritzaren eskutik udalerriari dagokion bonu kopuruaren osagarri". Orain, establezimenduak kan-painara atxikitze prozesua dago zabalik eta *www.euskadi-bonodenda.eus* webgunearen bidez eman behar da izena, bai-ta bonuen trukaketa ere, urria-ren 17a baino lehen.

Parte hartuko duten estable-zimenduen behin betiko zerren-darekin, deskontu-bonuak tru-katzeko bi aldi irekiko dituzte: lehenengoa programa indarrean sartzen den egunean hasiko da, eta abenduaren 5ean amaitu; bigarrena, berriz, 2022ko urta-rrilaren 10ean hasiko da, eta martxoaren 31n amaitu.

Bonuak 30 eurotik gorako erosketetarako hamar euroko deskontuetan oinarritzen dira. EAEn bizi diren 16 urtetik go-rakoei eskuratu ahal izango dituzte deskontuak.

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA ARRASATEN!

ALEMANA A 1 MAILA



ASTEARTEETAN ETA OSTEGUNETAN
15:30-17:45

NON: Debagoieneko Mankomunitatea,
Nafarroa etorbidea 17

Matrikula: 72,36 € urte osoa

Informazio gehiago:

Deitu **943 89 92 75** telefono zenbakira urriaren **13tik 21era** bitartean
www.eoieibarheo.hezkuntza.eus

GUTXIENEZ, HAMAR IKASLE BEHAR DIRA TALDEA SORTZEKO!



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

*Aukera zabalak Alemani, euskarari,
frentziera eta ingeles ikasketarako
Eibarro Hizkuntza Eskola Ofizialean!*



Sagarra izango da protagonista Seber Altuben eta Elorregin

Bihar, zapatua, Bertako Produktuen Azoka egingo dute
eta domekan, berriz, Elorregiko Sagardoaren Eguna

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bertako Produktuen Azoka egingo dute bihar Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Ohiko ekoizleez gain, bertako sagar bariatateak dituzten beste bi ere egongo dira: Aramaioko Likinia

baserriko Angel Mari Padilla eta Ezkio Itsasoko Ariztizabal baserriko Eneko Solana. Azokako ekoizleek ere edukiko dituzte salgai sagarrak eta sagarrarekin egindako produktuak. Gainera, sagar produktuekin

osatutako hamar saski zozketa-
tuko dituzte 13:30ean.

Txokolate dastatzea ere egingo dute azokan, Harremanek antolatuta, eta talde argazkia aterako dute 13:00etan, boluntarioekin lanean hasi zirenetik hamar urte direlako aurretik.

Bestalde, Elorregiko Sagardoaren Eguna egingo dute etzi *Sanprubus*-ean. 11:00etan, sagra birrintzen hasiko dira, dolarean. Sagar-zukua eta sagardoa dastatzeko eta saiheskia parrillan erreta jateko aukera egongo da.



2019an sagarraren bueltan Seber Altuben egin zuten azoka. GOIENA

ARTren kamisetak eta garagardoak, Ibai-arteren eskutik

Azaroaren 5era arte, Arrasateko Rugby Taldeko 140 sari zozkatuko ditu elkarteak, haur edo nagusien 80 kamiseta eta 60 garagardo pakete misto. "Parte hartzeko, Arrasateko saltokietan erosi behar duzu, erosketa-txartel baten argazkia bidali 688 73 41 49 Whatsapp zenbakira edo gure sare sozialetan partekatu kanpaina honen argitalpena".

Sarek autobusa jarriko du Donostiako manifestaziorako

Sarek deituta, urriaren 23an manifestazioa egingo dute Donostian, *Ibilian ibilian, etxerako bidean* lelopean, 17:00etan Antiguako tuneletik abiatuta, eta Arrasatetik autobusa joango da, 15:00etan Okoretegiko geltokitik irtengo dena. Txartelak Irati eta Taupa tabernetan daude salgai, 10 eurotan –ikasleek eta langabeek, 5 euro–.

Ipuin kontaketa musikatua egunean, Kulturaten, 18:00etan

Bibliotekaren Egunaren harira eta Arrasateko Udal Bibliotekak antolatuta, *Ameli eta Xirrikitu*en *jostunek* ipuin kontaketa musikatu egingo dute Amaia Elizagoienek eta Irati Celestinok urriaren 21ean Kulturaten. 5 urtetik gorakoei zuzendutako saioa izango da eta aurrez eman beharko da izena, bibliotekan edo telefonoz (943 25 20 25).

Sonic Trash taldea igoko da gaztetxeko oholtzara equenean

Talde bilbotarra izango da Kooltur Ostegunak ekimenaren baitako hirugarren gonbidatua. Urriaren 21ean, eguena, 22:00etan izango da emanaldia eta sarrerak, ohi moduan, momentuan bertan eskuratu beharko dira, zazpi eurotan. *King Kong Party* azken lana taularatuko du boskoteak, rock doinu moderno eta elektrikoak nabarmenduz.

OHARRAK

Bookface lehiaketa martxan da

Parte-hartzaileek azaroaren 30era arte izango dute lanak aurkezteko bibliotekak antolatzen duen lehiaketan. 12 eta 16 urte artekoentzat izango da. Informazio gehiago, Goiena.eus-en.

Biodantza saio irekia, La Merced eraikinean

Gaur, egubakoitza, 18:00etan hasiko dute saioa, *Musika, mugimendua, bizipena* lelopean. Informazio gehiagorako, 696 44 43 99 zenbakira deitu (Leire).

Dani Fontecha eta Suko, Amaia antzokian

Urriaren 30ean 19:30ean egingo duten bakarrizketa saiorako sarrerak udal webgunean lor daitezke.

Urriak 16 larunbata

EROSKI clubekoa bazara

50€ -raino

opari deskontu-txarteletan*

Aurrezki	Aurrezki	Aurrezki	Aurrezki
5€	10€	20€	50€
5 €-ko txartel bat 40 €-tik gorako erosketetan	10 €-ko txartel bat 75 €-tik gorako erosketetan	10 €-ko bi txartel 150 €-tik gorako erosketetan	10 €-ko bost txartel 250 €-tik gorako erosketetan

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

- Bile trilogariak 2021eko urtaroen 18tik azararen 20ra.
- Bile bakoiak 5€ eta 10€ baino dituz EROSKI Hipermerkatuetan, eta trilogia bati zango dira, hurrenez hurren, 1 5€ eta 2 5€ baino gehiagoko erosketetan.
- Bileak edin dira trilogia EROSKI Bidaietan eta Gasolindegietan.

*Promozioa Euskadiko, Nafarroako, Kantabriako, Erikoako eta Aragoiko EROSKI Hipermerkatu eta Supermerkatuetan izango da baldintzok. Erabakitikoa izango du EROSKI club txartela aurkezteaz hasieratik jasotzen diren erabilgarritasunak. Dendako produktu guztizko sarten dira promozioan hauek barne hartzen diren: bestelakoak, espezialitateak, telefonoen kargak, Epay txartelak (aurerodainak), erabilerat digitalak, bermearen luzapenak eta fidelizazio-promozioen produktutxoak. Kontuitatu gaituzte baldintzak zure chilo saltokian edo supermercado.roski.es/es/web/guest.

EROSKI
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30



Martxarekin bat egin duten herriko elkarreetako ordezkariak eta norbanakoak. LARRAITZ ARRIOLABENGOA

Mendiak babestea eskatzeko, mendi martxa

Arabako Mendiak Aske plataformaren babespean, Aramaioko hainbat elkarteek mendi martxa antolatu dute biharko. Lau ibilbide irtengo dira: Aramaiotik, Marixekatik, Legutiotik eta Leintz Gatzagatik. 12:00etan egingo dute ekitaldi nagusia, Jarindon

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Arabako mendietan egitekoak diren hainbat proiekturen aurka *Babestu maite duzun mendia* ekimena antolatu du Arabako Mendiak Aske plataformak. Eki-men horren bueltan hainbat mendi martxa egin dituzte; bihar, zapatua, seigarrena eta azkena egingo dute: Jarindora, hain zuzen.

Jarindon eta Arabako beste hainbat lekutan egin nahi duten parke eolikoen proiektuen aurkako martxa izango da. Ekitaldi nagusia 12:00etan izango da, Jarindon. Hara joateko lau ibilbide antolatu dituzte: Aramaiokoa 09:00etan irtengo da, frontoitik; eta 10:30ean Marixekatik irtengo direnekin elkartuko da. Aramaiotik joan-etorria egiten duenak 21 kilometroko ibilbidea egingo du, eta Marixekatik, oster, 5,5 kilometrokoa. Beste bi ibilbideak Legutiotik eta Leintz Gatzagatik irtengo dira: Legutiotik 10:00etan irtengo dira eta Leintz Gatzagatik, 09:30ean.

Herriko eragileak
Arabako Mendiak Aske plataformaren babespean Aramaioko hainbat elkarte ibili dira mendi martxa antolatzen; besteak beste, Orixol Mendizale Elkartea eta Gazte Asanblada. Baina baita norbanakoak ere.
"Arlabandik Jarindora bidean eolikoen proiektu bat martxan jarri nahi du Aixearrek, eta hori egin ahal izateko haize neurgailu bat jartzeko baimena eskatu dute", azaldu du Gazte Asanbladako kide Beñat Arregik. "Interes publikoko proiektua dela diote, baina guk guztiz pribatua dela uste dugu. Lursaila pribatua da, eta Aixearren %60 Iberdrolak du", gehitu du.

JARINDON EGIN NAHI DUTEN PARKE EOLIKOAREN AURKAKO MARTXA IZANGO DA

Ekitaldi nagusia
12:00etan egingo duten ekitaldi nagusian musika egongo da, eta ondoren, Arabako Mendiak Aske plataformako komunikatua irakurriko dute. Horrez gain, jatekoa eta edatekoa banatuko dute.
Behin ekitaldia amaituta, arratsaldean, Aramaion jarraituko du aldarrikapenak. 19:00etan, musika kontzertuak egingo dituzte. Legazpiko Billy Club eta John Dealer and the Coconuts taldeek egingo dute kontzertua.

Gasteizen manifestazioa
Eolikoen proiektuen aurkako aldarriak jarraipena izango du urriaren 23an, Gasteizen. *Araba bizirik!*, *lurra defendatuko dugu* lelopean egingo dute manifestazioa. 18:30ean izango da, Gasteizko Bilbo plazan. Hainbat eragilek deituta, zera eskatuko dute: zentral eolikoak mendietan ez egitea; tren sozialaren alde AHTrik ez egitea; eta abeltzaintzako eta nekazaritzako lurrak ez industrializatzea.



NIRE USTEZ

MARKEL ARRIOLABENGOA

Masusta egurra

Jakina da eskinosorik gabe nekez legokeela hariztirik basoetan; aipatutako hegazti hau baita ezkurren *ereitearen* arduradun nagusienetako bat. Eskinosoaren biziraupenerako, bestalde, bereziki dira garrantzitsuak zenbait hegaztiren arrautzak; txorruarenak, besteak beste, arrautza horietaz elikatzen baita udaberrian. Aldi berean, txorruak masustari zor dio, hein handi baten, elikatzeko aukera.
Beraz, esan genezake, agian, haritzik ez zela haziko masustarik gabeko paisaian; eta, korapiloan sakonduz, masustak haritz-egurra sortzen duela ere gehitu genezake.
Segidari eutsiz, etenik gabeko kate ia infinitu bat sortu genezake. Aspertu artekoa, gutxienez.
Esandakoak esanda, ez dut ezer askorik esan. Ez dut ezer berririk gehitu. Zorrotzegia ere ez da izan adibide hau jartzea. Baina polita da batzuetan konplexutasunaren indarra gogora ekartzea. Indar horren hauskortasuna azaleratzeko ez bada ere.



ARAMAIOKO UDALA

Sari banaketa eta omenaldia

Kaleko 30. margo lehiaketa jokatu zuten martitzenean. Nagusien kategorian, Jose Migel Arranz de Juan izan zen onena eta herritar onena, Edurne Uribarren-Iturrieta. Gaztetxoan kategorian 15 margolari aurkeztu ziren eta sarituak izan ziren: Libe Abarrategi, Paule Avila eta Oxel Kortabarria. Gainera, ekainean hil zen Jose Mari Agirre omendu zuten.

Gaur, barikua, bertso saioa egingo dute Illarregik eta Aranak

Ikasturte berria bertso saio bereziarekin hasiko dute Bertso Eskolako kideek. Joanes Illarregi eta Haizea Arana izango dira saioan kantatuko duten bertsolariak eta gaiak jarriko dituzte bertso eskolako kideek. Gaur, 19:00etan hasiko da bertso saioa. Eguraldi ona bada parkean egingo dute eta euria egiten badu, kultura etxean.

Hainbat udal mendiren mugarritze lanak egingo dituzte

Urriaren 19an, Murumendi, San Adrian eta Karikogain mendien mugarritze lanak egingo dituzte. 10:00etan elkartuko dira udalletean, mugarritzearen Apeoa egiteko. Mendi publikoa mugarritzeko espedienteari hasiera eman nahi zaio horrela. Urriaren 29an Alahon argitaratuko da eta azaroaren 15ean alegazio epea amaituko da.



Osakidetza eta Udaleko ordezkariak lehen mailako arretarako lokal berria aurkezten. MIRARI ALTUBE

Herriko osasun zerbitzua indartu egingo dute

Mediku bat eta erizain bat gehiago izango ditu herriko osasun zerbitzuak. Leku faltari konponbidea emateko, lokal berria egokitu dute Zainduz gimnasioaren eraikinean; bi mediku, erizain bat eta ginekologia zerbitzua izango dira astelehenetik aurrera

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaletako lehen mailako arreta zerbitzuan berritasunak datoz urrian. Batetik, lantaldea osatu egingo dute mediku bat eta erizain bat gehiagorekin; bestetik, kontsultategi berria estreinatuko dute Ilargi plazaren atzeko partean, leku faltari irtenbidea emateko. Astelehenean zabalduko dituzte hango ateak, eta zerbitzua ematen hasiko dira.

Ginekologoa ere, lokal berrian

Aretxabaletako biztanleria hazi egin dela jakinik, osasun etxeke lantaldea indartzea erabaki du Osakidetza: "7.000 biztanletik gora izatera, bosgarren medikua eta erizaina dagokigu. Aurretik ez badituzte ekarri leku faltagatik izan da", adierazi du Unai Elkorok alkateak. Leku egokiaren bila jardun dute Udalak eta Osakidetza elkarlanean, eta Zainduz gimnasioa izandako lokala hautatu dute –sarrera Erreka-barren kaletik izango du–: "Guk laga diogu eta Osakidetza ego-

kitu du; di-da egin dituzte lanak", gaineratu du Elkorok.

Debagoieneko ESIko gerente Luisa Diezek jakinarazi du mediku eta erizain banarekin indartuko dutela lantaldea: "Horrela, bost mediku eta bost erizain izango dira". Kontsultategi berrian izango dute tokia bi medikuk eta bi erizainek, eta horien ordutegia izango da 10:00etatik 17:00etara. Medikua han izango duten herritarrek dagoeneko jaso dute gutuna horren berri emanaz. "2.700 bat aretxabaletar pasatuko dira kontsultategi honetatik, eta, horiez gain, ginekologia zerbitzura joango diren emakumeak daude", argitu du Diezek. Izan ere, ginekologoak eta emaginak

**KONTSULTATEGI
BERRIAN 10:00ETATIK
17:00ETARA EGONGO
DIRA MEDIKUAK ETA
ERIZAINAK**

ere han pasatuko dute kontsulta. Eta gaineratu du: "Administrazioko pertsonala ere indartu dugu eta lagun bat egongo da harreran". Txanda hartzeko ohiko telefono zenbakira deitu beharko da: 943 71 19 59.

Erizainak eta medikuak "pozik"

Begoña Iturbe erizainen arduraduna da osasun etxean eta oso gustura agertu da berrikuntzekin: "Urtetako eskaerari erantzunez etorri da lokal berria. Leku handiagoa da eta erosoagoa; komuna ere badago bertan".

Argiñe Ibarguren medikua orain dela bi urte etorri zen Aretxabaletara, eta pozik dago lekualdaketaekin: "Mediku bakoitzak ez dugu norbere kontsultategia eta bata besteari lekua kentzen ibili izan gara. Hortaz, bakoitzak geure lekua izatea ez da gutxi", eta gaineratu du: "Lantaldea indartuta, gainera, medikuarengana joateko itxaronaldiak motzagoak izango dira herritarrendako".

Elikadura osasuntsua izango dute berbaigai datozen asteetan

Atxabalta Mugik hitzaldi sorta antolatu du Garazi Abasolo dietistarekin; lehenengoa urriaren 20an da

M.A. ARETXABALETA

Jarduera fisikoa sustatzea helburu duen Atxabalta Mugi ekimenak elikaduraren gaineko hitzaldiak antolatu ditu. Garazi Abasolo dietista aretxabaletarrak emango ditu azalpenak eta Ibarra kiroldegian izango dira saio guztiak, 18:00etan. Parte hartzeko, aldezturik eman behar da izena, kiroldegira bertaratu eta edo deituta (943 03 98 42).

Lehenengoa, urriaren 20an

Lehen hitzaldia hilaren 20an izango da, eta plater osasuntsuak nola osatu azalduko du Abasolok –euskaraz–. Besteak beste, landuko ditu elikagaien sailkapena eta erosketa nola egin, baita asteko menu osasungarrien adibideak eman ere.

Urriaren 27an, osterara, etiketa nutrizionalak irakurtzen irakatsiko du –gazteleraz–, eguneroko

dieta osatuko duten osagaiak hobeto aukeratzeko. Kirol orientazio zerbitzuaren erabiltzaileei zuzenduta dago.

Azaroaren 3an, Behobia lasterketara begira jarri eta nutrizio on baterako aholkuak emango ditu –euskaraz–. Eta azaroaren 10ean, gosari osasungarri tailerra egingo da, Lehen Hezuntzako haurrei eta haien gurasoei zuzenduta.

Bulegoa, kiroldegian

Udaleko Kirol Zerbitzuek bul-tzatutako eta Athlon kooperatibak kudeatutako ekimenak bost urte daroa abian, eta kirol orientazio zerbitzua ere eskaintzen du. Astean bi hitzordu daude: astelehenetan (09:00-13:00) eta asteazkenetan (14:30-18:30). Harremanetan jartzeko bideak hemen: 662 62 38 30 eta atxabal-tamugi@gmail.com.

Ibilgailu klasikoan erakustaldia bihar, Herriko Plazan

30 urtetik gorako ibilgailuak elkartuko dira bihar herrian, Goiena Classic Club elkarteak gonbidatuta. 09:00etan harrera egingo diete eta 11:00etan ibiladitxo bat egitera joango dira. 11:45ean trialsin erakustaldia izango da, 12:30ean mokadutxo bat jango dute eta 13:30ean, opari- en zozketa egin. Erakustaldia 14:30ean emango dute bukatutzat.

Esperimentatzeko gunea izango dute umeek Kuku Mikun

Kuku Miku elkarteak jarduerak bueltan dira eta bihar, zapatua, esperimentazio-gunea izango dute 0 eta 4 urte artekoek, egotzan bertan (17:30).

Eguaztenean, hilaren 20an, osterara, haurren larrialdietarako lehen sorospenen saioa egingo dute Bea Pacho pediatriak eta Larraitx Iturbe erizainak, komentuan (17:30).

Odola emateko lau aukera izango dira datozen bi asteetan

Arabako odol bankuko kideak Aretxabaletan izango dira datozen bi asteetan. Urriaren 18an, 21ean eta 26an –astelehena, egue-na eta martitzena–, Durana kalean egongo da autobusa 16:45 eta 20:00ak bitartean. Hilaren 28an, egunean, osterara, Mondragon Unibertsitateko Fakultatera gerturatuko da goiz partean, 09:45etik 13:00etara.



Elizen eta ermiten historia, xehetasun osoz jasoa

'Historia de las iglesias y ermitas de Aretxabaleta' liburua idatzi berri du Aitor Antxia Leturiak, eta zapatuan aurkeztuko du jendaurrean, Arkupen. Aretxabaletako elizen eta ermiten gainean jarduteaz batera, beste zenbait bitxikeria ere batu ditu lanean

Imanol Beloki ARETXABALETA

Historia de las iglesias y ermitas de Aretxabaleta liburua jendaurrean aurkeztuko du Aitor Antxia Leturia aretxabaletarrak zapatuan, 12:00etan, Arkupen. Idazleak aurreratu duenez, "aspaldi hasitako lanaren emaitza da. Jende askok ezagutzen ez duen dokumentazioaz gain, erretratu onak ditu liburuak, bitxikeriak...".

Pandemia hasi aurretik Calahorrako artxiboan, Aretxabaletako parrokia-etxeko artxiboan eta Gipuzkoako Artxibo Historikoan batutako dokumentazioarekin eta gero zenbait irakurketarekin osatutako lana dela azpimarratu du Antxiak.



Aitor Antxia Leturia aretxabaletarra liburuekin. MIRARI ALTUBE

Eliza eta parroketatik haratago

Hainbat zati ditu liburuak: "Sarreran, Calahorrako gotzaindegitik hasten naiz, Leintz bailara Calahorrako gotzaindegi barruan sartzen delako. Gero, apurka-apurka, Aretxabaletara iritsi arte. Bertako ermitekin hasi, eta ondoren parrokiak aztertzen ditut. Azken honi dagokionez, XVI. mendean hamabost ermita zeuden Aretxabaletan, eta, horiekin batera, Bedoñakoak ere aipatu ditut, Arrasatekoak... Gaur egun, hiru ermita soilik geratzen dira Aretxabaletan:

Santutxo, San Vicente –Arientzakoa– eta Sailuente –San Blaskoa–. Eliza bakoitzaren gainean idazteko dokumentaziora jo duela dio Antxiak, eta horrekin batera eliza bakoitzaren estilo artistikoaz ere badiharduela gaineratu du. "Liburuan jasotzen den dokumentazio zaharrena 1438koa da, eta mendez mendez kontatzen dut garapena. Liburuak duen beste zati bat da Aretxabaletan auzoz auzo eta baserriz baserri zeuden biztanle guztiak eta izen guztiak batzen dituen eta abar".

Bestelako bitxikeriak

Antxiak esan du auzo bakoitzak duela zerbait ikusteko, eta hori ere azpimarratuko du aurkezpenean. "Galartzan dorrea eta sarrera ditugu, baina bertako bataio-iturri erromanikoa Apotzagan dugu, Eskoriatzan; apaiak eraman zuena. Jeneral karlista bat hil zen Zubillagan, eta sendatzeko Larrinoko Kakotegi baserrira eraman zuten; besoa moztu zioten, gangrenarengatik, eta kanposantuan lurperatu... Asatzen erruki kutxa dago... Halakoak ere azaltzen dira".



Herriaren hauspoa dokumentala grabatzen. UDA ARETXABALETA

Herritarren testigantzekin osatutako lana, jendaurrean

UDaren 75. urteurrenaren gaineko 'Herriaren hauspoa' dokumentalaren proiektzioa 19:30ean izango da, gaur

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkartearen 75. urteurrenaren harira egin dako *Herriaren hauspoa* dokumentala gaur, egubakoitza, 19:30ean proiektatuko da Arkupen. Horrekin batera, datozen emanaldiak urriaren 22an eta 29an izango dira, ordu eta leku berean, eta proiektzio guztiak doan izango dira.

Testigantza ugari

UDaren 75. urteurrenako ekitaldi ugari egin dituzte orain arte, baina esperotakoena gaur izango da: *Herriaren hauspoa*. UDAk egindako lana Aretxabaletako Udalak eta Real Sociedad futbol taldeak babestutakoa da, eta produkzioaz Arteman Komunikazioa eta AZ Visual Media arduratu dira. Urteurren boro-bilean, 1946an sortutako Aretxabaleta Kirol Elkartek gaur arte egindako bidearen nondik

norakoak testigantza bidez jaso dira 45 minutuko ikus-entzunezkoan, eta horietaz disfrutatu ahaliko dute herritarrek. Anabel Aranzadiren, Tito Etxeandiarren, Manolo Zubillaga edo Igor Arenazaren berbak jaso dira, besteak beste, dokumentalean.

Emakume pilotarien jaialdia

UDaren 75. urteurrenako egitarauarekin jarraituz, asteburu honetan emakumezkoen pilota jaialdia egongo da Iturrigorri frontoian. Domekan, partidua jokatzeko lehenengoak gaztetxoak izango dira, 10:30ean: Irati Begetik (Aretxabaleta) eta Itxasne Lizarralde Maddy Gabilondoren eta Malen Ayesaren aurka jokatuko dute. Ondoren, nagusien txanda izango da, 11:00etan: Mirian Arraizak eta Maite Ruiz de Larramendik Iera Agirreren eta Itxaso Erasunen kontra jokatuko dute.

Udako
Azoka Ekologikoak

Urriak 17 · Leintz-Gatzaga

🕒 11:00-14:30 📍 Frontoia



Ikastaroak eta tailerrak Mugikortasun Astean

Herritarrek garraio osasungarriagoak erabili ditzaten kontzientziatzeko, Mugikortasun Astea izango da Eskoriatzan. Auto eolikoa egiteko eta bizikletak konpontzeko tailerrak eta patinen eta skate gainean aritzeko ikastaroak izango dira, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Mugikortasun Astea urriaren 18tik 22ra bitartean ospatuko da, baina, motorrak berotzen joateko, domeka honetan egongo da lehenengo hitzordua: auto eolikoa egiteko tailerra. 17:30etik 19:00etara bitartean, Ibarraundi museoan, 4 urte eta 8 urte arteko haurrei zuzendutako eskulan tailerra izango da, eta haur bakoitzak guraso batekin lagunduta joan beharko du. Haurrek egindako lana, gainera, etxera eramanez ahalik dutela aurreratu dute Eskoriatzako Udaleko ordezkariak.

Bizikletak konpontzen

Astelehenean, 18:30etik aurrera, Oreaka bizikleta dendakoen eskutik bizikletak konpontzeko tailerra izango da 12 urtetik gorako edonorentzat. Saioa bizikleta dendan bertan eskainiko da, eta oinarritzako konponketa lanak egiten ikasteko baliagarria izango dela adierazi dute bertan beharra dutenei laguntzen ari tuko direnek. Besteak beste, gurpileko zulatu bat nola konpontzen den irakatsiko dute, balaztak aldatzen, katea irtenez gero nola jarri eta behar bezala mantentzen... Parte hartu nahi duenak ez du bizikleta eramanez beharrik izango.



Duela bi urte, ikastaro batean; patineteak nola eta non erabili. I.B.

Patinetan aritzeko ikastaroa

Urriaren 19an, martitzena, eta 21ean, eguna, berriz, patinen gainean aritzeko ikastaroa izango da. Luis Ezeiza Herri Eskola pareko kantuan izango da saioa, eta adinaren arabera antolatutako bi talde egongo dira: bata 17:30ean izango da, 5 eta 7 urte bitartekoentzat; eta bestea 18:30ean, 8 eta 10 urte bitartekoentzat. Bakoitzak bere materiala eramanez beharko du, eta hiru euro ordaindu beharko ditu parte hartu nahi duenak. Euria egiten badu, Olaetako

frontoian izango da. Mugikortasun Asteko egitarauarekin jarraituz, skate gainean aritzeko ikastaroa egingo da urriaren 20an, skate parke gunean, tren estazio zaharrean. 17:30ean hasiko da, eta 8 eta 14 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako saioa izango da.

Programazioari amaiera emateko, berriz, urriaren 22an, bigarren eskuko bizikleta azoka izango da, Manuel Muñoz kiroldegian. Astean zehar herritarrek eramandako materiala salerosiko da bertan.

OHARRAK

Sortu Eskoriatza

Urriaren 18rako, 18:30ean, kultura etxean, herri batzarra antolatu du Eskoriatzako EH Bilduk. *Herrigaia* txostenaren aurkezpena.

Sarrerak, kiroldegian

Urriko emanaldietarako sarrerak salgai jarri dituzte kiroldegian: *Hiru harri*, *Skratx*, bertso jaialdia eta *Las brujas se salem*.

LEINTZ GATZAGA



Gatz Egunaren edizio batean, bertako produktua saltzen. GOIENA

Herriko produktu preziatuaren baitan, eskaintza zabala

Urtebeteko geldialdiaren ostean, Gatz Egunaren bosgarren edizioa ospatuko da domeka honetan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Domeka honetan ospatuko da Gatzaren Eguna Leintz Gatzagan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan egin zen joan den astean aurkezpen agerraldia, eta, besteak beste, ibilbide gidatuez, azoka ekologikoa, tailerrez eta jolas herrikoiez gozatu ahalik dute bertaratzen direnek.

Biolurrek kudeatutako Debagoieneko eta inguruko herrietako produktu ekologikoen azoka frontoian egingo da. Guztira, 18 postu izango dira ikusgai, eta, produktuak erosteari batera, edozein informazio jaso gura duenarentzat prest egongo dira ekoizleak argibideak emateko, eta horiekin batera Ekolur ingurumen aholkularitzakoak ere izango dira. Ortutik Ahora elkarteak antolatutako tailerra eta dastaketa herrikoia, xaboiak gatzarekin egiteko tailerra eta egurrezko jolas herrikoia ere

egingo dira. Sorginak Emakume Elkartekoek, bestalde, erakustaldia egingo dute, lixiba nola egin, antzina egiten zen modu berean, eta Gureleko kideak hanburesak egiten ari tuko dira.

Goizeko hamarretatik aurrera, hiru bisita gidatu antolatu dituzte, paisaiaren biodibertsitatea, pagadiak eta *Basoko bainuak* ezagutzeko asmoz. Horrez gain, Gatzaren Museoak bisita gidatuen maiztasuna handitu egingo du, bai euskarazko bisitarientzat, eta baita gaztelania hobesten duten herritarrentzat ere.

Ibilbide gidatuak

Ibilbide gidatuetan, *Basoko bainuak*-en eta xaboiak egiteko tailerrean parte hartzeko beharrezkoa izango da alde zuzenetik izena ematea, infoturismo@debagoiena.eus helbidera idatziz, edo 943 79 64 63 zein 943 71 89 11 zenbakira deituz.

Egitaraua

- **10:00** Mendi ibilaldi gidatuak: *Baso gazia*, *baso bizia*. Gatz kulturak emandako paisaia eta bioaniztasun ibilaldia, eta Gatzaga mendebaldeko pagadietan zehar ibilaldia; 7 kilometro (3 ordu). Izena ematea: infoturismo@debagoiena.eus helbidera idatziz edo 943 79 64 63 telefono zenbakira deituz.
- **11:00-14:30** Azoka ekologikoa, frontoian.
- **11:00** Lixiba egitea: erakustaldia.
- **11:00** Zurezko jolasak.
- **11:00** Gatz xaboi tailerra, museoan. Euskaraz hiru (11:00, 12:00, 13:00) eta beste hiru gazteleraz (11:30, 12:30, 13:30).
- **12:00** Baso bainuak.
- **12:00** Sukaldaritza tailerra.



goiena[”] kide



Goienakide egiteko,
eskaneatu
QR kode hau.



www.goiena.eus/kideak



Batzen gaituen distantzia

Zero kilometro: Goiena eta
Goienakideok batzen gaituen distantzia;
bertakoa eta gertukoa



Hasier Larrea DEBAGOIENA

21 urteko ibilbidean debagoien-darren erreferentziazko komunikabidea izan da Goiena. Balarako bederatzi herrietako kontuak lau haizetara zabaltzeko lan egiten du, herritarren ahotsa lehenetsiz eta tokian tokiko albisteen aldeko apustua eginez. Proiektua egonkortzeko, udalen, euskara elkarten eta bestelako instituzioen babesaz gain, beste eragile batzuen haupoa behar-beharrezkoa zaio; hala, norbanako, entitate eta enpresa ugari jartzen dute euren alea, guztien artean geroz eta komunitate sendoagoa osatzeko. Zehatz esateko, 4.000 lagunengatik babes ekonomikoa jasotzen du Goienak gaur egun.

'Zero kilometro' filosofia

Hori horrela, egindakoarekin konformatzea ez da kooperatibaren planetan sartzen. Hazten jarraitu nahi du, egungo beharizantetara egokitzen eta etorkizuneko erronketara moldatzen. Hasierako filosofia aintzat hartuta. Horrekin lotuta, Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusiak honako hau azaldu du: "Komunikazioan ere, elikaduran bezala, bertan sortu, banatu eta kontsumitutakoa askoz ere osasungarriagoa eta jasangarriagoa da munduko beste puntatik ekarri beharrekoa baino".

Eta elikagai osasuntsuekin gertatzen den bezala, zaindu egin behar da ekoizpen prozesua. Hor Goiena barruko langileek eta kanpoko kolaboratzaileek parte hartzen dute, azken emaitzak ahalik eta kalitate handiena izan dezan. Esan gabe doa emaitza horren hartzaileak direla herritarrek, webgunean, sare sozialetan, Goiena telebistan, Arrasate Irratian eta aldizkari fisikoetan –GOIENA aldizkaria eta *Puntua*– zein digitaletan –*Ttap*– edukita egunerokotasuneko gaiak kontsultatzeko aukera.

Goiena Klubetik Goienakidera

Guztiekin dute bermatuta eskubide hori, baina Goienako bazkideek badituzte abantaila esklusiboak. Adibidez, *Puntua* aldizkaria jasotzen dute ostiralero GOIENA aldizkariarekin batera, aisialdiarekin zerikusia duten zozketetan parte hartzen dute, eta *Goiena* aplikazioan inon baino azkarrago ikus di-

Alboan egoteko beste jauzi bat

Goiena Komunikazio Taldeak orain arteko bazkideak fidelizatzeko eta bazkide berriak erakartzeko kanpainari ekin dio, 'Goienakide' kontzeptua landuta; norbanako, elkarte eta enpresetan jarri du fokua, komunitatea oraindik eta gehiago indartzeko xedez

Okm:
batzen gaituen
distantzia

goiena
kide

Egin zaitez goienakide!

www.goiena.eus/kideak

Goiena telebistaren hiru ikus-entzule, etxean; Goienakide kanpainaren iragarkietako bat da. GOIENA

tzakete argitaratzen diren edukiak. Orain arte, bazkideak Goiena Klubeko kideak izan dira, baina hemendik aurrera Goienakide izatera pasako dira. Aldaketa hori gauzatzeko lantalde bat dabil martxoaren ezkerorburu-belarri lanean, eta datorren asteazkenean, hilaren 20an, egingo du fase berri horren aurkezpena, Arrasateko Biteri plazan. Bertan emango dute hemendik aurrerako nobedade guztien berri.

Etengabeko bilakaera

Izan ere, Goienak esperientzia handia du unean uneko egoeretara moldatzeko orduan. 2000. urtean sortu zen, Debagoieneko herrietan martxan zeuden euskara elkarteek sustatuta eta herriz herriko komunikabideen baturatik. Zehazki, *Arrasate Press*, *Berrigara*, *Goibekokale*, *Arexagazeta*, *Kontuola* eta *Ze Barri?* aldizkarietako lankideak batu ziren Debagoieneko proiektu bateratua osatzeko.

2003an, ostiraleko paperezko edizioaz gain, astelehenetako aldizkaria ere kaleratzen hasi zen, Goienako bazkideek aste-buruan jazotako albisteak astea hastearrekin bat jaso zitzaizkien.

2015ean astelehenetako aldizkaria *Puntua* aldizkariarekin ordezkatu zuten; ordurako ondo garatuta zeukan webgunea Goienak, eta irakurleek bertara jotzen zuten sarritan edukia irakurri edota ikus-entzuteko. *Puntua* aldizkariarekin, harpidedunek modu landuago eta teknikoagoan zeukaten balararekin zerikusia zuten gaiak eta pertsonak eza-gutzeko aukera, eta gaur egun ere hutsik egin gabe jasotzen dute *Puntua* atekaria irakurle harpidedunek.

Gainera, sorreratik eduki du telebistako katea, Goiena telebista, lehen GoiTB deitzen zena. Arrasate Telebistak eta Atxabalta Telebistak pilotutako esperientzia baliatu zituen lehen pauso haiek ematerakoan.

Sareak ehuntzen

Esan bezala, zazpi hilabetez jardun du komunikazio taldeak Goienakide proiektua diseinatzeko. Prozesu hori ez du bakarrik egin, AZK enpresaren eskarmentuaz baliatu baita marka eta komunikazio plan berria definitzeko. Agurtzane Elkoro da AZKn bezeroen kudeaketa, estrategia eta planifikazio ardu-

raduna, eta berak koordinatu ditu egitekoak: "Hasteko, bilerak egin genituen Goienako zuzendaritzarekin, dagoeneko bazkide diren entitateekin, oraingoz bazkide ez direnekin eta kirol zein kultur elkarteeekin, bakoitzaren ikuspuntuak jakiteko; herrigintza bultzatu eta aliantzak sustatzea bada asmoa, norabide berean jarri behar dugu, bailara handi honek behar handiak dauzkalako", adierazi du Elkorok. Bide batez, aukeratu duten leloak *—Okm, batzen gaituen distantzia—* balarari berari egiten diola erreferentzia gaineratu du: "Debagoiendar izatearen sentimendua indartu nahi dugu, euskaratik eta euskaraz saretuz eskualdea".

Komunitateko kideekin harremanetan aritu dira Idurre Ezpeleta eta Jon Irizar kazetariak (Ikus 21. orria). AZK-ko langilea bata eta Goienakoa bestea, biek nabarmendu dute komertzio, elkarte eta enpresengana iritsi nahi izan dutela: "Modu batera edo bestera, agente horiek ere eragin zuzena dutelako euskararen normalizazioan, komunitatean, herrigintzan zein herriarren aktibazioan".

Publizitatea, begi bistan

Datozen egunetan Goienakideren komunikazio kanpainaren berri izango du komunikabidearen kontsumitzailea den pertsona orok. Mireia Larrañagak, Goienako zuzendari komertzialak,

GOIENAKIDE KANPAINAREKIN, BABESLE GEHIAGO IZATERA PASA NAHI DU GOIENAK

HILERO KULTUR ETA KIROL EKITALDIK ANTOLATUKO DITU, BAILARAKO HERRI GUZTIENTATIK IGAROZ

KOMUNITATEA INDARTZEN JARRAITZEKO APUSTUA BERRETSIKO DU MODU HORRETAN

MANIFESTUA

Zero kilometro, batzen gaituen distantzia

Zero kilometro bai, baina ez betikoa. Izan ere, bertakoa ez ezik, gertukoa ere eskaintzen du Goienak. Betikotik atera eta eskaintza bizigarri bezain berritzailea jartzen du debagoiendarren eskura; eskualdea josteko, batzeko.

Goienakideren helburu behinekoena euskararen normalizazioa da, komunitatea errotzea, sendotzea eta handitzea; herrigintza aktibatzea; betiere, aliantzak sortuz eskualdean. Debagoiena bizigarri egingo du Goienakidek, eskualdeak ematen dituen aukerak bizi izateko ateak zabalduko ditu, eta horrek bide emango du komunitatea pizteko, indartzeko eta norbere sentitzeko. Eskualde bizi horren taupada izango da Goienakide. Eragiten duena, bizia ematen diona.

Goienak badu eskarmentua komunikazioaren esparruan, eta, beste hainbatetan moduan, Euskal Herrira zabaltzeko asmoz dator Goienakide esperientzia. Tokiko euskal hedabideekin elkarlanean osatuko dugu mapa. Berriz ere bide urratzailea Goienatik: norbanakoak, elkarteak eta enpresa txiki zein handiak batuta.

adierazi du "erreferentzialtasuna duten pertsonak" erakutsiko dituztela Goienako kanaletan: "Hau da, harpidedun berriak identifikatuta sentitzeko moduko jendea". Hala, etxean telebista ikusten, mendian *Puntua* aldizkaria irakurtzen edo paseoan mugikorreko aplikazioa begiratzeko agertuko dira protagonista horiek, "Goienako harpidedun profil zehatzik gabeko jendea izan daitekeela" erakusteko.

Ekitaldi bereziak

Egongo diren aldaketei buruz galdetuta, hemendik eta uztailera bitartean, hilero ekintza ezberdinak egingo direla aurreratu dute Ezpeletak eta Irizarrek: "Kirol ekitaldiak, bertso saioak, hitzaldiak, kontzertuak eta formakuntzak antolatuko ditugu, Goienakideek goza ditzaten". Bailarako bederatzi herrietan programatu dituzte aisialdiko hitzordu horiek; lehena, esan bezala, Arrasaten izango da, eta bigarrena, Oñatin, hilaren 30ean (Ikus 23. orria).

Aisialdiko ekitaldiek, beraz, Goiena hauspotzen duten norbanako eta kolektiboek harremanak sendotzeko helburua izango dute. Modu horretan, lehendik harpidedunak zirenak ere mimatu nahi ditu Goienak. Goienakide izateko interesa agertzen dutenei begira, bestalde, beste argudio bat gehiago emango die proiektu komunikatiboaren alde egiteko.

Hasteko, aurkezpen sinbolikoa

Goienakide proiektuaren baitako lehen ekitaldia datorren eguaztenean, hilak 20, arratsaldeko seietan egingo dute Arrasateko Biteri plazan. Bertan Goienako bazkideak eta harpidedunak batuko dira, baina, aire zabalean izango denez, herritar orok jarraitu ahaliko du bertatik bertara.

Kanpaina berriaren xehetasunak emango dituzte Goienako bi lankidek lehenbizi. Gero, Kaitin Allenderen bakarriketaren txanda etorriko da, aurkezpen ekitaldiari tonu umoretsua erantsiz modu horretan. Goienakideren manifestua irakurriko dute kooperatibako bederatzi lankidek ostean, eta bakoitzak esaldi bat errexitatuko du.

Emanaldi akustikoa

Laugarren pilula Garazi Barrenaren eta Asier Salaren eskutik etorriko da, kontzertu

laburra joko baitute ikus-entzuleen aurrean. Oihane Agirre, Goiena telebistako programazio arduraduna, izan da ekitaldia antolatzen aritu denetako bat. Musikariak aurkezpenari ukitu kulturala emateko asmoz gonbidatu dituztela aipatu du: "Garazi Barrena aktibo dabil azkenaldian, eta Asier Salak eta biek hainbat kolaborazio egin izan dituzte; proposatzen duten formatu akustikoa egokia iruditu zitzaigun aurkezpen ekitaldia borobiltzeko, eta proposamena egin eta onartu egin zuten. Pozik gaude, beraz, harpidedun berriak erakartzeko kanpainaren aurkezpenean parte hartuko dutelako".

Errigorako saskiaren zozketa

Ordu erdi inguruko saioari amaiera emateko, Goienako harpidedunek parte hartu ohi duten ekimenetako batean jarriko



Garazi Barrena eta Asier Sala, Areantzan egindako kontzertuan, joan den ekainean. ENEKO AZURMENDI

da fokua: zozketan, hain zuzen. Oraingoz, ordea, Biterira gerturatzen den edonork eman ahaliko du izena. Zozketan parte hartzeko, eskuorri batean norbere datuak bete besterik ez da egin behar. Hala, zenbaki irabazlea duen pertsonak

Nafarroako sasoiko produktuz osatutako otarra eramango du etxera.

Bistakoa denez, topaketa arina izango da datorren eguaztenean, baina efektiboa, era berean, bertara gerturatzen direnen interesa piztuko duelako.



AZK-ko eta Goienako kideak, bilera batean. AZK

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Goienakide kanpainaren helburuak dira bazkide berriak erakartzea eta bazkideen fidelizazioa. Goienak argi zituen bi helburu horien inguruan lan egin nahi zuela, eta, horretarako, AZKRekin harremanetan jarri zen komunikazio plana garatzeko.

AZK-k merkatu-ikerketak egin zuen. Horretarako, hainbat *focus group* egin zituzten: bate-tik, Goienako zuzendariekin egon ziren, eta, bestetik, Goienako langileekin. Bestalde, bazkideekin, bazkide ez diren herritarrekin eta eskualdeko entitateekin egin zituzten batzarrak. Herri, adin tarte eta genero askotariko pertsonak hartu zituzten taldeak egiteko. "Ariketak egin genituen informazioa jasotzeko", azaldu du komunikazio planean lan egin duen Idurre Ezpeletak. Eta, hain zuzen ere, ariketa horietan jasotako informazioarekin landu dute ondorengo komunikazio plana.

"Debagoieneko beharrak identifikatzea beharrezkoa da Goienakide izango diren horiek ze behar izango dituzten jakin eta horren araberrako komunikazio plana egiteko", gehitu du.

Marka lantzea

Ezpeletaren esanetan, garrantzitsua izan da marka lantzea. "Hainbat ariketa egin genituen; hain zuzen ere, horietako bat izan zen Goiena Klubaren ingurukoa. Gehienek esaten zuten *kluba* hitz horrekin ez zirela

Marka eta balioa, bat eginda

AZK publizitate eta komunikazio agentzia buru-belarri ibili da Goienakideren komunikazio plana egiten. Marka landu dute, eta, horren baitan, urriaren 20an estreinatuko den spota sortu dute. Kanpainako iruditeria guztia ere AZK-k egin du

identifikatuta sentitzen. Horregatik erabaki genuen *Goienakide* marka ezartzea", dio.

Goienak hasieratik zuen argi kanpainak hiru ardatz nagusi izan behar zituela: euskara, komunikazioa eta komunitatea.

Kanpaina lau publiko ezberdini zuzenduta dago: batetik, norbanakoak daude; horiez gain, komertzioei, entitateei eta enpresei zuzendutako kanpaina ere izango da. Hori horrela, askotariko abantailak izango dira:

ekintzak, formakuntzak, zozketak eta abar. Dagoeneko hasiak dira kanpainarekin.

Spota eta iruditeria

Urriaren 20an egingo den aurkezpenean, spota erakutsiko dute. Uda partean grabatu zuten iragarkia, Arrasaten eta Aretxabaletan. "Debagoieneko pertsonak agertzen dira, Debagoienean bertan. Hainbat egoera irudikatu dituzte: mendia, gazte taldeak...", dio Ezpeletak.

Kanpainan zehar erabiliko diren iruditeria eta esku-orriak ere AZK-k diseinatu ditu. Komunikazio plana eginda, kanpainaren koordinazioa eta jarraipena egingo du AZK-k.

Elkarlana

Idurre Ezpeletaren esanetan, "erraza" izan da bi erakundeen arteko elkarlana. "Batzen gaituen

Bailarako irudiari eusten

Abaok egin du urriaren 20an Biterin egingo den aurkezpenean estreinatuko den spota. 30 bat segundoko ikus-entzunezkoan, egunero gertatzen diren egoerak irudikatu gura izan dituzte. Bailaran bertan egin zituzten grabazioak, uda partean. Bost lokalizazio erabili zituzten: lokalizazio bakoitzean egoera bat irudikatzen da, eta egoera hori Goienaren euskarri bati lotuta dago. Hala, aplikazioa, web ataria, telebista eta *Puntua* eta *Goiena* aldizkariak dira euskarriak. Egoera horietan familia bat, lagun kuadrilla, lankideak, aita-alabak, mendizalea... ageri dira, euren egunerokoan Goienaren euskarri bat irakurtzen.

Ikus-entzunezko dinamikoa egiten saiatu dira, musikaz baliatuz indarra eta dinamismoa emanez spotari. Eguneroko egoerak irudikatuz bailararen irudiari eta balioei eutsi gura diete.



Goienako zuzendaritzako kideak. AZK

asko dugu", dio; antzerako balioak izanda erraza dela lan egitea gaineratu du aretxabale-tarrak. "Goiena komunikazioan aditua da, eta AZK, berriz, estrategian aditua", nabarmendu du. Aipatutako spota eta iruditeria datorren eguaztanean estreinatuko dituzte. Goienakide kanpaina martxan jarriko dute urriaren 20an. Ekitaldia Arrasateko Biteri plazan izango da, 18:00etan. Kanpainaren inguruko informazioa banatuko dute eta, gainera, musikak girotuko du arratsaldea. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

**HERRI, ADIN TARTE
ETA GENERO
ASKOTARIKO
PERTSONEKIN EGIN
DITUZTE TALDEAK**

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Komunitatea handitzea, sare zaharrak osatzea eta berriak sortzea izango da Goienakide kanpainaren helburuetako bat. **Goienakide kanpaina urriaren 20an aurkeztuko da. Zer da, zehazki, Goienakide?**

Idurre Ezpeleta: Goienakide komunitatea, euskara eta komunikazioa ardatz duen proiektu berri bat da. Kanpaina honen helburu behinekoena euskararen normalizazioa sustatzea, komunitatearen kontzeptua errotzea, herrigintzaren aktibazioa lortzea, komunitatea bera sendotzea eta handitzea da; betiere, aliantzak sortuz eta eskualdea saretuz.

Jon Irizar: Hasiera Arrasateko Biteri plazan emango diogun arren, datozen hilabeteetan herriz herri zabalduko den ekimena da. Izan ere, Goiena zerbait bada, eta, kasu honetan, Goienakide zerbait bada, Debagoieneko herri guztietara heltzen den egitasmoa da, euskara eta komunikazioa ardatz, bailara saretzen duen proiektua.

Nori zuzenduta dago kanpaina?

J.I.: Kanpaina gure bailara osatzen duten agente ezberdinei dago zuzenduta. Gaur arte egin bezala, herritarrek ditugu lehen-tasun nagusi, norbanakoen parte-hartzea eta horiek osatzen duten saretutako komunitatea baita gure izatearen oinarria. Hala ere, egitasmo honen bidez Debagoieneko komertzio, elkarte eta enpresengana iristea ere badugu helburu; modu batera edo bestera, agente horiek ere eragin zuzena dutelako euskararen normalizazioan, komunitatean, herrigintzan zein herritarren aktibazioan.

I.E.: Jonek esan bezala, helburuetako bat publiko berriaren-gana heltzea bada ere, jada Goienako kide direnei ere zuzentzen da kanpaina hau. Egun komunitatearen parte diren herritar zein eragileak zaintzea ezinbesteko ikusten dugu, Debagoienetik eta Debagoienera begira.

Goienakide izateak nolako abantailak izango ditu?

I.E.: Goienakide orok kalitatezko abantailak jasoko ditu. Hala ere, Jonek esan bezala, kanpaina lau publikori zuzenduko da, eta, hortaz, onurak publiko bakoitzari egokitu dira. Goienako harpidedunak Goiena telebista, irratia, webgunea eta ostiraletan *Goiena* aldizkaria musu-truk jasotzen duten pertsonak dira.

"Komunitatea, euskara eta komunikazioa dira balioak"

IDURRE EZPELETA ETA JON IRIZAR GOIENAKIDEREN KOORDINATZAILEAK

Goienakide kanpainaren ardura izango dute Ezpeletak eta Irizarrek hurrengo hilabeteetan; hain zuzen ere, datorren eguaztenean aurkeztuko dute, Arrasaten



Idurre Ezpeleta eta Jon Irizar, Goienako bulegoan. A.E.G.

Goienakide izatea, ordea, harago doa. Norbanakoei abantaila horiez gozatzeaz gain, tekniko-ki landuagoak diren albisteak biltzen dituen PUNTUA aldizkaria jasoko dute ostiralero. Gainera, Debagoieneko komertzioetan abantailak izango dituzte, zozketetan parte hartzeko aukera izango dute eta ekitaldi eskusiboak izango dituzte. Esate baterako, urriaren 30ean, Goienakide direnentzat kontzertu bat eskainiko da, Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearena, hain zuzen ere.

Orain arte Goiena Klubeko bazkideak izan direnak Goienakide izatera pasako dira?

J.I.: Bai. Herritarrek ez dute inolako aldaketarik egin behar. Izenetik harago, Goiena Klubetik Goienakidera emandako jauzia kontzeptualizazioan, helburuetan zein kideek izango dituzten aukeretan gertatuko da. PUNTUA jasotzetik, zozketetatik zein abantailetatik harago, berritasun gehiago ekarriko ditu Goienakide proiektuak. **I.E.:** Azken finean, Debagoieneko kideak entzun ondoren, mar-

ka aldetik aldaketa baten beharra zegoela bistakoa zen, ez ziren *klub* hitzarekin identifikatuta sentitzen; indarra eman baino gehiago, kendu egiten zion. Buru-belarri lanean jarri, eta marka lanketa sakona egin zen. Hortik, Goienakide, balio eta izaera propioa duena: euskara, komunitatea eta komunikazioa. **Norbanakoak bakarrik ez, komertzioak, elkarteak eta enpresak ere atxiki nahi dira Goienaren komunitatera.**

J.I.: Eta garrantzitsua da jauzi horretan azpimarra jartzea. Komunitateaz hitz egitean, herritarrez aritu gara gaurdaino. Baina herritarrek sortutako eta sostengatutako komertzio, elkarte eta enpresak ez al dira, beren baitan, espazio, molde eta helburu jakin bat elkarbanatzen duten komunitate txikiak? Komunitate bat sortzen da auzoko fruta-dendan, profilak elkar lotzen dituzten lantokiko langileen artean bezala. Komunitate bat sortzen da herriko zientzia elkarteetan, elkarre gastronomiko batean sortzen den bezala. Modu batera edo bestera, agente hauek guztiek ere eragin zuzena dute euskararen normalizazioan, herrigintzan, herritarren aktibazioan. Eta euskarazko komunikazioaren baitan, komunitate horiek guztiak saretzea da Goienakide egitasmoaren xedea.

Erakartzearekin eta fidelizazioarekin zer lortu nahi da?

J.I.: Alde batetik, komunitatea handitzea, sare zaharrak osatu eta berriak sortzea, herritarrek zein komertzioak, elkarteak eta enpresak jarritz ikusmiran. Eta, bestetik, jada bidaide ditugun agenteekin hartu-emanetan sakontzea, beharrak ezagutzea eta, ahal dugun heinean, horiek asetzea; bai komunikazioaren alderdi profesionalari begiratu-ta, eta baita kultur eskaintza zein aisiari erreparatuta ere. **Kanpaina urrian jarriko da martxan eta uztailera arte iraungo du. Zeintzuk izango dira kanpainan egingo dituzuen ekintza nagusiak?**

I.E.: Hilero ekintzak egingo dira Debagoieneko herrietan. Hila-bete honetan kanpainaren aurkezpena eta kontzertu eskusibo bat egingo dira. Aurrera begira, bertso saioak, hitzaldiak, kontzertuak, formakuntzak... eta beste hainbat jarduera aurreikusten dira, baina ez dugu guztia aurreratuko!

"GOIENAKIDEEK KALITATEZKO ABANTAILAK JASOKO DITUZTE"

IDURRE EZPELETA

"EUSKARA ETA KOMUNITATEA ARDATZ, BAILARA SARETZEN DU PROIEKTUAK"

JON IRIZAR

Oihana Elortza Gorostiza ARRASATE

Gertuko eta gaurkotasunarekin lotutako informazioa eskaintzen die, euskaraz, Goienak herritarrei. Horrelaxe egingo du aurrerantzean ere, herritarrekin, komunitatearekin batera, eta makina bat abantaila eskainiko die Goienakide egiten diren norbanako zein enpresa edo elkartei. Zero kilometrokoa den informazioa eskura, egunero, hainbat euskarritan eta Goienakideendako onurekin.

Goienakideek, batetik, doan jasoko dituzte egubakoitzetan argitaratuko diren GOIENA eta Puntua aldizkariak, biak. Horrez gain, baina, erabilgarri izango dituzte webguneko eta app-eko eduki guztiak. Beste edozein aplikazio jaisten den moduan jaitsi eta instalatu ahal da Goienaren aplikazioa eskuko telefonoan, eta bertatik sarera igotako informazio guztia izango dute eskura. Irudiak, gainera –argazkiak, esaterako–, kalitate gorenean jaitsi ahal izango dituzte.

Deskontuak eta zozketak

Debagoieneko hainbat zerbitzutan, Arrasateko Meka gasolindegian, esaterako, deskontuak izango ditu Goienakide egiten dena, eta beste makina bat zozketatan ere parte hartu ahal izango du; adibidez, bi lagunendako jatorduak bailarako jate-txeetan, Arrikrutz kobak ikusteko sarrerak, tableta bat edo irakurgailu elektroniko bat, kasuan kasu. Abantaila ekonomikoen artean daude, esaterako, harpidetzak berak duen hobari fiskala edo edozein euskarritan jarri gura diren eskelen prezioak; gutxiago ordainduko dute Goienakideek.

Onura fiskalak

Harpidetza sistemaren bidez egiten da norbanako edo negozio zein elkarte bat Goienakide. Urtean kuota bat ordaintzea eskatzen du harpide egiteak, baina, horrek dituen abantailaz gain, harpidetza kuotaren zati bat bueltan jasotzen du Goienakide egiten denak; izan ere, onura fiskalak ditu. Hau da,

**NORBANAKOEN
KUOTAREN %30
JASOKO DUTE
BUELTAN ETA
ENPRESEK, %45**

Informazioarekin datoz abantailak

Deskontuak, zozketak eta ekitaldi eksklusiboak izango dituzte, besteak beste, Goienakide egiten diren norbanakoek. Enpresek eta elkarteek ere jasoko dituzte eurendako propio diseinatutako onurak. Goienakide izatearen abantailak



Goienakideek parte hartu ahal izango duten urriko zozketak. IMANOL SORIANO

Enpresak eta elkarteak

Norbanakoek izango dituzten abantailaz gain, beste batzuk ere izango dituzte Goienakide egiten diren enpresek eta elkarteek. Euren propio eskainiko zaizkien zerbitzuak izango dira, eta deskontuak ere aplikatuko zaie, esaterako.

Adibidez, Goienakide egiten den enpresa bati formakuntza eskainiko zaio, aurrez aurrekoa zein Internet bidezkoa.

Esaterako, iruditegi propio egoki baten garrantzia landuko dute, eta hori hobetzeko formakuntza eskainiko zaio. Ikus-entzunezko ekoizpenean deskontuak ere izango dituzte, hala nola bideo eta argazki korporatiboetan. Baita hedabideetako publizitatean ere.

Elkarteetan ere, Goienakide eginez gero, eskaintza bereziak izango dituzte publizitatean.

Irudien lanketa ere eskainiko zaie, sare sozialetarako, adibidez, eta, horretarako, formakuntza propioa prestatu eta emango zaie.

Abantaila horiez gain, zozketetan parte hartzeko aukera izango dute Goienakide egingo diren enpresek eta elkarteek, eta baita aurrerantzean antolatuko diren ekintza eksklusiboetan ere. Euren harpidetzak hobari fiskalak izango dituela ahaztu barik.

errenta aitorpena egiterakoan, Goienakideren agiria aurkeztu eta bueltan jasotzen da ordaindutakoaren %30.

Goiena interes sozialeko proiektu gisa izendatuta dagoelako da hori. Horixe hartzen du kontuan Aldundiko Ogasun Sailak hobari fiskala aplikatzeko. Eta Goienakide den norbaiten errenta aitorpena jasotzean, harpidetza hori kontutan hartu eta kuotaren %30 aplikatzen zaio. Herritar arrunten kasuan, adibidez, gertatzen da hori: 60 euroko harpidetza ordaintzen ditu urte hasieran, baina errenta aitorpena egiteko sasoian berreskuratu egiten du kopuru horren zati bat, %30. Enpresa, negozio eta elkarteetan ere aplikatzen da hobari fiskala, baina bakoitzari dagokiona da kasu horietan. Ogasunak, enpresaren gainerako zerga egiterakoan eta enpresaren zerga tasaren arabera, kopuruaren zenbateko bat bueltatuko dio enpresari.

Urtean ordaintzen den kuotaren zati bat baino ez da, beraz, harpidetzarako; Goienakide izatearen beste abantaila bat.

Emanaldi eksklusiboak

Hilabete honetatik aurrera, gainera, abantaila gehiago ditu Goienakide izateak. Adibidez, emanaldi eta ekitaldiak antolatuko dira, hilean behin. Besteak beste, hitzaldiak, formakuntzak, kontzertuak, ekitaldiak eta albisteen bidalketak. Hilean behin, eta hilabete bakoitzean Debagoieneko herri ezberdin batean egingo dira.

Goienakideendako propio antolatutakoak izango dira batzuk, gainerakoek baino abantaila handiagoak izanik. Izan ere, eurendako bakarrik antolatutako emanaldiak izango dira. Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen kontzertua da, esaterako, modu horretara antolatuko den lehen emanaldia. Urriaren amaieran, hilaren 30ean, Arantzazuko Goiko Benta ostutako ganbaran eskainiko duena.

Urriko hori izango da lehena, baina ez azkena. Gehiago ere izango dira.

**GOIENAREN
APLIKAZIOA JAITSITA,
EDUKI GUZTIAK
IZANGO DITUZTE
ERABILGARRI**



Iker Martinez de Zuazo eta Zaldi Herrenak. GALDER IZAGIRRE

Maidar Arregi ARRASATE

Oñatiko Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen kontzertuaz eskusiban gozatzeko aukera izango dute Goienakideek urriaren 30ean. Horixe izango da, hain zuzen ere, Goienakide izatearen lehen abantailetakoa bat. Modu intimoan eta goxoan, bertatik bertara, luxuzko emanaldiaz gozatzea. Emanaldia, gainera, ez da edonolako lekuan egingo. Esanahi berezia eta euskalgintzaren erreferente izan den Arantzazuko Goiko Benta baserrian egingo da, zehazki. Goienakideei balioa emateko helburua dauka ekimenak, eta gutxi batzuekako lekua egongo da soilik.

"Lehen aldia da horrelako ekimen batean parte hartzen duguna. Gogotsu gaude, bereziki horrelako aukera izatea ez delako erraza. Disko bat kalera-tzean, audioa da esku artean duguna soilik; baina irudi aldetik erreferente bat edukitzea oso garrantzitsua da gure lana zabaltzeko eta erakusteko", azaldu du Iker Martinez de Zuazok. "Gure gertuko ingurua gure bailara da; hemen dago gure jendea; beraz, hemengo jendearekin egitea lan hau eta hemen zabaltzea oso polita eta esanguratsua da taldearendako. Ondoren, ahal dugun beste zabalduko dugu. Horretan ez daukagu konplexurik. Esan nahi dudana da guretzako garrantzitsua den jendea hemen dagoela. Horregatik, bailaran egitea eta zabal-

Esklusiban eta ondo mimatuta

Goienakideek urriaren 19tik aurrera eskuratu dezakete Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen emanaldiaz gozatzeko gonbidapenak. Izena ematen duten lehen 10-15 Goienakideek sarrera bikoitza izango dute hilaren 30eko kontzertura joateko

tzea oso da interesgarria", gaineratu du sortzaile oñatiarrak. "Motibazio handia izan da kalitatezko eduki ona eskuratzeko aukera hori izatea. Zuzeneko talde moduan, material ona edukitzea eta gure euskal komunitatearekin partekatzea ezinbestekoa da eta".

Kontzertu berezia

Emanaldia gertukoa, intimoa eta goxoa izango da. Goienakide gutxi batzuekako eskusiban egingo dena, alegia. "Ordubate pasatxo iraungo du; oraindik, baina, kantu-zerrenda zehazten

**IZENA EMATEN DUTEN
LEHEN 10-15
GOIENAKIDEENDAKO
IZANGO DIRA
SARRERA BIKOITZAK**

ari gara. Dena den, gure proiektuko kantuak eskainiko ditugu, eta, akaso, Lenao taldearen bat ere joko dugu, baina ikusteko dago. Formatua ere berezia izango da, ikus-entzuleak gure inguruan izango ditugu gurekin bat eginda eta borobilean eserita. Aurreratu dezakedana da gonbidatu bereziak ere izango ditugula gurekin".

Argi teknikari lanetan Iban Zubeldia izango da, egun Belako taldearekin lanean diharduen teknikaria da eta Berri Txarrak taldearekin ere lan egindakoa; soinua, aldiz, Iñaki Zubia oñatiarraren ardura izango da.

Euskaltzaleen topaleku

Goiko Benta 1969ko udaberrian, nagusiki, euskaltzaleen eta euskalgintzaren topaleku bilakatu zen. Arantzazun kokatutako baserria esanahi handikoa da.

"Ikerrek guregana jo zuen oso modu umilean eta gertukoan. Gure etxea gustuko du eta guretzako oso pozgarria izan da. Erraztasun guztiak jartzen saiatu gara. Zuzeneko ganbaran egitea erabaki du musikariak; izan ere, bertan dagoen egurrari eta azpiegiturari esker oso polita geratuko dira emanaldia eta grabazioa. Eta gu oso pozik gaude", kontatu du Goiko Benta jatetxe eta ostatuko Miren Maiztegik. "Etxeak berak duen indarrari ere balioa eman diote. 1969an, Oteiza Arantzazura bere obra bukatzera etorri zenean,

**EMANALDIA
ARANTZAZUKO GOIKO
BENTA BASERRIAN
EGINGO DA HILAREN
30EAN, 12:30EAN**

gurean izan genuen bizi izaten. Sasoi hartan, kultura arloko eragile askoren bisita izaten zuen, eta guztiak Goiko Benta batzen ziren. Artze hil zenean ere omenaldi oso hunkigarria egin genion hemen. Goiko Benta kulturaren topaleku da, eta guk sortzaileendako ateak beti irekita ditugu. Horregatik, uste dut Ikerren eta taldearen musikak bat egiten duela gure inguruarekin", nabarmendu du.

"Hainbat gauzak bat egiten dute gure proiektuarekin: bate-tik, Arantzazun izatea, euskal munduan erreferente den lekua; eta bestetik, Goiko Bentak daukan historia eta izaera. Lekua bera ere zoragarria da. Gure emanaldirako aukera-aukerako lekua da. Estetikoki oso ederra da, benetan, eta kantuak ondo entzungo dira, gainera, bertan", kontatu du musikariak.

Komunitatea indartzeko zozketak

Komunitatea indartzeko eta zabaltzeko, zozketa bereziak egingo ditu Goienakideek. Aukeraketa zaindua eta mimatua izango da. Asmoa da, gutxienez, hileroko ekintza bat egitea bailarako hainbat herritan.

"Kontzertu, bertso-saio, hitzaldi zein bakarrikzeta edo antzeko formatuetan oinarritutako ekintzak antolatuko dira, eta ekintza eskusiboak izango dira. Goienakideak ardatz eta helburu hartuta; hau da, Goienakide diren norbanakoek izango dute ekitaldietara joateko lehentasuna", nabarmendu du Goienakideren lantaldeko Jon Irizarrek.

Lehen zozketa honetan izena-emateko epea urriaren 19an irekiko da. Sarrerak *newsletter* bidez zabalduko dira eta bertan datorren galdetegia bete beharko dute Goienakideek; hala, betetzen den hurrenkeraren arabera banatuko dira sarrerak.

Batzar Nagusien babesik ez Angiozarrek, oraingoz

Eguazteneko bilkuran landu zen Angiozar tokiko entitate txiki izendatzeko ezinbestekoa den 2/2003 foru arauaren aldaketa; EH Bilduk eta Podemosek bat egin arren, EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten; betiere, Batzar Nagusietan lantalde bat sortzera zabalik

Jokin Bereziartua BERGARA

Tokiko entitate txiki izendapena lortzeko bidea nabarmen zailduko zaio Angiozar bailarari. 2020ko uztailan jarri zuen martxan Angiozar Bailarako Batzarrek izendapen hori jasotzeko prozesua, burujabetza handiago baten bila.

EAJ eta PSE-EE, kontra

Izan ere, 2020ko uztailan abiatutako prozesuak eguazten honetan jaso zuen lehenengo erantzun ofiziala politikarien aldetik. Hain zuzen, urriaren 13an landu zen gaia Gipuzkoako Batzar Nagusietan, orduan bozkatu zuten-eta Donostian Angiozar Bailara Batzarrek egin zuen foru arauaren moldaketaren bozketa. EH Bilduk eta Podemosek bere egin zuten Angiozarren eskaera, baina EAJk eta PSE-EEK aldaketaren aurka bozkatu zuten. Honela dio, besteak beste, Angiozarren eta Itsasoren eskaerei erantzutera datorren kontrako

botoaren azalpenak: "Aldundiak beharrezko ikusten du Itsasok eta Angiozarrek adierazitako nahiari erantzutea, baina egokiena litzateke 2/2003 foru arauaren berrikuspenaren esparruan jorratzea; eta berrikuspen hori egokitu egin beharko litzateke araua indarrean jarri zenetik oinarritzeko izaeraz onartu diren lege-aldaketetara eta aldaketa horiek lurralde historikoetan aplikatzeari buruzko epailetara. Halaber, Aldundiak egoki ikusten du gaiari buruzko hausnarketak zabalagoa eta osoagoa egitea, Batzar Nagusietan lantalde edo ponentzia bat sortuz bideratu daitekeena".

Azken nabardura horren bueltan egin du prozesuaren garapenaz arduratzen ari den talde eragileko Unai Asurmendik emaitzaren lehen balorazioa: "Gaia modu sakonean eta kolektiboan jorratzeko asmoz laster Angiozar Bailara Batzarra deituko dugun arren, lehen

balorazio positibo bat egin nahi dugu. Zergatik? Aldundiak Angiozarren nahiei erantzun egokia eman behar zaiela onartu eta ponentzia bat irekitzeko egokitasuna adierazi duelako. Eta horixe bera da Angiozarrek eskatu duena". Hala ere, Asurmendik onartu du eurek nahiko luketen erritmoa geldotu egingo duela eguazteneko bozketan ezezko emaitza jaso izanak: "Guk biharko nahiko genukeena etziko helduko litzateke heltzekotan, baina irakurketa baikorra egin nahi dugu. Bailarako premiek lehentasun handiagoa duten arren, gutxienean onespina aldaketaren lehen urratsa izan daiteke".

110 BIZILAGUNEK HARTU DUTE PARTE INKESTETAN, TALDE ERAGILEAK ESPERO BAINO GUTXIAGO



Angiozar bailararen ikuspegi panoramikoa, 2021eko uztailan. IMANOL SORIANO

Burujabetza handiagoa helburu

Bergarako Udalarekin orain arte egin diren lanketek emaitza emankorrik eman ez zutela iritzita, hiru abantaila nabarmendu zituen Asurmendik. "Lehendabizikoa eta inportanteena, burujabetza. Gai izango ginateke Jaurlaritzara, Diputaziora edota Udalera gure kabuz aurkezteko. Adibide bat: AH-Taren obrak direla-eta gonbidatu moduan joan behar izaten dugu orain arte, eta nahi duguna da entitate moduan aurkeztu. Bigarren abantaila oso garrantzitsu bat seigarren kapitulua da; hau da, dirua. Inbertsioak egiteko eta eskatzeko aukera emango liguke. Eta, hirugarrenik, zerbitzuen des-

zentralizazio bat ahalbidetuko luke eta uste dugu hori egungo zentralizazioa baino eraginkorragoa litzatekeela".

110 inkesta jaso dituzte

Bestalde, talde eragileko kideek ez dituzte bailaran espero zituzten emaitzak jaso. Izan ere, bizilagunen artean inkesta luze eta mardul bat atera zuten udan Siadeco enpresarekin batera, angiozartarren "benetako iritzia" jasotzeko. "110 inkesta jaso ditugu, nahi baino gutxiago. Hala ere, herritarren iritzia jasotzeko balioko du. Emaitzak lantzen ari gara, eta haiekin batera, eztabaida talde fokalekin jarraitzen dugu, eta baita ondasun zein zerbitzuen azterketarekin".

Gau Beltza berreskuratzen, herriarekin eta herriarendako

Urriaren 20tik 31ra hainbat ekintza antolatu dituzte, eta ekimenak zeharkako beste hainbat helburu lortu nahi ditu

J.B. BERGARA

Gau Beltza berreskuratzeko askotariko ekintzak antolatu dituzte urriaren 20tik 31ra. "Eredu parte hartzaile baten bidez" ospakizuna indartu nahi dute, eta zeharka beste helburu batzuk ere landu: "Euskararen erabilera indartzea, festa erakargarri baten bidez; berdintasuna bermatzea; inklusibitatea lantzea; herriko tradizioak ezagutzea eta berrasmatea; heriotzaren inguruko emozioak lantzea; Gau Beltza zer den, nondik datorren eta haren balioak lantzea; euskal

identitatea lantzea; herriko umeak eta nerabeak festaren protagonista izatea; eta ospakizuna elkarrekin sortzea, herri-tarren partaidetzarekin".

Eragileekin elkarlanean

Urriaren 20an, *Arimen kandela* izeneko misterio jolasa izango dute Aidau haurren zerbitzuan -Oxirondoko lehen solairuan-, Lehen Hezkuntzako ikasleendako. Urriaren 27an, udazkeneko barazki eta frutekin hainbat errezeta prestatuko dituzte familian, Oxirondon. Urriaren



Ugutx Basauri, Bautista Legenardunaren paperean, bisita gidatuetako baten. GOIENA

22rako eta 29rako eta hilaren 23rako eta 30erako, tailerrak izango dituzte umeei begira, plazako arkupeetan. Urriaren 30ean, musika eskolakoen eta San Joxepekoen emanaldi bat izango da plazan (18:30), eta gero, kale-

jira eta Deabru Beltzak taldearen *Su danborrak* ikuskizuna antolatu dituzte (19:30). Urriaren 31n, Bautista Legenardunaren bisita gidatuak izango dira, doan; izen-ematea: ugutxtours@gmail.com edo 695 75 34 30.

Sortu: rap saioa gaur Arranon eta batzarra Irizarren hilaren 18an

Urtarrilaren 22an emango dio amaiera Sortuk kongresuari, irailaren 29ko "ponentzia politiko-organizatibotik" abiatu zena. Urtarrilaren 22ra bitartean ekintza batzuk antolatuko ditu Bergarako Sortuk eta horietako lehena gaur izango da, urriak 15, Arrano tabernan (23:00). K-po eta HRT eta Raperu eta Uki Selekta gonbidatu dituzte. Hurrengo ekintza urriaren 18rako antolatu dute, Herri Batzarra izango da-eta Irizar jauregian (18:00). "Herri batzarrean, urtarrilaren 22ko kongresuaren nondik norakoak azalduko ditugu eta ponentzia politiko-organizatiboaren aurkezpen eztabaida egingo dugu", adierazi dute.

"Gaztelekuak nire gune kutunenak dira lanerako"

ELENE JIMENEZ SEXOLOGOA, GAZTELEKUAN LANEAN HASI BERRI

Sexu aholkularitza gaztelekuan integratuta, nerabeekin aurrez aurreko harremanak garatzeko ekimen pilotuaren gidari izango da Jimenez; gutxienez, abendura bitartean

Jokin Bereziartua BERGARA

Sexologia zientzia berria izan arren, ibilbide luzea egindakoa da Elene Jimenez (Donostia, 1968) formakuntzan zein aholkularitzan. Bergarako gaztelekura dator orain, "oso gogotsu", Udalaren ekimen pilotuak marraztuko duen ibilbidea "oso interesgarria" izango dela sinistuta. Momentuz, abendura bitartean egongo da, eta aurrez aurreko zerbitzua hamabost egunean behin emango du; Udalak 3.014 euro inbertitu ditu.

Nola hartzen duzu erronka berria?

Ilusioz eta oso gogotsu. Gaztelekuak espazio kutunenak dira niretzat. Esperientzia pilotu bat da sexu aholkularitza, gazteleku barruan txertatuko dena; hau da, gaztetxoekin harreman zuzena izango dut. Bide berri bat abiatu dugu; ikusiko dugu zer eskatzen duten, nola hel gaitzekkeen gaztetxoak eroso galdetzerara, eroso berba egitera.

Aipatu duzu zure espazio kutunenak gaztelekuak direla. Zergatik?

Nerabezaroa bizitzako oso une inportantea delako, helduengandik aldendu eta norbera sortzen hasten den unea. Eskola autoritate bihurtzen da eta gurasoak ez dira izaten sexuaz berba egiteko elkarriketa-kideak. Aldiz, gaztelekuetako hezitzaileek lortzen badute benetako lotura garatzea, askoz errazagoa izaten da gaiak hitz egitea. Elkarriketa sakonak eta oso indartsuak izaten dira eta uste dut leku oso aproposak izan daitezkeela sexu heziketa baterako.

Urriaren 1ean saio bat bat egin zenuten. Zer moduz joan zen?

Hezitzaileak izan ohi dira nerabeen erreferenteak, eta inportantea da hezitzaileek ere formakuntza txiki bat jasotzea. Hezitzaileak ezagutu ostean, galdetu nien zeintzuk diren nerabeen jakin-minak eta interesak. Saiatu behar dugu gaztetxoei ulertarazten ze unetan dauden



Ibilbide luzea dauka Elene Jimenez sexologoak. E.J.

"SEXUAZ BOLO-BOLO ARI ARREN, FALTA DIRA ZORROZTASUN MINIMO BATEKIN HITZ EGITEKO LEKUAK"

eta nola kudeatu behar dituzten mugitzen zaizkien gauzak.

Gauza asko mugitzen dira-eta adin tarte horretan, ezta?

Ideia berri asko etortzen zaizkie, jende berri asko ezagutzen dute, sare sozialen eragina itzela da... Gustuko lehen pertsonak agertzen dira edo horiekiko sentipenak indartu egiten dira; laguna den edo zerbait gehiago; lehenengo sedukzio zantzuak datoz, lehen musuak; eta lehen gozamen uneak eta lehen ezinegonak... Zalanntza eta kezka asko, gehiegi.

Zein da nerabeek sexuaren bueltan duten gabezia nagusia?

Kontrastearen falta, bereziki. Zeinek zer eta nondik esaten duen oso inportantea da nerabeendako, iturria ondo identifikatuta izatea. Eta hori falta izaten zaie askotan; sexu heziketa hortik abiatzen dugu.

Sexologia, oso berria den zientzia...

Orain dela gutxira arte entzuten aritu gara sexua tabua dela. Hori gaingitu egin dugu, sexuaz bolobolo ari gara. Identitatea, erotika eta sexu harremanak asko normalizatu dira, baina sexuaz zorrozatasun minimo batekin hitz egiteko lekuak ez daude oraindik. Bereiziki, gazteek sexuaz lasai eta parez pare hitz egiteko zerbitzu gehiago behar dituzte. Euren dako erreferenteak izango diren guneak behar dituzte, euren gandik gertu egoteko lekuak. **Bergarako ekimen pilotu honek lagundu egin dezake, beraz?**

Oso interesgarria iruditzen zait. Esperientzia pilotu moduan planteatu du Udalak; uste dut ondorioztatu dutela gertuago egon behar dutela eta hortik datorrela ekimen hau. Ibilbidea marraztuko dugu, eta ziur interesgarria izango dela marrazkia. **Pandemiak nola eragin die?**

Nerabezaroa zerbait bada, harremanak dira, eta hori asko moztu zaie. Harremanetarako sekulako premia dute; elkarrekin egoteko, elkar ukitzeko eta elkar musukatzeko sekulako premia dute, eta ez da harritzekoa tarteka lehertu izana. Orain arte ez dugu erantzuten jakin.



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Irakaskuntza: gozotu gozatzeko

Jarri duguna ez da makala! Ikasturtearen hasieran hausnarketatxo bat egitea bidezkoa da. Administrazioak hezkuntza erreforma bere eltzean egositako gaiak, edukiak, epeak eta abar martxan omen dauzka. Betikoa, batek egin eta denok sufritu.

Labur, bederen, zertzelada bakan batzuk goiko titularra gogoraraziz. Lehorretik behingoz lur emankorrera zilipurdika jauzi handia eman behar da. Ikaslea irakaslea bezala nor moduan hartu ere bai. Horretarako, irakaskuntzan, etsipenez betiko ohituretan gelditzeke inizatiba eta ekintza berrietara jo behar da. Adibide bat: gelan azaldutako gaiak irakasleek hitzaldi eran taldeka zein banaka denon aurrean eztabaidatzea lan onuragarria da.

Azkenik, euskararen egoera. Tamalez, une larrian aurkitzen dela aitortu beharra dago. Ikastola-eskolan gela, jolastoki, jantoki eta herrian dauden ekintzetan gogotik parte hartu behar da. Eskolan maila ona lortu eta herrira barreiatu. Lau horma tartean sartu ordez gizartera zabaldu. Garaipena!

Hoditeria konpontzeko lanak direla-eta, Osteta kalea itxita

Munibe plazaren eta Osteta kalearen arteko ur zikinen sarea berritzeko lanak direla-eta, Osteta kalea itxita egongo da hurrengo hiru asteetan. Oinezkoek Munibera joateko Nove-dades ingurutik Bidekurutzetara igo beharko dute. Ekin Eraiketak enpresa bi hilabetez ariko da bertan lanean; aurrekontua 82.567 eurokoa da.



Obren edukiontzia Munibe plazan. B.U.

OHARRAK

Erreka auzolanean garbituko dute bihar

Arropa eta oinetako zaharrak eroatea eskatu dute. 09:30ean elkartuko dira, Seminarioan, Labegaraietan eta Osintxun.

Musika banda: kontzertua etzi, kide guztiekin

Urriaren 17an, "ohiko" kontzertua emango dute, frontoian (12:30). Berezitasuna izango da bandako 63 kideek joko dutela eta edukiera %100ekoa izango dela. "Askotariko" piezak joko dituzte.

Organo erromantikoaren nazioarteko zikloa

Bihar, hilak 16, Joxean Pascual organistak eta Karnele Muro sopranoak kontzertua emango dute Santa Marinaran (20:00).

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAP0)

HAP0ren bigarren aldaketaren gaineko partaidetza saioa egingo dute urriaren 26an Seminarixoan (18:00).

Pilota: Gipuzkoako txapelketa asteburuan

Gaur, infantiletako bi mailetako partiduak jokatuko dira, Arrasateren eta Aretxabaletaren aurka (19:15). Ondoren, Maddi Barrocalek eta Arrate Bergarak Izurungo bikote baten aurka jokatuko dute. Bihar, gizonezkoetako nagusien maila (11:30).

Hilaren 18tik 24ra egingo da Puntaik Punta jaialdia

Euskal Herriko bidezidorren jaialdiaren bosgarren edizioa Antzuolan egingo da. Hala, astelehenetik domekara bitartean makina bat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Irteeretan eta tailerretan parte hartzeko, aurrez eman behar da izena

Maidar Arregi ANTZUOLA

Debagoieneko bidezidorren jaialdiaren bosgarren edizioa Antzuolan ospatuko da urriaren 18tik 24ra bitartean. Puntaik Punta jaialdiaren muina Antzuola izango den arren, inguruko herrietara ere mendi ibilaldi gidatuak egingo dira. Irteera eta tailerretan parte hartzeko aurrez eman behar da izena, puntaikpunta@debagoiena.eus helbidera idatzita edo 943 79 64 63 telefonora deituta.

"Euskal Herriko bidezidorren lehen jaialdia da Puntaik Punta. Debagoienak bidezidorren eskualdea izan nahi du, eta, era berean, natura, osasuna, kirola eta turismoa uztartu. Mundumirarekin alderatzeko ohitura dago, eta esan nahi dugu jaialdi honen oinarria mendi ibilaldiak direla eta hau osatzeko kultura ekintzak eta azokak antolatu direla", adierazi du Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Herizek.

"Pandemiak eragindako ete-naldiaren ostean 2020an egitekoa zen jaialdia astelehenean abiatuko da. Egoera hobea da, eta badirudi egoera kontrolatuagoa dagoela. Horregatik egingo da orain Puntaik Punta jaialdia. Hala ere, beldur gabe etortzeko baina zentzuz jokatzeko eskatu gura diet herritarrei. Guretako erronka bat da eta espero dugu dena ondo joatea", adierazi du Beñardo Kortabarria alkateak. "Zirkulazioan eragina izango du jaialdiak, eta herriko lantegietako aparkalekuak erabiltzeko eskaera egingo dugu. Horrez gain, garajea duten herritarrei autoa garajeen sartzeko eskaera ere egin nahi diegu", gaineratu du alkateak.

50.000 euro inguru bideratu dira jaialdia gauzatu dadin. "Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Saila da jaialdiaren antolatzailea, Antzuolako Udalarekin batera; Jaurlaritzako



Beñardo Kortabarria, Mikel Bargiela eta Ana Heriz. M.A.

NATURA, OSASUNA, KIROLA ETA TURISMOA UZTARTZEA DU HELBURU BIDEZIDORREN JAIK

eta Aldundiko Turismo sailek ere diruz lagundu dute jaialdia", argitu du Herizek.

Bidezidorren irteerak

Bidezidor gidatuen eskaintza zabala izango da. Distantzia eta zailtasun askotarikoak eta adin tarte zabal batera egokitutakoak izango dira; bailarako hainbat herritan egingo dira. Gainera, bailarako museoak gertutik eza-gutzeko, bisita gidatuen eskaintza zabala dago.

Mendifilm eta solasaldiak

Urriaren 18an, Mendifilmeko pelikula emango dituzte Torresoroa aretoan; eta hilaren 19an, berriz, *Bizitza osoa soka-baten* emanaldia egingo dute Pou anaiek; urriaren 20an, Mikel Lizarralde *Esklerosi anizkoitza kirola eta bizipoza* hitzaldia egingo du.

Naturaz gozatzeko aukera

Arrikutzeko espeleo-abentura, izarrak ikusteko ibilbidea, hegaztiak behatzeko tailerra eta pottokaren oinatzak ezagutzeko ibilbidea egingo dira ondorengo egunetan, besteak beste. Bertako ekoizleen lana ezagutzeko aukera ere izango da Gomiztegi eta AMATXO proiektuen bidez.

Musika emanaldiak

Pello Heriz eta Leire Etxezarreta, Patxi Luque, Skabidean, Iñaki Mata, Hezur Beltza, Neomak, Kilima, Sara Zozaya, Sweet Barrio, Lekeitioko Deabruak... Askotariko doinuak izango dira entzungai herriko hainbat txokotan. Horrez gain, haurrendako gunere berezia egingo da.

Azokak

Antzuolako erdigunean, bertako artisauen eta bidezidor azokaz gozatzeko aukera izango da. Oraindik azoketan parte hartzeko izena eman dezakete artisau eta ekoizleak.

Puntaik Punta jaialdiaren egitarau osoa GOIENA aldizkariko agendan dago ikusgai (Ikus 38 eta 39 orrialdeak).

Gazte txokoko lantaldea, denboraldi berrirako gertu

Azarorako eta abendurako, herriko neska-mutikoen aisialdia asetzeko ekintzak antolatuko dituzte

M.A. ANTZUOLA

Antzuolako gazte txokoak 2022ko urtarrilean irekiko dituen arren atek, lantaldea dagoeneko dinamika eta ekintza berriak prestatzen ari dela aurreratu dio GOIENari Zumaia Elkoro koordinatzaileak: "Azaroan eta abenduan dinamika edo ekintza bat egingo dugu. Egoerak hobera egin duela-eta, asmoa da, dena ondo bidean, urtarrilean zabal-tzea gazte txokoa, eta baita ere izena emateko aukera". Hala, lokala zapatuetan 17:00etatik 21:00etara bitartean eta domeketan 20:00ak arte egingo da zabalik datorren urtetik aurrera. "Egoeraren menpe baldin bagaude ere, asmoa irekitzea da, eta herriko gaztetxoek aisialdia asetzeko". Izan ere, Elkorok nabarmendu du pandemiaren ondorioz neska-mutikoen aisialdirako beharra handitu



Martxoan egindako irteera. GAZTE TXOKOA

egin dela: "Pandemiak gogor astindu ditu gazteak eta azaroa eta abenduko ekintzak euren behar horiei erantzuteko egingo dira. Ondoren etorriko diren ekintzak denok elkarrekin batzean eta aurrez aurre gaudenean antolatuko ditugu".

EH Bilduk batzar irekia egingo du hilaren 15ean

Antzuolako EH Bilduk batzar irekia egingo du urriaren 15ean, egubakoitza, udalgintzako jardunaren berri emateko. Herri zein nazio mailan EH Bilduren egoeraz eta jardunaz ere hausnartuko dutela aurreratu dute. Hala, herritar ororendako batzarra Torresoroa aretoan izango da, arratsaldeko bost eta erdietan hasita.

Sormen arloa indartzeko lanpostu deialdia abian da

Sormen arloko lantaldea indartzeko, Antzuolako Udalak pertsona bat kontratatatzeko deialdia egin du. Hautagai izateko, nahi-taezkoa da Lanbiden izena emanda edukitzea; hortaz, nahi dutenek urriaren 11tik 22ra arte Lanbiden eman beharko dute. Lanpostua urtebeterako izango da, azaroaren 2an hasita. Eskakera udaletxean egin daiteke.

MUJKA
HARATEGIA



Bereztasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Otsailean koko-dantzak egin nahi dituzte Elgetan

Lanean da talde eragilea eta otsailaren 19rako iragarri dute koko-batzea. Konpartsa osatzeko eta jantziak prestatzeko unea da orain. Herriko gazteak erakartzea izango da beste egiteko nagusietako bat. Ozkarbi elkar-tearekin elkarlanean egingo dute deialdia

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetan martxan da Aratustee-tan koko-dantzak egiteko egitasmoa. Goibeko euskara elkar-teak deituta, aurreko asteko eguenean egin zuten lehenengo erabakiak hartzeko batzarra, eta adostu zuten gauzak ondo bidean Aratuste aurreko zapa-tuan egingo dela koko-batzea. Hau da, datorren urteko otsailaren 19an.

Eske-erronda bat da koko-batzea. Erritual bat da non kantua, zaratara eta pertsona desitxuratuak diren protagonista. Etxean dauden osagaiekin osatzen dira koko-jantziak. Trapu zaharrak, lore-dun kapela konikoak, zintzarriak eta txuntxurroak dira osagai nagusiak.

Eibarren 2008an berreskuratu zuten koko-eskea. Hain zuzen ere, Oier Araolaza antropologoak hitzaldia egin zuen otsailean Elgetan. Azaldu zuen zein den koko-jantzearen esanahia eta baita ere koko-batzearen funtzioa. Alde batetik, Inauteriak alden-duta dauden baserrietara eramatea da, eta, bestetik, festa iniziatikoa aurre-helduaroan dauden belaunaldiendako. Hel-duen komunitatean sartzeko errituala, alegia.

Ildo beretik joko dute Elgetan ere. Aurreko belaunaldietako elgetarrek utzitako lekukotzek erakusten dute, gainera, koko-jantzen zela jendea herrian, eta koko-batzea edo koko-eskea ere egiten zutela baserriz baserri. *Ahotsak.eus* egitasmoak jasotako testigantzetan entzun daiteke; besteak beste, Juan Erostar-beri eta Sebastiana Atorrassa-gastiri jasotako lekukotzetan.

Oinarritzko pertsonaiak aurten

Gauzak horrela, lehen urte honetarako helburua da konpartsa osatzea gutxieneko elementu batzuekin, eta Hartzaren figura ezinbestekoa da. Bi lagunek hartu dute mozorro hori pres-

tatzeko ardura. Dantzari taldea ere beharko da, eta horrekin batera, nola ez, kokoen taldea. Trikitilaria eta bertso-koplaria ere izango ditu konpartsak. Fandangoa eta arin-arina izango dira konpartsaren dantza ikurrak. Horrekin batera, helburua litzateke dantzari taldeak *Egoar-bitza* dantza ikastea. Herriko dantza izanik, ahalegin hori egitea adostu zen.

Egitarauaren zirriborroa

Gutxi gorabeherako egitarau bat ere zirriboratu dute. Egun osoko festa eguna izango da. Taldea goizeko zortziak aldera elkartuko da plazan. Lehenengo egitekoa gosaltzea izango da, eta 09:00etan abiatuko da Inauteriak baserriz baserri eramateko. Hain zuzen ere, asmoa da sei bat baserri bisitatzea goizean, eta taldean bazkaldu ostean beste bizpahiru bisitatzea arratsaldean.

KONPARTSA BASERRIZ BASERRI IBILIKO DA; IBILBIDEA ZEHAZTEKO ETA FINKATZEKO DAGO



Eibarko konpartsako hiru kide, iaz, Mandiola auzoan. EIBARKO KULTURA

Ibilbidea zehazteko dago. Konpartsak plaza inguruan amaituko du erronda, koko-dantzak herrian bertan ere eginez.

Herriko belaunaldi gazteen-gana heldu nahi dute, orain, antolatzaileek. Ozkarbi elkar-tearen lankidetzarekin zabalduko dute informazioa hurrengo asteetan. Koko-dantzak zer diren azaldu eta parte hartzera gonbidatuko dituzte 16, 17 eta 18 urteko neska-mutikoak. Izan ere, Araolazak elgetarrei azaldu moduan, gazteak dira ospakizun honetako protagonistak. "Plana da parranda egitea baserriz baserri jasotakoarekin, eta ez da arinkeria bat. Baserriz baserriko ibilbide horretan, etorkizunean helduen komunitateko kide oso izango diren gazte horiek ikasten dute herriaren lurraldetasuna, mugak, bakoitza non bizi den, ze bide dauden toki batetik bestera joateko, etxe bakoitza non dagoen eta nor bizi den bertan... Gaztea, azken finean, etxe guztietatik pasatzen da urtean behin, eta horrek ezagutza ematen dio bera parte izango den komunitate horren lurraldetasunaren inguruan".



Itzal laborategian sortutako pertsonaiekin jolasean. ZURRUNKA TEATRO

Itzalen antzerki laborategia egingo dute gaur liburutegian

Eguaztenerako, aldiz, eLiburutegiak ematen dituen zerbitzuen berri jasotzeko ikastaroa dago antolatuta

L.Z.L. ELGETA

"Itzalak argia behar du, eta argiak itzala", azaltzen du Zurrunka Teatro taldeko kide Eñaut Gorbeak. Itzalen antzerki laborategiko ordu eta erdiko bina saio gidatuko ditu gaur Elgetan. Liburutegiak antolatuta, 16:30ean hasiko da LH-1eko eta LH-2ko neska-mutikoendako saioa, eta 18:30ean LH-3ko eta LH-4ko umeendakoa. Lehen saioa bete egin da eta bigarrenenerako bizpahiru leku geratzen dira, lerrook idazterako orduan. "Agian, munduko antzerki mota zaharrena da honako hau. Litekeena da suaren argiak kobazuloetan sortutako itzalekin hasi izana", azaltzen du Gorbeak. "Garai batean mundu osoan zabaldua egon zen, debekatuta ere bai beste batzuetan". Haurren irudimena, jolasa eta sormena pizteaz gainera, bolumenak, geometria eta espazioaren kontzien-

tzia lantzeko aukera ematen duela dio. "Haurrek nahi dituzten elementuak sortuko dituzte gero oihalaren atzean inprobisatzeko eta esperimentatzeko".

Ikastaroa: eLiburutegia

Hilaren 20rako, berriz, eLiburutegiak ematen dituen zerbitzuen berri jasotzeko ikastaroa dago antolatuta. Geaxi Ezpeletak gidatuko du, eta zerbitzuaren erabilerari buruzko argibideak emango ditu. "Pandemia hila-beteotan asko hazi da erabiltzaile kopurua. Igoera orokorra izan da, eta Elgetan ere nabaritu da", azaldu du Ezpeletak.

Internetez liburu elektronikoak, filmak eta ikus-entzunezkoak mailegatzeko Eusko Jaur-laritzak sortu, mantendu eta herritarren esku jartzen duen mailegu zerbitzua da eLiburutegia. 18:30ean izango da. Aste honetan zabaldu du izen-ematea.

Lapurreta Asentzioko aparkalekuan eguaztenean

Ertzaintzak jasota dauka salaketa. Bakarra da, oraingoz. Eguaztenean, 17:30 aldera, gertatu zen lapurreta. Asentzioko aparkalekuan zegoen auto bati leihoa apurtu zioten, eta barruan zegoen ordenagailu eramangarria eraman zuten lapurrek, besteak beste. Ikerketa zabalik dela esan dute Herrizaingo Sai-leko ordezkariak.

OHARRAK

Podologoa

Erretiratuendako kontsulta, astelehenean. Txanda hartzeko deitu: 667 80 70 06.

Hitzez Pitz saioa

Literatu solasaldien ikasturte hasiera, martitzenean. Argibideak, liburutegian.

Omenaldia Ozkarbin

Bihar, 12:30ean, lau emakume omenduko dituzte elkartean.



Herriko dendetan erabiltzeko bonuak dira eta eskuragarri daude dagoeneko. O.E.

Bonuak, herriko saltokietan erabiltzeko

Herriko dendetan, ostalaritzan eta zerbitzuetan erabiltzeko bonuak atera ditu Udalak, Txandarekin batera. %20ko laguntza izango dute eta abenduaren 3ra arte erabili ahal izango dira. Tokiko saltokietan kontsumo kontzientea bultzatzea da helburua

Oihana Elortza OÑATI

Tokiko saltokietan kontsumo kontzientea bultzatzeko helburuarekin eta joan den urtean izandako erantzun onaren ostean, Oñatiko Udalak aurten ere jarriko du martxan *oñati.bonoak.eus* plataforma. 30.000 euro bideratuko ditu aurten Udalak ekimen honetara eta dagoeneko erosi daitezke txartelak herriko komertzio zein ostatuetan erabiltzeko. 16 urtetik gorako oñatiarrek izango dute bonuak eskuratzeko aukera.

Norbanako bakoitzak, baina, gehiegizko kopuru bat izango du erosteko, ezin izango ditu nahi adina hartu. "Herriar bakoitzak, gehienez, 75 euroko bonua hartzeko aukera izango du. Udalak, %20rekin, laguntza bat emango du, eta kalkulatzan dugu 2.000 bat bonu salduko direla. Azkenean, herriko saltokietan 150.000 euroko gastua sustatuko da, eta horrek badu bere garrantzia", azaldu du alkateak, Izaro Elorzak.

Udala eta Txanda, elkarrekin

2020an baino diru gutxiago bideratuko du aurten Udalak bonuetara, udal ordezkariak eta Txandakoek eguazten goizeko prentsa agerraldian azaldu dutenez, "pandemiaren ondorioz iazko egoera ezohikoa zelako". Azpimarratu dute, era berean, herriko merkataritzari balioa emateaz gain, "oñatiarren artean herrian kontsumitzearen inguruko kontzientzia piztu" nahi dutela bonuen egitasmo horrekin. "Ez bakarrik Oñatikoak direlako, baizik eta honek herriari bizitasuna, argitasuna, ematen diolako, giroa sortzen duelako. Kalitatezko enplegua ere sortzen da herritik bertatik, eta, horrez gain, aberastasuna, konfiantza

16 URTETIK GORAKO EKURATU DITZAKETE BONUAK, DENDETAN ZEIN INTERNET BIDEZ

eta aurrez aurreko kontaktuak egiten ere laguntzen duelako herriko merkataritzak, ostalaritzak eta zerbitzuak", Sozioekonomiako batzordeburu Xabier Igartuaren esanetan.

Abenduaren 3ra arte

Oñati.bonoak.eus plataforman bertan egongo dira zehaztuta non eskuratu ahaliko diren bonuak, eta bi modu egongo dira horretarako: zerrendan agertzen diren saltokietan eta Internet bidez.

Oraingoz, 30 inguru dira ekimenarekin bat egin duten herriko merkataria, baina kanpaina abian egonda ere izango dute batzeko aukera. Datorren azaroaren 30era arte izango dute herriarrek bonuak erosteko, eta iaz ere plataforma erabili zutenek erabiltzaile izen eta pasahitz berberak izango dituzte. Erositako bonuak saltokietan kontsumitzeko epea, bestalde, abenduaren 3an amaituko da.



Izaro Elorza alkatea eta Oihane Ruiz de Apodaka Berdintasun teknikaria. O.E.

Gazteendako ikastaroak ere bai aurten Jabetze Eskolan

Amatasunaren gaia landuko duen espazio egonkorra ere gehituko zaio ikastaroen eta solasaldien eskaintzari

O.E. OÑATI

Hamaika ikastaro, solasaldiak, espazio egonkorra eta 6 eta 25 urte arteko gazteendako propio sortutako saioak eskainiko ditu Jabetze Eskolak. Azken hori da, hain zuzen ere, aurten ikasturteko berritasun nagusia. "Gazteek beraiek eskatuta eta Berdintasun Saitetik horren beharra ikusita" antolatu dituzte saio horiek. Esaterako, neska gazteak oholtza gainean ahalduntzeaz berba egitera eta erakustera etorriko dira La Basu abeslaria, Maider Arregi bertsolaria eta Iraitx Agirre antro-

pologoa. Autodefentsa ziberfeminista izango da gazteendako egongo den bigarren ikastaroa.

Espazio egonkorrak, bestalde, pisu handiagoa izango du aurten. Amatasuna izango da landuko duten gaia eta hilean behin egingo dituzte saioak Euskaldun Berria gelan. Antolatutako gainerako ikastaroak zein hitzaldiak herriko hainbat espazio eta eraikinetan egingo dira. Ikastaroetarako aurrez eman beharko da izena; lehenengoa, zoru pelbikoa indartzeko tailerra, azaroaren hasieran izango da eta izen ematea zabalik dago.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

50 urte

50 urte dira familia batzuk elkartu zirela garun-paralisdun seme-alabentzako sare bat osatzeko. Garai hartan gogoratu behar dugu pertsona hauek etxean egotera kondenatuak zeudela, garuneko paralisia duten pertsonen mundua ahaztuta zegoen. Familiek zituzten beharrei aurre egiteko sortu zen ASPACE eta 50 urteren ondoren garun-paralisdun pertsonen oinarritzako behar eta eskubideak betetzen dituen zerbitzuak eskaintzen ditu. Hau guztia lortzeko bi pilare nagusi izan ditu elkarteak: familiak eta profesionalak. Familiok orain azpiegitura bat antolatuta dugun arren, egunero aurre egin behar diogu errealitateari, baina ASPACE sortzeko unean orduko familiek izan zuten indarra mirestekoa da. Profesionalei buruz, berriz, esan daitezkeen guztia gutxi dela iruditzen zait: beraien bizitza profesionala gure gizarteko kolektibo zaurgarriena eta gutxien ezagutzen dena zaintzera, laguntzera eta maitatzera bideratu dute, batzuetan haien familia bihurtuz. Esango nuke behar bereziak dituzten pertsonekin lan egiten duten profesionalak gizarte hau baino 50 urte aurretik doazela gizatasunean.

Hizkuntza-praktikak aldatzeko ekimena dator

Euskararen erabilera sustatzeko hiru proposamen egin gura dizkiete herritarrei Udaleko Euskara Sailak eta Euskaraldiaren herri batzordeak: hitanoan hitz egitea, saltokietan euskara erabiltzea eta umeen aurrean helduek euskaraz egitea

Oihana Elortza OÑATI

Aurten ez da Euskaraldirik egingo, baina, "hizkuntza-praktika egokiak lantzen jarraitzeko beharra" dagoela ikusita, *Euskarak 365 egun Oñatin. Pauso bat aurrera* izeneko ekimena ari dira antolatzen Udaleko Euskara Zerbitzua eta Oñatiko Euskaraldiko herri batzordea. Euskarazko praktikak sustatzea da helburua, "Euskaraldiak ekarritako ildo, filosofia eta arau sozialei jarraituz".

Hiru proposamen eskura

Ekimen honekin, "euskararen alde egotetik euskaraz egitera" jauzi egitea proposatuko diete ekimenaren bultzatzaileek oñatiarrei. Eta hiru proposamen eskainiko dizkiete praktika hori gauzatzeko: bat da hika praktikatzeko hamar eguneko erronka, batez ere gazteei eta emakumezkoiei zuzenduta; beste bat da herriko establezimenduetan salerosketak egiterakoan euskara erabiltzea; eta hirugarrena, umeei harreman zuzena duten helduen artean hizkuntza praktika eredugarriak sustatzea.

Aste honetan egin dute ekimen honen aurkezpena, eta herritarrek gonbidatu nahi dituzte parte hartu eta sare bat osatzera. Eskatzen zaiena da hiru



Duela bi urte egin zen Euskaraldian, banderatoa jartzen. O.E.

egoera hauetako batean egonda euskara erabiltzea eta bestelakoetan ere hizkuntza praktikak euskarara aldatzea.

Azaroan eta abenduan

Ekimen honek Euskaraldiak berak baino dimentsio txikiagoa izan arren, parte-hartzaile zabalago batengana iritsi gura dute, eta guztiei eskaini aukera ariketa ingurune babestu eta erosoan egiteko. Egunei dago-kenez, Euskaraldiaren orain arteko funtzionamenduari jarraituz, azaroaren 25etik aben-

duaren 5era bitartean gauzatu-ko dira. "Hitanoa erabiltzeko, adibidez, egun horietan jarriko da indar berezia. Baita herriko komertzioetan euskara erabiltzeko ekimena ere. Umeen aurrean euskara egiteko ohitura-rena, aldiz, luzatu egin daitekeen proposamen bat da. Ikastetxe-kin batera landu gura dugu", azaldu du Udaleko Euskara teknikariak, Xabier Zabaletak.

Proposamenetako bat aukeratu eta aurrera eramateko izenik ez da eman behar, bakoitzaren konpromisoa izango da.



Herritar bat leihatila digitalean zinemarako sarrerak erosten. A.T.

Egubakoitzetako zinema emanaldiak, jatorrizko bertsioan

Euskarazko azpiztituluei lehentasuna emanda eta bertsio originalean ematen hasiko dira filmak, gaurtik aurrera

Amaia Txintxurreta OÑATI

Hemendik aurrera, aukera izango da Oñatiko zineman film komertzialak jatorrizko bertsioan ikusteko. Egubakoitzetan izango da hori, eta, hain zuzen, Kultura batzordean landu dute. Izan ere, batzordetik adierazi dute euskarari "dagokion tokia" eskaini nahi diotela aurrerantzean pelikula eskaintzean, eta haxe adierazi dute: "Euskarazko pelikula proiektatzeaz aparte, euskara bera izango da azpiztituluetan lehentasuna izango duen hizkuntza. Tamalez, pelikula guztiek ez dute aukera hori eskaintzen, eta horrela izan dadin eta gure zinema aretoetan aukera hori izan dezagun lanean jarraitu behar dugu".

Asteburuan, esaterako, Paul Verhoeven zuzendariaren *Benedetta* film frantziarra emango dute, eta gaur, jatorrizko bertsioan eskainiko dute.

Zinekluba ere martxan da

Zineklubeko emanaldiak jatorrizko bertsioan eman ohi dira aspalditik, eta horrela jarraituko dute denboraldi honetan ere, eguenero-eguenoro. Esaterako, datorren egunean, *Gaza mon amour* pelikula palestinarra ikusi ahal izango da. Eta hilaren 28an, *Summer of soul* film estatubatuarra emango dute.

Ikus-entzule kopurua

Hirutek enpresako Joxi Alonsok datu batzuk eman ditu: 2018an, 10.000 ikus-entzule izan ziren Oñatiko zineman; 2019an, ia 15.000; 2020an, pandemian, 8.800era jaitsi zen, baina orokorrean hala gertatu da gainontzeko herrietan ere; eta orain espero dute ikus-entzule kopuru hori igotzea. Azkenaldian Oñatin arrakasta gehien izan duen filma Aitor Arregiren *Handia* izan da, 1.600 ikus-entzuleekin.

Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Ettxekoekin babesean egin zituen Olalde azken metroak Araian. LARTAUN ITURBE



Nerea Otxoa arrasatearra. N.O

Hiru Haundietan egindako lan onari atsedena zor zaio

MENDI LASTERKETAK Hiru Haundietan protagonista izan dira Igor Olalde —laugarren gizonezkoetan— eta Nerea Otxoa —zortzigarren emakumezkoetan—. Olalde saiatu da Aloñako Igoerarako errekupe ratzen, baina gorputzak ezetz esan dio

Xabier Urzelai ARRASATE

Igor Olalde aretxabaletarra eta Nerea Otxoa arrasatearra Hiru Haundiak lasterketan onenen artean izan dira. Lehenengoa podiumera igotzeko lehian ibili zen (12.02.56): "Lehenengo sailkatua [Julen Martinez de Estibariz] beste maila batean zegoen. 50 minutu pasatzoko tarte atera zidan, baina gaintzekoak koska berean geunden; halakoetan, detaile txikiak izaten dira erabakigarriak. Lasterketa amaitu eta egunetara pena apur bat ematen du podiumetik horren gertu gera-

tu izanak, baina oso kontziente naiz atzetik bosgarren eta seigarren sailkatu zirenek ere gauza bera esan dezaketela. Oso pozik nago egindako lanarekin", adierazi dio aste barruan Olalde GOIENARI.

Nerea Otxoak ere gozatua hartu zuen egubakoitz gauerditik zapatara bitartean (18.18.11). "Hasieratik indartsu ikusi nuen neure burua eta lasterketako tarte guztietan ondo ibili nintzen. Hasieran pasatu nuen txarto, Gorbeian geundela, frontala bateriarik gabe gelditu zitzaidan eta Otxandioraino argi barik

egin behar izan nuen... Orduan, jaitsiera nahiko arriskutsua izan zen eta oso gaizki pasatu nuen. Ez nuen ezer ikusten! Atzekoek frontalekin argizatzen zuten zerbait, baina ez duzu berdin ikusten. Unean, beraz, haserretu egiten zara eta urduritasuna ere sartzen zaizu. Gero, buelta ematea lortu nuen".


Bikain prestatu barik

Debagoieneko bi mendi lasterkariet aurtortu dute proba ezin izan dutela bereziki prestatu, eta hor hobetzeko tarte handia dute oraindik. "Bigarren urtea

da egiten dudana, eta aurtengoa aurrekoa baino gutxiago prestatu dut", dio Olalde. "Udan ez nuen garbi lasterketa egingo nuen ala ez, eta hilabete baten faltan prestatzaile fisikoekin egon nintzen, eta haiek proposatutako entrenamenduak bete ditut denbora tarte horretan. Bolumena landu ordez kalitatezko lan-saioak egin ditut, eta ondo irten da apustua. Baina lasterketaren azken zatian freskoago egoteko udan bolumena gehiago landu beharko nukeen. Baina denbora gutxian oso lan ona egin dut".

Otxoaren kasuan ere entrenamendua ez da nahi modukoa izan. "Halakoetan beti esan ohi dut: bi aste gehiago izango banitu... Inoiz ez da nahikoa, baina prestaketari ere ezin zaio eskaini horrenbeste denbora. Asteazken zehar gutxi entrenatzen naiz eta asteburuetan lan-saio luzeagoak egiten ditut. Niri gehiago entrenatzea gustatuko litzaidake, baina...".

Hala, bi protagonista horietako bakarra izango da domekan Oñatin, baina ez du dortsalik jantziko. "Eguazten eguerdian joan nintzen korrika apur bat egitera; etxekoek esaten zidaten atsedean hartzeko, baina probatu egin gura nuen. Segituan konturatu nintzen ezetz, tarte batean ez dudala lasterketarik egingo. Bada, dortsala etxean utzi eta lagunak animatzera joango naiz Aloñara". Otxoak, berriz, ez zuen izen-ematerik bete Oñatiko lasterketarako: "Pena hori dut; izan ere, urteren baten Aloñako Igoera gustura egingo nuke, oso erreferentzia onak ditudalako, sekulako inbidia ematen dit. Baina gogo onez hartuko dut atsedean", dio, barrezka.



GOIENA

"Ez dago Aloña modukorik"

IGOR OLALDE MENDI LASTERKARIA

Aloñako Igoerara joateko asmorik?

Lagunak animatzera joango naiz gustura. Eguaztenean korrika egitera joan nintzen, eta berehala konturatu nintzen ez nagoela dortsal bat jantzeko moduan. Pena ematen dit, maratoi erdiko distantzian Aloñako Igoera lasterketan artean lasterketa delako.

Denbora behar da Hiru Haundietatik errekupe ratzeko.

Bai, jasotako astindutik errekupe ratzeko denbora beharko dut, tarte baterako amaitu dira lasterketak. **Oñatin proba txukunak egin izan dituzu.** Proba kuttunena da niretako. Ibilbideagatik, egoten den giroagatik, antolatzaileengatik... Hainbatetan izan naiz, baina 2017an gozatu nuen gehien, 9. izan nintzen.

Domekan egingo dute Aloñako Igoera, puntako korrikalariekin

MENDI LASTERKETA Urtebeteko etenaren ondoren, Euskal Herriko lasterkari onentsuenak batuko dira Oñatin

X.U. OÑATI

Pandemiagatik birritan atzeratu dute data, baina, azkenean, oraingo domekan egingo dute Aloñako Igoera. Eta hori da berriarik nabarmenena; alegia, lasterketa egin ahal izango du-

tela. Izan ere, 2020an moduan, 2021ean kirol hitzordu nabarmenak bertan behera geratu dira, salbuespenak salbuespen —Oñatiko duatloia edota Aramaioko rallysprinta, esaterako— eta, zailtasun guztien aurretik

eta dortsaleetako asko aspaldi saldu eta gero, domekan 350 lagun batuko dira irteera puntuan —horietatik 140 debagoiendarrak dira, eta oñatiarrak 75—.

Ohiko orduan, 09:00etan, irtegera dira korrikalariak Foruen plazatik, 22 kilometroko lasterketa egiteko gertu. Lasterketa hasi aurretik, baina, otsailean hil zen Gary Baños omenduko dute. "Iñigo Guridi Kalibre moduan, Gary ere beti egon da laguntzen", adierazi zuten antolatzaileek aurkezpenean.



Aloñako Igoerako azken irabazle Walter Becerra, helmugan (2019). GOIENA



Ibilbidea korrika egin zuen kooperatibista talde bat helmugan, 2019ko edizioan. GOIENA

'Eman pausoa' lelopean, lasterketa solidarioa etzi

ATLETISMOA Pandemiagatik 2020an egin barik geratu ostean, bueltan da Mundukidek antolatzen duen kooperatiben arteko lasterketa solidarioa. Domekan izango da, Urkulun, Aretxabaletan, eta gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna

X.U. ARETXABALETA

"Ikusita gure gizartean pandemiaren ondorioz zer-nolako sufrimendua izan dugun, komeni da kontzientzia hartzea, eta jakitea munduko beste leku batzuetan bizitza osoan sufritzen dituztela halako egoerak. Hau da, egunero ibiltzen dira gaitasunei aurre egin ezinka, ez pandemia garaian bakarrik, eta ezin dugu ahaztu bestelako gabezia asko dituztela", adierazi zuen Mundukideko kide Urri Urizarrek lasterketaren aurkezpenean.

Izan ere, domekan egingo duten lasterketan bildutako dirua Mundukidek Afrikan eta Hego Amerikan bultzatzen dituen programa sozioekonomikoak garatzeko erabiliko da: "Inportantea delako munduko ipar hemisferioan jaio izanagatik ditugun pribilegioez kontzientzia hartzea eta solidarioa izatea".

Izen-ematea, gaur

Gaur, hilak 15, da domekako lasterketan izena emateko azken eguna (mundukide.org). Dortsalaren prezioa 15 eurokoa da; ikasleek bost euro ordaindu

beharko dute. Eta inguruko kooperatiba guztietako bazkideak daude gonbidatuta proban parte hartzera: "Egun-pasa polita izaten da, eta balio du Mundukidek egiten duen lana gertuagotik ezagutzeko", adierazi zuen Copreciko langile Lourdes Larrañagak.

Hain zuzen ere, hiru modu daude proban parte hartzeko, Urkuluko urtegiari buelta emateko: hiru bazkidez osatutako taldetan korrika egitea (11:00), ibilketa nordiko eran egitea (10:30) edo oinez (10:30).

"BESTE LURRALDE BATZUETAN BIZI OSOAN DAUDE PANDEMIAN"

URRI URIZARX, MUNDUKIDE

"EGUN POLITA DA MUNDUKIDEREN LANA GERTUAGOTIK EZAGUTZEKO"

LOURDES LARRAÑAGA, COPRECI

DEBAGOIENeko

PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Fax: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Komedia bi aukeran: berdea eta musikatua

Txalo Produksioak-ek 'Kottauak' antzezlan estrena du gaur, egubakoitza, Bergarako Seminarixoa, 19:00etan, eta Tanttaka konpainiak 'Ameriketako bidaia' izeneko musika ikuskizuna egingo du domekan, Amaia antzokian, 19:30ean

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Mikel Laskurain eta Ane Gabarain dira gaur, egubakoitza, Bergarako Seminarixoa estreinatuko duten *Kottauak* antzezlaneko protagonistak. Azkenaldian elkarrekin egin dituzten beste lanetan moduan, oraingoan ere bikote paperean sartuta. "Bederatzi urteko harremana du bikote horrek eta hamalau hilabeteko sexu-lehortea ere bai. Euren arteko arazoak dituzte; bakoitzak bere arazo psikologikoak eta traumak ditu, eta bata besteari botatzen dio kulpak. Lezon egin genuen aurrestrenaldia orain dela bi aste eta asteburuan egin ditugu azken entseguak, eta gogotsu gaude gaurko estreinaldirako. Ane eta biok oso ondo konpontzen gara, besteak beste, izaeran, antzerako samarrak gara eta", azaldu du Bergarako Mikel Laskurain aktoreak.

Ameriketako Estatu Batuetara ikasturtea egitera doazen bi neska gazteren azalean sartuko dira, berriz, Miren Arrieta eta Nerea Mazo domekan Amaia antzokian eskainiko duten *Ameriketako bidaia* ikuskizunean. "Aireportuan ezagutu dute elkar, eta abiapuntu moduan ikusten dugu aurreiritzi oso markatuak eta kontrajarriak dituztela ame-



Nerea Mazo eta Miren Arrieta *Ameriketako bidaia* laneko une batean. MIKEL BLASCO

rikarrei buruz. Nik antzezten dudana Mariarentzako, amerikarrak yankiak dira, berekoiak, kontsumistak, burbuila baten bizi direnak... Eta Jonek, berriz, film amerikarren irudia du buruan; hau da, institutueta dantzaldiak eta kontu horiek guztiak, baina, istorioak aurrera egin ahala, biziko duten abentura txiki baten eraginez—euren lehen aste amerikarra ez da eta oso gozosa izango—, dituzten aurreiritziak aldatu egingo direla ikusiko duzue. Ezagutzen ez ditugun herrialdeekiko edo he-

rrialde horretako biztanleekiko aurreiritzirik ez izatearen garrantzia nabarmentzen dugu, eta, era berean, oinarrian komedia bada ere, istorioan oso presente daude gaur egungo hainbat gai gordin, esaterako, Hego Amerikatik Ipar Amerikara doazen immigranteen egoera", dio Miren Arrietak.

"Txortaldi bateko ikusle"

Anthony Neilson Eskoziako antzerkigilearen testuan oinarrituta moldatu du Getari Etxegaraik gidoia eta berak zuzendu

du *Kottauak* gero. "Drama apur bat du, baina, oinarrian, komedia da", dio Laskurainek, eta zera gaineratu du: "Arazoa konpontzeko asmotan, terapia moduan, agertoki batera igo eta jendaurrean, publikoaren aurrean, txortan egitea erabakitzen dute. Istorioak aurrera egin ahala azalduko dira nondik datozen traumak eta zelakoa zen lehen euren arteko bikote-harremana. Berde samarra da, bai, baina lasai, zuri samarra ere bai. Eszenografia xumea da, 60ko hamarkadako dekorazioa duen etxeko sala bat irudikatu dugu".

Musika, osagaien artean

Getxon estreinatu zuten, urtarilean, Bilboko Arriagan eskaini zuten, gero, eta, geldialdi baten ondoren, Tolosan abiatuko dute, gaur, *Ameriketako bidaia*-ren bira. Ez da musikal bat, nahiz eta musikak bere pisua duela gaineratu duen Arrietak. "Kantatu, dantzatu eta pianoa eta gitarra jotzen ditugu. Eszenografia sinplea da: aireportua da dekoratu nagusia, baina beste espazio batzuetara ere eramango ditugu ikusleak, eta hori argi-jokoen eta proiektzioen bidez egiten dugu. Berezik, 12 eta 14 urte bitarteko publikoarendako eskaintza zen, hasiera baten, genuen asmoa, baina orain arte eskainitako emanaldietan denetariko publikoa batu dela ikusi dugu; erretiratu asko horien artean, eta horiek ere ederto pasatu dute".

HELDUENTZAKO BI ANTZEZLAN IZANGO DIRA BERGARAN ETA ARRASATEN IKUSGAI, HURRENEZ HURREN

Patxo Telleriak idatzi du gidoia, Mireia Gabilondo bergararrak zuzendu du eta Vito Rodrigo izan dute zuzendari laguntzaile lanetan. "Familiakoa modukoa da Mireia niretzako, txikitatik ezagutzen dut, aktore lanetan hasi aurretik, eta hala da Nerearentzako ere. Asko miresten dut aktore moduan eta asko gozatzen dut berak zuzentzen gaituenean. ETBko *Goazen!* telesailan ezagutu genuen elkar Nereak eta biok, eta oso ondo konpontzen gara harrezkero. Guretako sekulako eskola eta sekulako esperientzia aberasgarria izan zen *Goazen!*".

Normaltasunerako "gogotsu"

Tanttakaren *Utzi zure mezua seinalearen ondoren* antzezlanarekin ere ari da Arrieta, eta, osasun krisiaren eraginak bizi izan baditu ere, "zorteduna" sentitzen da. "Egia esan, ezin naiz kexatu, baina aitortu behar dut sekulako poza hartu nuela murrizketa neurriak bertan behera utzi zituztenean. Pozarren ikusi nuen aretoetako eserleketan hilabeteetan izan diren zintak kendu zituztela".

Bide beretik erantzun du Laskurainek: "Oso arraro ikusten ziren eserlekuak agertoki gaitetik: zinta batekin estalita, batzuetan; eta eserlekuak kenduta, beste batzuetan. Desatsegina zen. Ea, bada, pandemia garaian publikoak erakutsi duen kulturarekiko gosea erakusten duen aurrerantzean ere".

'SEMINARIXOA.EUS' ETA 'ARRASATE.EUS' ATARIETAN ETA LEIHATILETAN EROS DAITEZKE SARRERAK

GOIENA TELEBISTA
SASOI BERRIA



BESTELAKO
OLATUA!

BIXI IBILI!

EGUENERO, 21:30EAN ETA 23:30EAN
AITOR AGIRIANOK AURKEZTUTAKO
UMOREZKO SAIOA



Bixi Ibili! saioa
nahieran.

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko etxebizitza bila dabilen bikote arduratsu bat gara. Ahal bada, erdigunean. Deitu 680 87 38 66 telefono zenbakira.

Bergara. Errentan hartzeko etxe bila nabil. Harremanetarako telefono zenbakia: 645 72 92 87

Bergara. Laster guraso izango garen bikote bat gara. Denboraldi luzerako etxebizitza errentan hartu nahiko genuke. Eskerrik asko! Deitu 605 74 78 29 edo 608 44 04 82 telefono zenbakira.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Ume zaintzaile bila. Kaixo, gure bi ume txikiak zaintzeko pertsona baten bila gabilizta. Interesik baduzu, edo norbait eza gutzen baduzu, mesedez, deitu zenbaki honetara: 635 00 68 84 (Amaia)

402. ESKAERAK

Antzuola, Bergara edo Arrasate. Etxeak garbitzen edo bestelako garbiketa lanetan jardungo nuke. Harremanetarako telefono zenbakia: 632 48 72 30

Arrasate eta inguruak. Adineko pertsonak zaintzen eta etxeko lanak egiten lan egin nahi dut. Soziosanitario titulua eta esperientzia dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 85 44 78

Arrasate. Astean zehar arratsaldetan nagusiak edo menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulazioarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 66 20 71

Arrasate. Nagusiak zaintzen esperientzia daukan emakumea egunean zehar lan egiteko gertu. Legezko agiri guztiak eguneratuta dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 48 38 91

Arrasate. Neska ardurasua gertu orduka eta gauetan lan egiteko. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak dauzkat. 680 87 38 66

Bergara edo Oñati. As-teburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 602 01 32 58

Bergara. 18 urteko neska euskalduna, unibertsitateko ikaslea, arratsal-

detan umeak zaintzeko gertu. 643 54 98 23

Bergara. 20 urteko neska bergararra, arratsalde umeak zaintzeko prest. Begirale titulua daukat. 676 83 55 68

Bergara. Beharrezko agiriak eta esperientzia duen neska arduraduna lan bila, etxean bizi izaten edo orduka, adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 631 79 81 56

Bergara. Emakumea hainbat lan mota egiteko gertu: etxeko garbiketa lanak, nagusien eta umeen zaintza eta abar. 688 78 88 40

Bergara. Lanean hasteko prest nago garbiketan, banatzaile edota zaintza lanetan. Nagusiei kalera lagundu, medikuarenera edo errektuak egiten eta abar. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 72 92 87

Bergara. Mutil gaztea asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Paseatzeko edo etxean egoteko. Harremanetarako telefono zenbakia: 631 94 25 11

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketarako egiteko. Orduka, asteburuetan, egunez, gauetz... Legezko agiriak eta titulua ditut. Telefonoa: 666 07 42 98

Bergara. Goizetan haurrak ikastolara/eskolara eramateko prest nago. Bergaran bizi naiz eta aurtan amaitu ditut nire Lehen Hezkuntzako ikasketak. Autoa ere badut. Ordu-tegi malguta eta egun soltetan ere lan egiteko prest. 688 84 99 79 edo 610 49 43 48

Debagoiena. Asteburuetan edo gauetan zaintza lanak egiteko gertu nago. Soziosanitario titulua-ekin. 659 90 85 13

Debagoiena. Emakume arduratsua naiz eta pres-tutasun osoa daukat zaintza lanetan eta garbiketa lanetan jarduteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 93 11 90

Debagoiena. Emakumea garbiketa lanak eta nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 07 42 98

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo gauetan pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 633 49 27 40

Debagoiena. Gauetz etxean edo ospitalean nagusiak zainduko nituzke. Dokumentuak egunean ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 31 48 17.

Debagoiena. Gizonezko marokoarra baserriko lanetan edo eraikuntzan lan egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 75 61 18

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko eta denetarik garbiketarako egiteko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 98 39 36

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 55 67 35

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketan, etxeko lanak egiten, lisatzen edota janaria prestatzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 641 44 16 30

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago orduka eta baita gauetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 25 79 96

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egingo nuke orduka, egunean zehar zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 33 18 29

Debagoiena. Nagusiak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Orduka edo egun osoz. Soziosanitario titulazioa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 691 28 53 25

Debagoiena. Neska arduratsua nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 09 46 89

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko gertu nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 84 19 51

Debagoiena. Zaintza edota garbiketa lanetan jarduteko prest dagoen gaztea naiz. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 37 17 30

Eskoriatza. Lehen Hezkuntzako magistreritza

egiten ari den neska euskalduna naiz. Haurrak zaintzeko edo beste lan mota bat egiteko prest nago Eskoriatzan. Goizetan klaseak ditudanez, eguerdi-arratsalde aldera izango litzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 43 38 96

Haurrak zaindu. Goiz edo arratsaldetan haurrak zaintzeko prest nago. Bergaran bizi naiz, 21 urte ditut eta aurtan amaitu ditut Lehen Hezkuntzako ikasketak. Esperientzia daukat haurrak zaintzen eta ordutegiaren aldetik, malgutasuna daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 84 99 79

Umeak zainduko nituzke Debagoienera. Mon-dragon Unibertsitatean magistreritzako azken urtea kurtsatzen nagoen neska bergararra naiz. Astean zehar, goizetan, lan egiteko prest nago. Haurrekin esperientzia dut eta oso arduratsua naiz. Gidabaimena ere badut

eta horren ondorioz, nire herria izan ez arren, bertara joateko aukera izango nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 50 82 13

Zaintza lanak. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke arratsaldetan edota asteburuetan. Autoa daukat eta baita legezko agiriak ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 98 15 50

Zerbitzaria Oñatin. Tabernaren batean zerbitzari moduan lan egingo nuke. Esperientzia duen neska euskalduna naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671 55 52 67

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Eskola partikularrak Arrasaten. Pertsona bat behar dugu 6. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 76 57 98

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata, edota kolpearekin. 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Txakur txiki bat desagertuta Oñatin. Lezesarri auzoan txakur txiki bat desagertu da. Zuria eta marroja da eta 'Lagun' izena dauka. Ikusi baduzu, deitu telefono zenbaki honetara mesedez: 943 78 24 39

8. DENETARIK

801. SALDU

Korrika egiteko zinta. Korrika egiteko zinta sal-tzen da. Urtebete dauka, tolesgarria da eta zaratarik ez ateratzeko alfonbratuoa du. Domyos T540C modeloa. 635 70 20 74

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'JARDUERA ARMATUAREN AMAIERATIK, 10 URTE'

'Erreportaje berezia' Egunean, 21:00 eta 23:00



GOIENA

LA EXCAVADORA TALDEAREN KONTZERTUA

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 23:00

EGUBAKOITZA, 15	ZAPATUA, 16	DOMEKA, 17
09:00 Bixi ibili! 09:30 Hemen da Miru 10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Parke txak Bizi: Iturraran 11:30 Elkarriketap: Hedoi Etxarte 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Hemen da Miru 49 13:30 Elkarriketap: Hedoi Etxarte 14:00 Albisteak 14:30 Bixi ibili! 15:00 Albisteak 15:30 Parke txak Bizi: Iturraran 16:00 Albisteak 16:30 Bixi ibili! 17:00 Albisteak 17:30 Elkarriketap: Hedoi Etxarte 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Elkarriketap: Hedoi Etxarte 19:30 Bixi ibili! 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Bixi ibili! 21:30 Parke txak Bizi: Iturraran	08:00 Elkarriketap: Hedoi Etxarte 08:30 Hemen da Miru 50 09:00 Bixi ibili! 09:30 Hemen Debagoiena 10:30 Parke txak Bizi: Iturraran 11:00 Asteko errepasoa 12:00 Kooltur: La Excavadora 13:00 Hemen Debagoiena 14:00 Bixi ibili! 15:00 Parke txak Bizi: Iturraran 15:30 Asteko errepasoa 16:30 Hemen Debagoiena 17:30 Kooltur: La Excavadora 18:30 Bixi ibili! 19:00 Hemen Debagoiena 20:00 Asteko errepasoa 21:00 Kooltur: La Excavadora 22:00 Asteko errepasoa 23:00 Hemen Debagoiena 23:30 Bixi ibili!	08:00 Hemen da Miru 52 08:30 Hemen da Miru 51 09:00 Hemen da Miru 49 09:30 Bixi ibili! 10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Parke txak Bizi: Iturraran 11:30 Kooltur: La Excavadora 12:30 Elkarriketap: Hedoi Etxarte 13:00 Bixi ibili! 14:00 Parke txak Bizi: Iturraran 14:30 Hemen Debagoiena 15:30 Asteko errepasoa 16:30 Hemen Debagoiena 17:30 Bixi ibili! 18:30 Asteko errepasoa 19:30 Elkarriketap: Hedoi Etxarte 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Kooltur: La Excavadora 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Bixi ibili! 23:30 Asteko errepasoa

EGUBAKOITZA, 15

AINARA URRUTIA, 'LUZAPENA' TARTEAN

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

ASTELEHENA, 18

ALOÑAKO IGOERAREN LABURPEN ZABALA

'Harmailatik'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/televista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 20



GOIENA

AGUXTIN ALKHATI ELKARRIZKETA

'Elkarriketap'

19:30

EGUENA, 21

HERRIEN ARTEKO TRIBIAL-PIKEA

'Bixi ibili!'

21:30/23:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

URTEURRENA



Fernando Azkarate Agirrezabal



2020ko urriaren 8an hil zen, 92 urte zituela.

Zuk erakutsitako bidetik goaz, irribarrez, maitatuz, aurrera eginez. Gurekin zaude!

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko. Bergaran-Antzuolan, 2021eko urriaren 15ean.

URTEURRENA



Jesus Igarza Iñarra



2020ko abuztuaren 6an hil zen, 84 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Beti eramango zaitugu bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko urriaren 15ean.

URTEURRENA



Maria Murguzur Beristain



Jesus Urbietaren alarguna

2020ko urriaren 11n hil zen, 95 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 17an, 12:00etan, Osintxuko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, familiakoen izenean. Bergaran (Osintxu), 2021eko urriaren 15ean.

OROIGARRIA



Jose Antonio Zendegi Martinez



2021eko urriaren 12an hil zen, 64 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Altos Hornoseko lagunak. Bergaran, 2021eko urriaren 15ean.

OROIGARRIA



Jose Antonio Zendegi Martinez



Tio, ekin ta ekin bilatu izan duzu bizitzeko grina. Eta saiatze hortan ezin gelditu, beti izan zara bizitzako bidean guretako etengabeko argia. Mila esker irakaspen guztiengatik. Maite zaitugu pila.

Aitor eta Nuria, Iker eta Ane, Ana, Maria, Sara, Maitane eta Alazne. Bergaran, 2021eko urriaren 15ean.

OROIGARRIA



Puri Etxeberria Sagasta



1943-01-30 / 2021-10-13

Gure bihotzean eramango zaitugu.

Etxeberriatar ilobak. Bergaran, 2021eko urriaren 15ean.

OROIGARRIA



Juan Mari Urrutia Isasmendi



2021eko urriaren 13an hil zen, 66 urte zituela.

Juan Mari lagun zintzoa gurekin egoten jarraituko duk gure ibilbidean.

Hire lagunak: Mikel, Koldo, Felix eta Jabier. Aretxabaletan, 2021eko urriaren 15ean.

OROIGARRIA



Juan Angel Fernandez Lopez



2020ko urriaren 16an hil zen, 62 urte zituela.

Ai zelako irriparra, zu zara gure iparra, gidatzen gaituen izarra!

Horrenbeste maite zaitxugu... ezin dala gehixau maite (Naia, Aner, Ionetxo).

Etxekoak. Arrasaten, 2021eko urriaren 15ean.

ESKER ONA



Jose Mari Etxeberria Sagasta



1949-07-18 / 2021-10-05

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021ko urriaren 15ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 15 FERNANDEZ: Musakola 11 7943 79 22 26
Zapatua, 16 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 17 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 18 ESPANOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Martitzena, 19 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 943 79 14 09
Eguaztena, 20 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 943 79 14 09
Eguena, 21 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 15 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 16 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 17 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 18 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 19 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 20 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 21 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74
ONATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 15 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 16 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 17 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 18 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 19 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 20 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 21 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
Urte bukatu arte:
ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
Urte bukatu arte:
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKER ONA



Nicolas Ugarte Umerez



2021eko urriaren 3an hil zen, 79 urte zituela.

Emaztea: Pilar Madinagoitia. Seme-alabak: Igone eta Agustin Urzelai, Arantzazu. Bilobak: Maialen, Uxue, Bittor, Henar. Anai-arrebak: Juanita eta Jose M. Cortabarria(†), M. Luz eta Jose M. Alcelay(†), M. Dolores eta Jose M. Inurritegui(†), Amparo eta Antonio Campos(†), Jose M. eta Arantxa Zubia, Angela Madinagoitia(†), Pedro Madinagoitia eta M. Luisa Alzelai, Pepi Madinagoitia eta Jose Luis Zabala(†), Juanita Madinagoitia eta Eugenio Garcia. Illobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Oroilore**
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzun konfiantzazatik eta maitasunazatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



TXUTXU-MUTXUAK

**1. Bederatzigarren irteera**

Begarako hamazazpi pertsonak parte hartu zuten ibilaldian. Usondoko zuhaitzei eta Monzonen historiari buruzkoak entzun zituzten, adi-adi.

2. 51 urte ezkontuta

Inazio Zubia eta Maribel Elorza oñatiarrek urriaren 11n bete zuten urtemuga. "Iaz ezin izan genuen ospatu. Besarkada bana, seme-alaben eta biloben partetik".

**3. Zilarrezko ezteiak**

Dorleta Agiriano eta Joxe Elorza eskoriatzarrek 25 urte bete dituzte ezkontuta. "Etxekoen partetik, zorionak! Eta hurrengo 25ak ikus ditzagula".

**4. Irailaren 30ean ezkondu ziren**

Ainhoa eta Aiert bergararrak irailaren 30ean ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Segi zoriontsu izaten, orain arte moduan. Besarkada bana".

**5. Urrezko ezteiak**


Marieli Irizar eta Miguel Larrañaga oñatiarrek urriaren 11n bete zuten urtemuga. "Zapatuan ospatuko dugu familian. Musu eta besarkada pila, familiaren partetik. Zorionak, bikote!".

**6. Bihar ezkonduko dira**

Ana Salaberri eta Iñaki Etxeberria arrasatearrek etxekoekin eta lagunekin ospatuko dute. "Heldu da eguna! Desiratzen gaude zuekin ospatzeko. Gora zuek!".

**7. Urriaren 9an ezkondu ziren**

Joana Elorza eta Jon Sagastizabal oñatiarrek zapatuan ospatu zuten. "Zorionak! Segi zoriontsu izaten eta une horiek gurekin partekatzen. Maite zaituztegu".



ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




ONATI
Aiert Marko Guridi
Urriaren 20an, 8 urte. Zorionak, Aiert!
Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo eta besarkada handi bat etxekuon, eta bereziki, Mirenen eta Eñauten partetik!



BERGARA
Ur Bengoa Olabide
Urriaren 17an, 6 urte. Zorionak, Ur!
Segi oin arte bezela, jator eta alai!
Patxo potolo bat etxeko danen partetik!



ONATI
Gabriel Kortabarria Ali
Urriaren 15ean, 7 urte. Zorionak, maitea, zure familiaren partetik!
Ondo-ondo pasatu zure eguna. Pa!



ELGETA
Lili Arantzabal Larrañaga
Urriaren 15ean, 9 urte. Elgeta eta Bergarako familiaren partetik, zorionak eta urte askotarako!
Ondo-ondo ospatu eguna.



ARETXABALETA
Irati Romero Sanchez
Urriaren 11n, 4 urte. Zorionak, Irati!



ARETXABALETA
Alaitz Irizar Akizu
Urriaren 11n, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Konturatu orduko urtetxua ein dozu, txapeldun! Ondo ospatu eta besarkada handi bat, Julenen eta etxeko danon partetik!




BERGARA
Hodei Maiztegi Uribealgo
Urriaren 10ean, 9 urte. Zorionak, maitia! Topera disfrutatu zure bederatzi urtiak. Muxu handi-handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
Haizea Ayastuy Markina
Urriaren 9an, 12 urte. Zorionak, politt hori! Topera disfrutatu zure eguna! Maitte zaittugun guztion partetik.




ARRASATE
Eider Abarrategi Garay
Urriaren 9an, 17 urte. Zorionak, Eider! 17 urte! Neska alaia, jatorra, maitakorra... zara! Jarraitu horrelakoa izaten! Ondo-ondo ospatu zure eguna, "familia" osoaren partetik. Muxu handi bat zuretzat bihotz-bihotzez!



ARRASATE
Izar Carmona Iñurrategi
Urriaren 8an, 24 urte. Zorionak, Jorge! Zeruian edo itsasoan izarrak ditugu, baina zortekoak gu bat alboan dugulako! Ondo pasau, pasau barik!



ESKORIATZA
Eñaut Etxebarrieta Altuna
Urriaren 5ean, 18 urte. Zorionak, mutil! Ondo-ondo ospatu zure eguna, familia osoaren partetik. Muxuak eta besarkada potolo bat.



BERGARA
Jennifer Caballero Garcia
Urriaren 4an, 20 urte. Jakin nahi dut bihurtzen ari zaren emakumea amestu baino askoz hobea dela. Zorionak maite zaittugunon partetik.



ARRASATE
June Garitaonandia Vecino
Urriaren 18an, 2 urte. Zorionak, June! Ondo pasatu zure urtebetetzea! Muxu handi bat familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Ekain Garro Larrañaga
Urriaren 21ean, 6 urte. Zorionak, artista! Muxu handi bat familia osoaren partetik!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 15

ANTZUOLA EH Bilduren batzar orokorra

Herri zein nazio mailan EH Bilduren egoeraz eta jardunaz hausnartzeko. *Torresoroan, 17:30ean.*

ARRASATE 'Mala xena nunca muere' erakusketa, domeka arte

Benito Piriz, Ainhoa Lekerika eta Ander Perez artisten lanak ikusteko azken egunak. *Kulturaten, 17:30ean.*

ARAMAIO Bertso saioa

Joanes Illarregi eta Haizea Arana, bertsotan. *Parkean, 19:00etan.*

BERGARA 'Kottauak' antzezlan

Txaloren eskutik. Ane Gabarain eta Mikel Laskurain oholtza gainean. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Herriaren Hauspoa' dokumentala

UDAre 75. urteurrenaren harira egindako lana. *Arkupen, 19:30ean.*

BERGARA Rap jaialdia

K-Po, HRT, Raperu eta Uki Selekta egongo dira. *Arrano tabernan, 23:00etan.*

ZAPATUA 16

ARRASATE Baserritarren azoka
Sagarra izango da protagonista. *Seber Altube plazan, 09:00etan.*

OÑATI 'Aitzondoko urak eta elur-zuloa' bisita gidatua
Ibailagun jardunaldien baitan. *San Martingo aparkalekuan, 09:00etan.*

BERGARA Erreka garbiketa
Labegaraietan, Osintxun eta Seminarioko patioan elkartuko dira. *Bergaran, 09:30ean.*

ARETXABALETA Ibilgailu klasikoen topaketa
09:30ean, harrera; 11:30ean, ibilbidea; 11:45ean, trialsin



POU ANAIAK

ANTZUOLA 'Bizitza osoa, sokada batean' ikus-entzunezkoa
Mendi-gidariak, eskalatzaileak eta alpinistak dira Iker eta Eneko Pou. Elkarrekin egindako proiektuetako batzuen kontaketa egingo dute, Puntaik Punta jaialdiaren baitan. *Martitzenean, hilaren 19an, Torresoroan, 18:30ean.*

erakustaldia; 12:30ean, luntxa; eta, 13:30ean, oparien zozketa. *Herriko plazan.*

ARRASATE Txokolate dastatzea
Harremanen eskutik, Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunean. *Seber Altuben, 11:00etan.*

ARETXABALETA 'Historia de las iglesias y ermitas de Aretxabaleta' liburuaren aurkezpena

Aitor Antxia egilarekin. *Arkupen, 12:00etan.*

BERGARA Intsumisioari buruzko erakusketa
Bergarako Objeto Talde Antimilitaristaren bilduma ikusgai, hilaren 24ra arte. *Aroztegin, 12:00etan*

ELGETA Lau emakumeri omenaldia

Mariasun Agirre, Karmen Ojanguren, Itziar Olabe eta Eli Aranzabal omenduko dituzte, odol-emaileei urteetan emandako laguntzarengatik. *Ozkarbi elkarte, 12:30ean.*

ARETXABALETA Esperimentazioa-gunea
0-4 urte arteko umeendako eta euren familiendako txokoa. *Kukumikuren egoitzan, 17:30ean.*

ESKORIATZA Mahai-jolasen txapelketa
Gaztetxoendako. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

BERGARA Freestyle txapelketa
Zulo Crew eta Blindo9. Debalde, edukiera mugatuarekin. *Kartzela zaharrean, 18:00etan.*

BERGARA Joxean Pascual organista eta Karmele Muro sopranoa

Organo Erromantikoaren Nazioarteko 22. Zikloaren baitan. Debalde, edukiera bete arte. *Santa Marinan, 20:00etan.*

BERGARA Anomalia eta Txonan DJ-aki
Sarrerak, bost eurotan, 21:30tik aurrera. *Kartzela zaharrean, 22:00etan.*

DOMEKA 17

ARETXABALETA Kooperatiben arteko VI. lasterketa solidarioa
Oinez, korrika edo ibilkera nordikoan egiteko aukera. *Urkulun, 10:00etan.*

OÑATI Erreka garbitzeko auzolana
Ibailagun 2021 jardunaldien baitan. *Foruen plazan, 10:00etan.*

LEINTZ GATZAGA Gatzaren Eguna
10:00etan, mendi ibilaldi gidatuak; 11:00etan, lixiba egiteko erakustaldia eta zurezko jolasak; 11:00etan, azoka ekologikoa eta gatz-xaboi tailerra; eta 12:00etan, *Baso bainuak. San Migel plazan.*



TANTTAKA

ARRASATE 'Ameriketako bidaia' antzezlan

Patxo Telleriak idatzi eta Mireia Gabilondok zuzendutako lana. Izaera oso ezberdina duten bi ikasleren paperean sartuko dira Miren Arrieta eta Nerea Mazo aktoreak. Sarrerak, hamar euro. *Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.*

OÑATI Aloñako Igoera

335 korrikalarik parte hartuko dute. Horietatik 140 debagoiendarrak dira. *Foruen plazan, 10:00etan.*

DEBAGOIENA Elorregiko Sagardoaren Eguna

11:00etan, sagarra birrintzen hasiko dira. Sagar-zukua eta sagardoa dastatzeko eta saiheskia parrilan erreta jateko aukera. *Elorregin.*

ARETXABALETA Lehen Mailako emakumezkoen pilota

Arraiza-Ruiz de Larramendi, Agirre-Erasunen kontra; eta Betegi-Lizarralde, Gabilondo-Ayesaren kontra. UDAre 75. urteurreneko ekintza. *Iturrigorri, 10:30ean.*

BERGARA Musika bandaren kontzertua

Bandako kide guztiek batera egingo duten lehen emanaldia izango da. Debalde eta %100eko edukierarekin. *Udal pilotalekuan, 12:30ean.*

ESKORIATZA Auto eolikoa egiteko tailerra

4 eta 8 urte artekoendako tailerra. Tailerrean egindako autoa haurarentzat izango da. *Kultura etxean, 17:30ean.*

ESKORIATZA Mahai-jolasen txapelketa

Gaztetxoendako. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

ARRASATE 'Ameriketako bidaia' antzezlan

Patxo Telleriak idatzi eta Mireia Gabilondok zuzendutako lana. Miren Arrieta eta Nerea Mazo oholtza gainean. Sarrerak, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

ASTELEHENA 18

ARRASATE 'Ciencia, cultura y mercado del dolor' hitzaldia
Arturo Goicoecheak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturaten, 10:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ELGETA Podologoa erretiratuendako

Txanda aurrez, 667 80 70 06 zenbakian. *Kultura etxean, 15:00etan.*

ESKORIATZA Bizikletak konpontzeko tailerra
Mugikortasun Astearen baitan.
Oreka bizikleta dendan, 18:30ean.

BERGARA Bergarako Sorturen herri batzarra
Kongresuaren kokapena eta ponentzia politiko-organizatiboaren aurkezpen-eztabaida egingo dute.
Irizar jauregian, 18:30ean.

ANTZUOLA Mendifilm emanaldia
Puntaik Punta jaialdiaren baitan.
Torresoroan, 18:30ean.

MARTITZENA 19

OÑATI Adineko pertsonak elkar ezagutzeko kafe hitzordua
Begirada Adia ekimenaren baitan.
Pake Lekun, 17:00etan.

BERGARA 'Ecologismo real. Lo que la ciencia dice que puedes hacer para proteger el planeta' hitzaldia
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan.
Gonbidapenarekin.
Seminarixoan, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Bizitza osoa, sokada batean' ikus-entzunezkoa
Pou anaien kontakizuna, Puntaik Punta jaialdiaren baitan.
Torresoroan, 18:30ean.

ELGETA 'Hitzez Pitz Berbalagun' saioa
Euskarazko A1 mailako liburu labor bat irakurtzeko, lehenengo saioa.
Liburutegian, 19:00etan.

ARRASATE 'La mujer que escapó' pelikula
Martitzenetako emanaldian.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 20

ANTZUOLA Puntaik Punta jaialdia
09:00etan, mendi ibilaldia;
16:00etan, Gomiztegira bisita;
20:00etan, izarrak ikusteko ibilaldia;
eta 20:30ean, Pello Herizen eta Leire Etxezarretaren emanaldia.
Antzuolan.

ARRASATE 'Pandemiaren ondorengo zaintza eszenatokia' hitzaldia
Felix Arrietak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Haurraren larrialdietarako lehen sorospinak' tailerra
Bea Pacheco pediarraren eta Larraitz Iturbe erizainaren eskutik.
Debalde, edukiera bete arte.
Mojen komentuan, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Karabi, karaba' ipuin kontaketa
Ines Bengoaren eskutik.
Arkupen, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'Ama' pelikula
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitoluekin.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 21

ANTZUOLA Puntaik Punta jaialdia
09:00etan, mendi ibilaldiak;
16:00etan, sendabelarren gaineko tailerra;
17:00etan, txotxongilo tailerra;
18:00etan, *Baso bainuak*;
19:00etan, *Irrien Lagunak. 10 urte* ikuskizuna;
19:00etan, Patxi Luqueren emanaldia; eta 22:00etan, Skabidean taldea.
Antzuolan.

ARRASATE Sasoibide irteera
Etxezarreta-Elorregi ibilaldia.
Biteri plazan, 10:00etan.

ARRASATE 'Amelie eta xirrikituen jostunek', ipuin kontaketa musikatua
5 urtetik gorakoendako, Amaia Elizagoienekin eta Irati Celestinorekin.
Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Sonic Trash
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Adios, idiotas
Egubakoitza eta zapatua: 19:30
Ninja a cuadros 2
Domeka: 16:30.

BERGARA
SEMINARIXOA
Adios, idiotas
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Patrulla canino
Domeka: 17:00.

OÑATI
KULTURA ETXEA
Benedetta
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.
D'Artagnan eta hiru mosketxakurrak
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR
COLISEO
Chavalas
Zapatua: 17:00.
Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:30.
Maixabel
Zapatua: 19:45, 22:30.
Madres paralelas
Zapatua eta domeka: 17:00.
Las leyes de la frontera
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.
ANTZOKIA
Madres paralelas
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ
BOULEVARD
Venom: habrá matanza
Egunero, martitzena izan ezik: 16:00, 18:30, 21:00, 23:00.
Egunero: 17:00, 17:45, 19:30, 20:15, 22:00.

El día de la bestia
Egunero: 20:00.
El buen patron
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:15, 20:45,

23:15.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00.
Sin tiempo para morir
Egubakoitza: 19:30.
Egunero: 18:15, 21:45.
Egunero, egubakoitza eta martitzena izan ezik: 16:15, 19:30.
Las leyes de la frontera
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 22:20.
Domekatik eguenera: 17:00.
Madres paralelas
Zapatua eta domeka: 15:45.
Egunero: 19:45.
Dune
Egunero, martitzena izan ezik: 20:00.
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
La familia Addams
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:30.
Egunero, zapatua eta domeka izan ezik: 17:15, 20:00.
No respire
Domekatik

eguenera: 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:45.
Maligno
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
Domekatik eguenera: 22:30.
El bebe jefazo
Zapatua eta domeka: 15:45.
La patrulla canina
Egunero: 18:00.
Shang Chi
Egunero: 21:20.
Maixabel
Egunero: 19:30, 22:00.
GORBEIA
El bebe jefazo
Egubakoitza eta zapatua: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.
D'Artagnan y los tres mosqueperros
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 12:00, 16:30.
La patrulla canina
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

Dune
Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 21:45.
Domeka: 11:45, 16:40.
Astelehenetik eguenera: 20:00.
Sin tiempo para morir
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 21:40.
Domeka: 11:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30.
Mediterraneo
Egubakoitza eta zapatua: 19:25, 21:45.
Domeka: 19:25.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Madres paralelas
Egubakoitza eta zapatua: 19:35, 22:00.
Domeka: 19:35.
Astelehenetik eguenera: 20:00.
Las leyes de la frontera
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:35, 22:10.
Domeka: 17:00, 19:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Venom: habrá matanza
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.
El buen pastor
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:40, 22:00.
Domeka: 17:20, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.
Pleasures
Egubakoitza eta zapatua: 18:20, 20:25, 22:30.
Domeka: 18:20, 20:25.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.
Mr. Link
Domeka: 12:00.

KRITIKA

Un segundo ★★★☆☆
Zuz.: Zhang Yimou. **Herr.:** China (2000). **Aktoreak:** Yi Zhang, Fan Wei. **Iraupena:** 104 minutu.

Zeluloide bobina gatazkatsua

ANTONIO ZABALA
Un segundo filma XX. mendeko 1960ko hamarkadan kokatzen da. Bi dira istorioaren protagonista nagusiak: alde batetik, lan-esparru batetik ihes egin duen aita bat; eta beste alde batetik, gurasorik ez duen eta bere ardurapean anaia txiki bat duen neskatila gazte bat. Biak Mao Tse Tung mandatariaren politikak zapalduta dauden pertsonaiak dira, eta, azken finean, zeluloide bobina bat izango da biak elkartzeko balio izango duen osagaia. Aitak jakin izan du herri baten proiektatuko duten filmaren aurretik propagandako film labor bat emango dutela, eta film horretan, urte askotan ikusi ez duen alaba agertzen dela. Bere helburu bakarra film hori ikustea da. Neskatilak, alderantziz, bobinaren zeluloidea harrapatu



nahi du, horrekin bere anaiaarentzat lanpara bat egiteko. *Un segundo*, batez ere, ipuin polit bat da. Bi pertsonaiaren istorioa kontatzeaz gain, zinemaren magia ere omentzen du. Herri guztiak lan egiten du filma proiektatu ahal izateko. Ilusio hori oso ondo antzematen da. Oso polita da

hainbeste gustatzen zaigun artearen indarra eta magia aldarrikatzea. Era berean, zuzendariak Txinan garai hartan zegoen politika zorrotza eta itogarria kritikatzen du. Bi pertsonaien ibilbidea eta euren artean gertatzen den hurbilpen sentimentala gustu onez filmatuta dago.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Hezkuntza aitzindari

Han eta hemen entzuten ari gara albisteak edo iritziak, adierazten dutenak hasi dela gure hezkuntza sistema aldatzeko deliberazioa eta badagoela adostasunerako borondatea. Askok poztzen nau horrek.

Duela 60 urte, ikastolen sorrerak irauli egin zuen ordura arteko sistema. Proposamen berria ez zen mugatu eskola frankista euskaraz ematera, eta berritzailea izan zen osagai pedagogikoetan, kudeaketan nahiz gobernantzan. Ahalegin eraldatzaile horri zor zaio, neurri handian, euskarazko hezkuntzak izan duen atxikimendua eta izen ona.

Baina ezer ez da betirako, eta ajeak pilatu egin dira: publikoa eta soziala uztartu ezina, euskarazko gaitasuna ez bermatzea, segregazio desberdinak... Eta argi gorriak piztu direnean, ohi bezala, ustez arrazoi osoa duten ikuspegi kontrajarririk zabaldu dira, erremedio erabatekoarekin. Zorionez, azken asteotan zerbait aldatu dela dirudi. Nonbait lana egin da gaia sakon aztertzeke, eta bilakaera posible baten zantzu oso interesgarriak entzuten hasi dira. Hezkuntza sistema zutabe funtsezkoa da edozein herri estrategiatan, eta euskarak bereziki behar du hezkuntza sistema aitzindaria. Betor bada!

GOIENA OKM GIDA

"Jendeak bere etxeko atea zabaltzen digu"

EGUZKIÑE URIBESALGO URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Jendearen arazo asko bereganatzen dituen arren, eta moderatzaile lanetan ibili behar izaten den arren, hori da bere lanean gehien baloratzen duena: zuzeneko tratua

Jone Olabarria ARRASATE

Duela 25 jarri zuen martxan Eguzkiñe Uribesalgok negozio propioa. Orduan bakarrik hasi bazen ere, gaur egun zazpi langile dira. Komunitateen administrazioa eramaten dute, hori soilik, baina, hala ere, lan handia dutela aitortu dute: bizilagunen arteko liskarretan moderatzaile aritzetik, igogailua jartzeko lanak kudeatzeraino.

Arrasaten jarri zenuen martxan negozioa, baina ez zara bertakoa...

Hori da. Ni Bergarakoa naiz, baina amaren partetik Arrasatekoa dut familia. Hemen hasi nintzen, eta hementxe jarraitzen dut. Askotan, hitz egiterakoan bi herrietako esamoldeak nahasten ditut eta Bergaran Arrasatekoa ote naizen esaten didate, eta Arrasaten kontrara. [Barre] **Atari eta komunitate guztietan daukade bizilagunen arteko liskarrak?**

Bai, orokorrean, denetan egoten da arazoren bat: bizilagun jakin batzuen arteko tirabirak, batek ez duela lanen bat egin nahi... Halakoetan, azken batean, bitartekari lana egin behar izaten dugu komunitateetan, moderatzaile aritu.

Zerk eragiten ditu, normalean, arazo horiek?



Eguzkiñe Uribesalgo, Uribesalgo Administrazioak-ek Arrasaten duen bulegoan. M.A.

'Dena' entzuten delako, gela aldatu

"Soinuaren isolamenduarekin arazo handiak izaten dira; askotan, baita etxe berrietan ere. Bezero batek esaten zigun gauean goiko bizilaguna entzuten zuela komunera bidean, eta, hortaz, beheko bizilagunek bera entzun ez zezaten goizera arte eusten ziola txizari. Beste batzuen kasuan, haurren logelak bizilagunen logelarekin partekatzen zuen horma, eta umeek dena entzuten zutela eta gurasoen eta haurren logela trukatu egin behar izan zuten".

Askotan, diru kontuak izaten dira, batek ez duela horrenbeste jarri nahi edo ezin duela... Usainekin ere egoten dira liskarrak, eta zaratarekin. Azkenaldian, igogailuekin ere lan handia dugu, eta horrek ere ematen ditu buruhausteak.

Ez da, ba, erraza izango hor tartean egotea beti...

Inpartziala izaten ikasi behar da, eta bizilagunen gehiengoaren onura bilatu, komunitatearen alde egin.

Bitartekari lan hori al da zure lanak duen okerrena?

Jendearen arazo asko gureganatzen ditugu, baina, apurka, urteekin, banabil hobeto kudeatzen hori dena. Ordutegiak ere ez dira idealenak lan honetan; bizilagunen bileretara joaten gara, eta seietatik aurrera izan ohi dira. Zortziak baino lehen ez naiz ia inoiz iristen etxera astean zehar.

Etengabe jendearekin lan egitera ohituta egongo zara orduan?

Bai, eta, hein handi batean, hori da lan honek duen onena ere. Jendeak bere etxeko atea zabaltzen digu, bere arazoak, kezak, poztasunak, ekonomia... Zuzeneko tratua izatera behartzen gaitu.

Bailara mailan egiten duzue lan. Zer garrantzi du horrek?

Garrantzi handia ematen diogu gertutasunari, bai fisikoki, baita tratuan ere. Bergara aldean eta Leintz aldean egiten dugu lan, gehienbat. Jaso ditugu eskariak Donostiatik, esaterako, baina ezezkua eman dugu.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida"

GOIENA TELEBISTA
SASOI BERRIA



BESTELAKO
OLATUA!

**ETA-REN JARDUERA
ARMATUAREN
AMAIERATIK, 10 URTE**

URRIAREN 20AN, EGUAZTENEAN,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN
ERREPORTAJE BEREZIA

goiena
Zu hemen zaude.

